



ttipi-ttapa



HERRIETAKO BESTAK / 29

AMAIURKO BATAILAK 500 URTE

Amaiurko gazteluko gudaren 500. urteurrena gogoan, hainbat ekitaldi egiten ari dira.

Uztailaren 16an ezpata dantzari

topaketa egin zuten eta abuztuaren 6an

'Amaiur, 2022-2522. Aurkituko gaituztenoi'

ikuskizuna egingen dute / 58



JUANTXO EGAÑA / JOSU INZIARTE / JOSEAN GRANDAL

Edoskitzearen garrantzia

Gurasoei laguntzeko asmoz, berriz ere edoskitze taldea martxan paratu dute Elizondon eta Donezteben / 8

SINADURAK

GARAZI
ZABALETA
URKIOLA / 3

AITOR
AROTZENA
ALBIZU / 3

GABI
GOIA
IPARRAGIRRE / 4

ELURRE
IRIARTE
BAÑEZ / 4

**Lapaitza Gazte
Asanblada sortu
dute Malerrekan eta
Bertizaranan / 11**

**Nafarroa
iparraldeko
konpostaje-planta
Donezteben / 21**



**Abuztuaren 6an
burdinaren eguna
ospatuko dute
Urdazubin / 62**



**Martxan da Herriz
Herri Txapelketa
eskualdeko hainbat
talderekin / 69**



ZOZKETA / 76



Amaiur 2022-2522

Aurkituko Gaituzuenoi

ZUZENDARIA:
JON MAIA SORIA

ET INCARNATUS ORKESTRA
OINKARI DANTZA TALDEA
J. M. BEDAXAGAR
OLAIA INZIARTE
GORKA HERMOSA
AIRE AHIZPAK
JOSEBA IRAZOKI
ELIZONDOKO KORO TTIKI
AMAIURKO GAZTELU TALDEA
EVA FRANCOREN MASKARADA

IKUSKIZUNA

Abuztuak 6 larunbata · 21:30

Sarrerak salgai: www.amaiur.eus

eitb **GARA** **berria** **Noticias**

1522-2022 AMAIUR **AMAIUR** **Gobierno de Navarra** **Nafarroako Gobernua** **Baztango Udala**

Panelak - Biniloak

Seinaletikarekin zerikusia duten materialak
Aluminiozkoak, PVCzkoak, biniloak, olanak eta abar

PANELAK-TOTEMAK



INFORMAZIO PANELAK
Egurrezko egiturarekin edo gabe

Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta materialen aukerak






ALUMINIOA
Sandwich panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3 mm
Koloretan

PVC
Forex panelak
Arinak eta iraunkorrak
Lodiera: 3, 5 eta 10 mm
Koloretan

METAKRILATO
Gardinak eta opakak
Lodiera: 4 eta 10 mm
Koloretan

ROLL-UP




ROLL-UP
Garrak poltsarekin
Ezaugarriak:
Galdetu neurri eta kalitate aukerak

BINILOAK

AZIDOAK


ELEKTROSTATIKOAK


GARDENAK


MIKROBENTOSAK


MIKROPERFORATUAK


POLIMERIKOAK


GAUZA GEHIAGO

OLANAK


PEGATINAK


INFORMAZIO GEHIAGO:
Koskontako bidea, 7-1 · LESAKA · Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus · www.kulturkari.com



NIRE TXANDA

GARAIZ ZABALETA URKIOLA

Gutxi aldatu dira gauzak, kamarada...

«Lagunak ditun aukeratutako familia». Ezaguna zaigu gehienoi esaldia, ezta? Bai, askotan iritsi da gure belarrietara laguntasunaren aldeko aldarria. Baina, eslogan guaiak alde batera utzita... familiak gaindiko zaintza sare eta harremani batere baliorik ematen al zaie gure jendartean? Familia nuklearra aspaldian dugu jomugan, baina leherrarazi nahi dugun instituzio horri benetako alternatibak planteatzeko ere zailtasunak ditugu sarritan. Ados, AitaAmaSemeAlabakTxakurraAutoFamiliarra formula zurrunetik kanpoko ereduak geroz eta ugariagoak –eta onartuagoak– dira: guraso bakarrek familiak, sexu bereko gurasoez osatutakoak... ongi. Non dago arazoa, beraz? Bada, familiaren formula ukiezin horren bueltan mugitzen jarraitzen dugula ia beti, eta bestelako harreman sareek –lagunak, bizitza-proiektua edo militantzia konpartitzen duten kideak...– ez dutela apenas lekuri. Marx eta Engelsek Manifestu Komunistan familiaren abolizioa aipatu zutenean erradikalek ere eskuak burura eramane zituzten. Bada, hemen jarraitzen dugu, ia bi mende geroago... ze gutxi aldatzen diren zenbait gauza, kamarada!

«FAMILIAREN FORMULA UKIEZIN HORREN BUELTAN JARRAITZEN DUGU»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Amaiur 2522

Inoizko ezpata dantzari topaketarik handienarekin gogoratu dute Amaiurren duela bortzehun urteko azken guda hura. Oraindik *Aurkituko gaituzuenoi* ikuskizuna falta da, agorrilaren 6an. Ikusiko dugu Jon Maiak nola irudikatu izanen duen, baina beldurra ematen dit hemendik bortz mendera nola ikusiko ote gaituzten gaur egungo nafarrak.

NABARMENTZEKOAK



**JOXE JABIER
ETXEBERRIA**
MEDIKUA



**MAIKA
ARIZTEGI**
HERRI KIROLARIA

Ia 30 urtez Goizuetako mediku izan den Joxe Jabier Etxeberriak erretiroa hartu du. Bere ibilbidearen aitortza egiteko eta eskerrak emateko uztailaren 15ean omenaldia egin zioten herritarrek.

Nafarroako Ingude Altxatze Txapelketan hamabigarren txapela jantzi zuen Maika Ariztegi iturendarrak Iruñeko sanferminetan. Aizkoran ere aritu zen, eta bigarren gelditu zen.

GIBELERA BEGIRA



2012-07-26 · TTIPI-TTAPA · 571 zk.

Konkistaren 500. urteurrena Iberon

Uztailaren 10a zen Goizuetatik Gaztelaren aldeko soldaduak sartu zirenean, eta duela hamar urte, 2012ko uztailaren 10ean, konkistaren 500. urteurrena gogoan oroitarria jarri zuten Iberoko dorrean. Nafarroa Bizirik plataformaren eskutik jarri zuten, Nafarroako estatuarenak izan ziren bertze gazteluetan eta dorreetan egin zuen bezala. Leitzako eta Goizuetako udal hautetsiak bildu ziren hitzorduan, eta horiekin batera, baita herritarrek ere. Iberoko dorrearen historia gogoratzearekin batera, aureskua dantzatu zuten Leitzako bi dantzarik. Urte hura berezia izan zen eta ekitaldi gehiago ere egin zituzten. Horien artean, Euskal Herriko Historialarien III. Biltzarraren mintegi bat Leitzan egin zuten.



erran.

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantxa Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztebea
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerreko Zerbitzuen Mankomunitatea.
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerreka 42
Leitza 33
Hego Euskal Herria 50
Ipar Euskal Herria, Europa 98
Amerika eta Australia 147



KOLABORAZIOAK

GABI GOIA IPARRAGIRRE

Manipulazioa

Denbora aldakorra eta segurtasunik gabea bizitzen ari garelako sentsazioa daukat. Telebistan aditzen dudanarekin, sare sozialetan leitutakoarekin behin eta berriz harritua gelditzen naiz... Zer kontatzen ari da esatari hau? NATOko goi-bilera horretan, gizartearentzat zerbait eraikigarria adostu zuten ala guztion dirua erruz xahutu zuten? Gerra, suteak... Atzoko mixeriak non gelditu dira gaur? Irailerako izugarritzko krisia omen dator eta udan denak oporretara joatera animatzen gaituzte...

Norbaiti interesatzen zaion tokitik eraman nahi gaituztelako bizipena gero eta argiagoa dut. Eta sentipen honetan pixka bat sakondu nahian, alde batetik eta bertzetik 'manipulazio' hitza agertzen zait. Gizarteko esparru pila batetan islatzen da manipulazioa eta moda-modan dago egunerokoan. Ikerketa pertsonal ttiki bat egin ondotik, hauexek dira ondorio batzuk. Datuak manipulagarriak dira, denok aditu ditugu gure politikoak hauteskunde gauetan emaitzak erabiltzen bakoitzak bere aldera egiteko. Legeak ere bai, egun hauetan aditzen ari gara 'Memoria Historikoaren Legea' nahasten, asmatzen, hitz batean manipulatzeko. Ekonomia ere erabil daiteke alde batera edo bertzerara egiteko, hona hemen berri bat: «Auzitegi Nazionalak Iberdrolari

«ALDE BATETIK ETA BERTZETIK 'MANIPULAZIO' HITZA AGERI ZAIT»

epaiketa ireki dio argiaren prezioa manipulatzeko-gatik». Eta nola ez, pertsonak eta irudiak zikindu eta kaltetu daitezke beraiei buruzko egia ez den informazioa erabiliz eta zabalduz, egun hauetan denen ahotan dabilen Ferrerasen eta Villarejoren

arteko elkarriketa, Iglesias zikintzeko kasua, horren adibide dugu.

Gaiaren inguruan informazioa bila nenbilerarik niretzat berria izan den hitz potolo batekin topo egin dut: 'manipulazio mediatikoa'. Iritzi publikoa moldeatzeko, aitzinetik pentsatuak eta antolatuak diren estrategia sorta bat izanen lirateke, kasu batzuetan 'egia' aldatuz entzuleengandik lortu nahi dena bideratzeko asmoarekin. Honela, gizarte hau mugitzen duten 'indar ezkutuek', komunikabideen bidez, estrategia hauek erabiliz gizartea beraien nahietara eramatea lortuko lukete.

Gaur eguneko jendartean komunikabideek garrantzi eta itzal handia dute. Ni ez naiz komunikazio mundukoa baina espero dut kazetaritza edo ikus-entzunezko fakultateetan komunikabideen ahalmen manipulatzailarean ikasgaia sakonki landuko dutela, profesional zintzoak eta baliodunak formatuz. Bertzalde, hain indartsu eta hainbertzeko presentzia duten komunikabide haundi horien parean, tokian tokiko komunikabide ttikiak eta independenteak –bertako aldizkariak, iratiak, telebistak– are beharrezkoagoak dira errealtatea ezagutzeko.



ELURRE IRIARTE BAÑEZ

Zuri erraten dizut

Zuri, bestak errespetutik eta modu librean bizitzea aldarrikatzen dugularik, zuretako bakarrik diren bestak direla uste duzun horri.

Zuri, herriz herri eroso ibilki zarena, nahi duzun moduan, baina beti bertzeen gainetik: hau bulkatuz, bertze haren ipurdia ukituz, ondoko herriko hori joz.

Zuri, nahi bezala ibiltzean, bertzeak trankil ibiltzen uzten ez dituzun horri.

Zuri erraten dizut, bestetan zure botere posiziotik ari zaren horri, denak berdinak garela erran, baina egiazki gehiago zarela uste duzun horri. Gehiago izate hori justuki emakumeekin sentitzen duzunari. «Denak berdinak izanen gara, baina ezin gara berdintasunean bizi» sinesten duzun horri.

Akaso bortxaketa bat dagoelarik pankartaren inguruan ibiliko zara, baina bezperan edo biharamunean zure ondoan dagoen neskari, titiei edo ipurdiari buruzko komentarioa egingen diozu. Akaso Martxoaren 8ko manifestazioan izan zara, baina ondoko asteburuan zure lagunekin txisteak egingen dituzu etxeko lanei buruz, harreman toxikoei buruz edo emakumeen kontura irri egiteko edozein gairi buruz.

Akaso eskolan edo lantokian landuko duzu gizon eta

«BESTAK DENENDAKO DIRELA ERRATEAN HORI DA: DENENDAKO»

emakumeen arteko berdintasuna, baina gero xiringa batekin ibiliko zara nor ziztatu, droga gorputzean sartzeko, drogatur dagoen gorputz batean bortxa erabiltzeko.

Beharbada erasoen kontrako pegatina bat

eramanen duzu bestetan, baina mutil dantza baztertzailea babestuko duzu, akaso dantzatu ere bai. Posible da mutil dantzak ongi ikasi izana, baina «ez dut dantzatzeko gogorik» sinestarazi izana zeure buruari, plazan emakumeekin dantzatu behar ez izateko. Edo bertzerik gabe, mutil dantzak diren momentuan plazatik desagertuko zara. Edo beharbada ez ikastea erabakiko duzu, horrela, ez duzu zeure burua estutua sentitzeko aukerarik izanen.

Zuri erran nahi dizut, herriko bestak zentzu horretan hartzen dituzun horri: gizarteak aitzina segitzen du, lanean ari gara horretarako. Zure jarrera horrek, aitzineko horietako edozein izanda ere, ez gaitu geldituko. Traba egingen digu, bai, ez dut ukatuko, baina ez gaitu geldiaraziko.

Zuri erran nahi dizut bestak denendako direla erraten dugularik, hori dela: denendako. Beraz, zure jarrera horietakoren bat baldin bada, sobran da.

11 GALDERA LABUR

UNAI ORBEGOZO KORTEA ZIGAKO GAZTEA

«Bestetan herrian sortzen den giroa berezia da»

Nola definituko zenuke zeure burua?

Mutil alaia naizela erranen nuke, geldirik egon ezin den pertsona, gauzak antolatzeko gogotsu dagoena.

Zein dira zure zaletasunak?

Amatxirekin denbora pasatzea da nire zaletasunik handiena, eta aunitz gustatzen zait kirola egitea (futbola, frontenisa, ur kirolak...) eta kantatzea, euskal kanta zaharrak batez ere, Amaiurko Gaztelu taldean aritzen naiz.

Zenbat lagun zarete Zigako Besta Komisioan?

25 zigatar gazte gara urte oso-ko ekitaldiak antolatzen ditugunak, 16-17 urtetatik 30 bat urtera artekoak. Hala ere, adin guzietako herritarrek laguntzen digute eta eskertzekoa da.

Nola banatzen dituzue lanak?

Komisioka banatzen gara. Egin beharreko lanak zein diren bereizten ditugu eta zozketa bitartez erabakitzen dugu ba-koitzean nor arituko den.

Lan handia da?

Denak bezala, bere lana du, baina denon artean nahiko erraz egiten dira lanak.

Bestetarako gogotsu egonen zara, ez?

Bai, pasa den urtean seinale bat bertzerik ez genuen egin eta horrek gogo handiagoarekin utzi zidan. Erraten den bezala, 'nahi eta ezin' sentsazioarekin gelditu nintzen.

Eta zigatarrak?

Gogotsu ikusten ditut, adin guzietako jendea kanpora ateratzeko gogoarekin ikusten dut, besta gosearekin.



Zer hartzen duzue kontuan egitaraua prestatzean?

Pixka bat denetarik antolatzen saiatzen gara, adin guzientako. Aurten baliteke zerbait berria izatea, baina hori jakiteko hoberena bestetara hurbiltzea izanen duzue... kantatzeko eta dantzatzeko gogoarekin batez ere!

Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Herritarrek elkartzeko eta herrian sortzen den giroa. Bere- ziki dantzaldia gustatzen zait, zigatarrek dantzariak garelara

erranen nuke, duela bi urte bederen bai, eta jendeak beti bezala segitzea espero dut.

Zure asmoak epe motzera?

Udaz gozatzea lagunekin, bi urteren ondotik askatasunez mugitzen ahal gara berriz, nahi duguna egiteko.

Eta epe luzera?

Mutiko arrunta naiz, Baztan inguruan gelditzea da nire asmoa, egoerak uzten badu behinpin, baina etortzen dena ailegatu bezala kudeatuko dut, sobera planik egin gabe.



Udako merkealdia

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea
 Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Aukeren bidean

ARANTXA GAMIO IGOA

Ama izateko bide honetan ez naiz emagin, erizain edo ginekologoei ibili. Kasu honetan Mertxe, Carol eta harrera guraso bihurtuko diren bertze hainbat emakume eta gizon izan ditut ondoan.

Ukrainan egiten ari den gerrak iratzarri zidan aspal-dian izandako asmoa. Familian erran eta baietzak hartzerakoan aitzinera egin genuen.

Ez da nire barnean ernaldutako haurdunaldirik egon, baina bera istestar den azken egunek haurdunaldikoen antza izan dute: abisu baten zain gaude. Esperoan.

Kasu honetan ordea, abisua ez da nire barnetik sortuko.

Prozesu honetan ere, dena ez da nire esku egonen.

Mezu batek erranen digu iritsi dela, gureta 'sortu' dela.

Aitzitik, kasu honetan ere, hurbilekoen interesa, jakin-mina, galdemoduak egon dira. Prestaketak. Espektatibak. Galerak eta uko egiteak. Ikusteko, ukitzeko, ... irrika. Ilusioa. Kezkak...

Oporrak bakean egitasmoarekin Algeriako lurretan Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetatik Saharako hurrei uda osasuntsu bat gerra girotik at eta bizi baldintza duinetan pasatzeko aukera ematen zaie.

Hau guztia Saharaztan eta ANAS elkarleen bidez ahalbideratu dugu. Ama egintzaren bidean bertze bidegurutz bat izanen da.

Epa, ba al dago norbait hor?

JUANKAR UNANUA NAVARRO

N-121-A AUZO-PLATAFORMAKO KIDEA
ETA IGANTZIKO ALKATEA DA.

Basamortuan predikatzeak zure oreka mentala zalantzan jartzera eramaten zaitu. Baina, aldi berean, konplexuak eta bestelako lotura intelektualak kentzen dizkizu.

Gainera, kasu honetan bezala, gergilu politikoei ere ez zaituztenean mugatzen, norberak pentsatzen duena erran dezake, errepresalien beldurrik gabe. Edo hori uste dut (espero dut).

N-121-A errepideak aspaldi utzi zion zentzuzkoa izateari. Aspaldi utzi zion lotsagarria izateari lotsagarria baino gehiago izateko. Baina, batez ere, aspaldi utzi zion ikusezin izateari. Eta hori da samingarriena, gobernatzen gaituztenentzat hala izaten jarraitzen baitu. Edo hala dirudi.

2021eko urriaren 28an, Nafarroako Parlamentuak, mozio bidez, jatorriz eta helmugarik gabeko salgaien nazioarteko trafikoa astuna desbideratzearen aurka bozkatu zuen, lanak irauten duten bitartean. Neurri horrek istripu-arriskua murriztu nahi zuen lanak gauzatzen ziren bitartean. Erran beharra da, aukera hori jasotzen dutela bai 5/2007 Foru Legeak eta bai 18/2018 Errege Dekretuak. Hala ere, jaun-andre parlamentari gehiengoei ez zitzaizkien garrantzitsua iruditu.

2+1 famatuaren lanak hasi zirenetik lau hildako zenbatu ditugu. Lau. Horietatik hiru,

BOTA BERTSOA

KATTIN MADARIAGA APAOLAZA

ARANTZAKO BERTSOLARIA
BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER
LEHIAKETAN B MAILAN 1. SARIA

Paper txuriak

Doinua: Habanera

*Gelakideen isekak
entzuten ditudanetan
begiak zabalik hasten
naizenean ametsetan.
Bakardadearen falta
gerturatzeko zaidanetan
beste bat naiz ispiluan
begiratzen dudanean.
Batzutan ez dut segi nahi
nire bizitza honetan
soka gainean nago ta
ezin dut segi orekan.
Baina ni neu bihurtzen naiz
nire bertso askeetan
tristura oro azalduz
ene paper txurietan*

*Ettera iritsi eta
begietan dut negarra
baina laster ateratzen zait
aurpegian irrifarra.
Gelan sartu ta pizten zait
barnean dudaren sugarra
ta paper txuriei esker
ateratzen dut indarra.
Errimak pentsatzen hasi
ta puntuak barra-barra
horrela kanporatzen dut
betiko Kattin koldarra.
Baina batzutan badaukat
nik hau pentsatu beharra
papera zerua da ta
ni naiz bertan ostadarra,*

kamioi banaren aurka talka egin ondok hil ziren. Ba al dakizue zenbat gertatu ziren laneko zatietan? Hirurak!!

Eta neure buruari galdetzen diot ea hau kasualitateari, halabeharri bakarrik egotz dakioken. Neure buruari galdetzen diot, inor ez ote den benetan lotsatuko. Inor ez ote den gutxieneko erantzule sentitzen. Neure buruari galdetzen diot, desbideratze horrek ezin izanen ote zuen saihestu, heriotza horietako bat bertzerik ez bazen ere. Eta, batez ere, neure buruari galdetzen diot ea zuzenean ukitutakoez gain, axola zaion norbaiti.

Txibite andrea, errespetu osoz; aurrez aurre erran nizuen, eta publikoki errepikatzen dizut: kontua ez da inori errua botatzea, segurtasuna hobetzea baizik, arriskuak prebenitzea, eta, prebentzio-ekintzaren printzipioen arabera, arriskuak prebenitzeko modurik onena saihestea da. Eta hori, ziur, zuk nik baino hobekiago dakizu. Tamalez berandu gabiltza, baina hobe berandu inoiz ez baino. Erreakzionatu, ahal bada berriz negar egin baino lehen. N-121eko erabiltzaile ikusezinok eskertuko dizuegu.

Zaindu maite duzun hori...

Bidali zure zalantzak,
proposamenak,
azalpenak...
Animatu eta parte hartu!

 744 48 43 61

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Bere aldetik

Sarritan, bere aldetik errana (es) por su parte eta (fr) pour sa part eta de son côté erranen kalko gisara erabiltzeko arriskua dago. Euskaltzaindiak dioenez, ordea, euskarazko tradizioan, bere aldetik erranak ez du diskurtso-markatzaile baliorik: bere kasa edo antzeko zer bait adierazten du, ez bertzerik.


- Bakoitza bere aldetik dabil.

Diskurtso-markatzaile gisa, bere aldetik baino egokiagoak dira, bertzeak bertze, berriz, alderantziz eta ostera aurkaritzako juntagailuak edota bestalde eta bestetik/bertzetik moduko lokailuren bat.

- Amaiak negoziatzeko prest daudela adierazi du. **?Josebak, bere aldetik**, halakorik ez duela onartuko erran du > **Amaiak negoziatzeko prest daudela adierazi du. Josebak, berriz**, halakorik ez duela onartuko erran du.

- Emakumezkoek, **?bere aldetik**, hil honen 16an eta 17an neurtuko dituzte indarrak > Emakumezkoek, **bestalde**, hil honen 16an eta 17an neurtuko dituzte indarrak.

Osatu erran zaharra





Maria Villegas emaginak dioenez, «ama-esneak haurren hainbat gaitasunen garapenean laguntzen du eta eritasunen prebentzioan lagungarria da». FREEPIK.COM

Edoskitzearen garrantzia erakutsi nahian

Edoskitzeari merezi duen garrantzia emateko lanean ari dira Elizondoko eta Doneztebeko Osasun Zentroko emagin eta pediatriako erizainak. Eskualdeko gurasoei laguntzeko helburuarekin sortutako Edoskitze taldeari buruz aritu dira TTIPI-TTAParekin

R. OSKARIZ

«Umeei bularra emateko prozesuan laguntza ematea» da Elizondoko eta Doneztebeko Osasun Etxean egiten duten Edoskitze taldearen helburua. Duela 25 urte hasi zituen saioak Elizondon Ixabel Aleman emaginak. Pandemia dela medio, taldea bertan behera utzi behar izan dute azken bi urteetan, baina berriz ere abiatu dute aurtengo eskualdeko gurasoak bertan parte hartzera animatu dituzte. Taldeko gidarietakoa bat da Arantxa Agerre Irigoien erratzuarra.

Ttikitatik bere burua «erizaintzan eta bereziki umeekin lanean» argi ikusten zuen Agerrek eta pediatriako erizaina da gaur egun Donezteben; «2015ean Lesakatik Doneztebeko zentrorra etorri nintzen pediatrian lan egitera eta Edoskitze taldean nago».

«EMAKUMEEK ELKAR LAGUNTZEN DIOTE TALDEAN»

ARANTXA AGERRE, ERIZAINA

Edoskitze taldea

«Umeei bularra emateko prozesuan laguntza behar duten emakumeei laguntzeko prest dagoen taldea da Edoskitze taldea». Elizondoko emaginak eta bi zentroetako pediatriako erizainek gidatzen dituzte saioak, «eta taldean parte har-

«AMAREN ESNEA PRODUKTU EZIN HOBEA DA»

ARANTXA AGERRE, ERIZAINA

tzen duten emakume guziak elkarlanean aritzen dira laguntza prozesuan».

Taldea «umeei bularra ematen ari diren amei» zuzendua baldin badago ere, «haurdun daudenak eta prozesu horretan pentsatzen ari direnak etortzera animatzen ditugu, eta nola ez, aitzak ere gonbidatuak daude». Hala ere, «erran beharra dago aitzak guttitan etortzen direla taldera».

Bertan, amen kezak, zalan-tzak eta zailtasunak lantzen dituzte; «aunitzetan, haien kezak partekatzeak aunitz laguntzen die, taldearen parte sentitzea arraz lagungarria da eta partaide bakoitzak bere esperientziarekin taldea aberastu du». Amek hainbat zalantza izan ohi dituzte; «ohi-koenatariko bat seme-alabarrendako esne aski ote duen izaten da». Baina ez da bakarra; «adibidez, titian mina sentitzen badute, postura egokiak bilatzen laguntzen diegu, mina desagerrarazteko

edo bederen guttitzeko. Honez gain, umea ase den nola igarri edo negarraren arrazoiak zeintzuk izaten ahal diren aztertzen saiatzen gara, berteak berte».

Bi astetik behin elkartzeko dira, hilabetearen lehenengo ortzegunean Elizondoko eta hirugarren ortzegunean Donezteben. Goizetan biltzen da taldea, 11:30etik 13:30era. «Udan, oporretan gaudenez, datoren bat aldatu dugu, baina abuztuan beti bezala egiten dugu; hilaren 4an Elizondoko eta 18an Donezteben».

Pandemiak ere eragina izan du taldean; «talde guztiak desagerrarazi zituen. Lehen Elizondoko, Donezteben eta Lesakan bildu ohi ginen». Elkarrekin ezin zirenez, «bakarkako kontsultak areagotu ziren, eta taldearen garrantzia ikusi genuen. Partaide guztiak elkarlanaren falta sumatu genuen, eta argi dugu denok batera pila bat laguntzen diogula elkarri».



2015etik Doneztebeko zentroko pediatriako erizaina da Agerre. UTZITAKOA

Aurtengo maiatzean berratu dute berriz ere Edoskitze taldea, Lesakan izan ezik. Jendea etortzera animatu dute pediatrikera eta emaginak; «mundu guztiak haurren garapenean edoskitzeak nolako garrantzia duen jakitea gustatuko litzaiguke. Amagandiko edoskitzea haurrendako hoberena izateaz gain, ekologikoa, naturala eta hondakinik sortzen ez duen produktua da, ezin hobea!».

iHAN zentroa

Elizondoko eta Doneztebeko Osasun Zentroak iHAN (jaiotzerako eta edoskitzerako laguntza humanizatzeko ekimena) ekimenaren parte dira. Munduko Osasun Erakundeak eta UNICEFek (Haurren Laguntzarako Nazio Batuen Funttsak) sortu zuten ekimena 90eko hamarkadaren hasmentan. Helburua ospitaletan eta osasun zentroetan haurrak jaiotzen direnetik bularra ema-

ten laguntzen duten praktikak sustatzea eta babestea da.

Osasun zentro batek iHAN akreditazioa lortzeko lau fase gainditu behar ditu; ezagutza, garapena, zabalpena eta izendapena. Doneztebeko eta Elizondoko zentroak lehenbiziko fasean daude, «eta denak gainditzean lortuko dugu akreditazioa, kalitatezko Q bat bezalakoa dena».

Baina ez da lan erraza; «fase bakoitzean gauza aunitz egin behar dira eta jende aunitz inplikatu behar da. Edoskitzearen garrantziaz kontzientzia izan behar gara, eta honi buruzko prestakuntza eta informazio bera eman behar dugu zentro guzietan. Gainera, langile guzietan formazioa jaso behar dugu, bakoitzak bere arlotik prozesuan laguntzeko». Eta noski, akreditazioa lortuta, «zigilua mantentzeko lanean segitu behar dugu. Hori ziurtatzeko, ikuskariak pasatzen dira noizbehinka».

«Gure izaera primarioa bueltatzeko beharragatik sortu nuen taldea»

IXABEL ALEMAN IRUNGARAI EMAGINA

1990ean erizaintza ikasketak akitu zituen Ixabel Aleman amaiurtarrak eta handik urte guttitarra El Salvadorreko landa eremuko herri txiki batera joan zen sei hilabetez. Amatasuna ulertzeko modua aldatu zion bidaia horrek eta «esperientzia nabarmena» izan zen «profesional eta emakume gisa»; «hantxe jabetu nintzen naturaren indarraz eta ikasi nuen gizakiak, bere une zailenetan, berezko gaitasun berezia duela bizirauteko. Horren adibide da edoskitzea».

Ordura arte, «ez nion garrantzia handirik ematen haurren elikadurari, baina orduan kon-

turatu nintzen naturak eman digun horrek, amaren esneak alegia, biziak salbatzen dituela. Haur sortu berriek, amaren esnea hartzen zuten bitartean, bizirik irauten zuten eta baten batek esnea hartzeko arazoak bazituen, hil egiten zen. Hortik aitzinera bertez begi batzuekin ikusten hasi nintzen amatasunaren inguruko aferak».

1995. Emakumearen arreta zentroa ireki zuten Elizondoko eta bertan Edoskitze taldea sortu zuen Alemanek; «bidaia-ekin harriturik, hemen haurdun zeunden emakumeekin gaia lantzen hasi nintzen». 2002an emagin ikasketak hasi zituen,



UTZITAKOA

«formakuntza gehiagoren beharrak bulkatuta», eta 2005ean emagin lanetan hasi zen.

Edoskitze taldea sortzeko arrazoiak argi ditu; «gure ama memoria berreskuratu nahi nuen, gure izaera primario horretara bueltatzeko beharra sentitzen nuen». Emakumeek edoskitzeari buruz informatu nahi ziren, «gero beraiek informazio guzi horrekin erabaki-

tzeko aukera izan zezaten». Izan ere, «garai hartako amak edoskitzea galdua zen tenorean sortuak ziren. 1960-70eko hamarkadetan, inongo argudio zientifikorik gabe eta profesionalek bultzatuta, formula esnearekin haziak izan ziren haurrak. Beraz, titia emateko kultura erabat galdua zen eta ez zuten inongo erreferentziarik». Kate hori «puskatu» egin zen, «eta lotura berreskuratzekoaren beharra sentitu nuen».

Ekimenak arrakasta izan zuten, «laguntza taldea zen, batak bertzearekin elkar laguntzen zion esperientziak azalduz eta adituz. Nire papera arlo zientifikoa lantzea zen, baina dena beraiek egiten zuten, emakumeek. Arront praktikoa zen». Gaur egun Alemanen lana «erabat asistentziala» da eta ez dago taldean, baina taldearen esentzia «ez dela aldatu» dio.



Duela bi urte hasi zen Villegas emagin lanetan Elizondon. UTZITAKOA

«Amak zaindu behar ditugu, haiek zaintzeko gai izan daitezen»

MARIA VILLEGAS BAZTAN ELIZONDOKO ZENTROKO EMAGINA

2008an bukatu zuen erizaintza gradua Maria Villegasek eta «profesionalki nire lekua bilatzen ari nintzela, 2013an Barneko Erizain Egoiliarrentzako formakuntza egitea erabaki nuen». Iruñean emagin gisa erresidentzia egiteko plaza lortu zuen, eta gaiarekin «inongo harremanik izan gabe, harrituta gelditu nintzen emakumearen gorputzarekin, duen boterearekin eta haurrarekin sortzen duen loturarekin». 2020an hasi zen Elizondoko Osasun Zentroan lanean, eta Edoskitze taldean aritzen da Elizondon eta Donezteben, «titia eman nahi duten amei laguntza eskaintzeko, espazio seguru bat sortzeko eta ama guziek mintzatu eta parte hartzeko». Gaur egun, osasungintzan, «amatasunari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaiola» dio, «gero eta informazio eta kontzientzia gehiago dugulako». Hala ere, «oraindik aunitz dagoela egiteko» aitortu du, behar bezalako garrantzia eman diezaioten.

Ama-esnearen garrantzia nabarmendu du; «ikerketa aunitzek ondorioztatu dute haurren hainbat gaitasunen garapenean laguntzen duela; hizkuntza, jakinduria, adimenean... Gainera, eritasunen prebentzioan lagungarria da, osaera paregabea eta propietate immunologiko zoragarriak dituelako». Garrantzitsua da baita ere amaren eta haurren arteko harremana «segurua» izatea, «hau da, haurrak jakin dezala amak bere beharrianak asetuko dituela. Haurrak beti izanen du lotura amarekin, eta eskatzen duenean titia emateak, lotura segurua izatea errazten du». Hala ere, titia ematea «hautu pertsonala» da eta badaude edoskitze misto edo artifizialaren alde egiten dutenak; «haurra elikatzeko modua aldatzen bada ere, kontaktuak eta harremanak beharrezkoak izaten segitzen dute». Horretarako, «gaur egun biberioa emateko modu fisiologikoagoak ditugu, *kassing* metodoa adibidez, edoskitzea ahalik eta gehien imitatzean datzana». Izan ere, «titia ematen badugu, nahi dugulako izan behar du, ez derrigortu edo inposatu digutelako». Erabakiak «librea eta borondatezkoa» izan behar du, «eta haurdunaldian informatzea arras baliagarria da, edoskitzearen inguruko mito aunitz aditzen baititugu». Edoskitze eta erdiondoko taldeek bakarrik ez sentitzen laguntzen dute, «erdiu ondorengo denboraldia adaptatzeko eta indarberritzeko baita. Amak zaindu behar ditugu haiek zaintzeko gai izan daitezen, eta noski, bikote edo familiaren eginkizunak beharrezkoak dira».

«Hartzen duzun erabakia zuzena izanen da»


LAURA MARTINEZ AURTIZKO AMA

Laura Martinez aurtiztarra lehenbizikoz izan da ama eta «biziko esperientzia politena» izan dela dio, «baina emozionalki momentu hagitz gogorrak ditu». Maiatzean hasi da Edoskitze taldean. Bertan «esperientziak, dudak eta beldurrak» partekatzen ditu eta «profesionalarengandik zein amengandik» ikasten ari da. Esaldi bat «grabatuta» du: «hartzen duzun erabakia zuzena izanen da, nahiz eta gero ohartu hobetu daitekeela».

«Amatasuna gertatu zaidan gauzarik zoragarriena da»

NAHIKARI AMIANO ERASO ELIZONDOKO AMA

Lehendabizikoz izan da ama Nahikari Amiano elizondoa-rra eta esperientzia «benetan aberasgarria» izaten ari dela dio; «badira egun zailak eta gogorrak, baina tikiak dena konpentsatzen dit. Amatasuna gertatu zaidan gauzarik zoragarriena da». Pandemi garaian sortu zen haurra, Edoskitze taldea bertan behera gelditu zelarik, baina



UTZITAKOA

«osasun zentroko espezialistak beti zeuden laguntzeko prest. Hala ere, ez nuen halako arazorik izan edoskitzearekin eta horrek aunitz lagundu zuen». Haurdunaldian ongi prestatu zen Amiano; «haurren heziketa eta garapenaren mundua betitik aunitz gustatu zait eta haurdunaldian pila bat leitu nuen. Azken hiruhilekoa konfinatua pasatu genuenez, Interneten talde bat aurkitu nuen. Hainbat espezialista zituen, eta edoskitzeari buruzko ikastaro, liburu eta informazio pila jaso nituen». Gurasoek ere parte hartzen zuten taldean; «haurren heziketarekin, edoskitzearekin eta garapenarekin genituen esperientziak, bizipenak, arazoak eta kezak partekatzeke. Arras lagungarria izan zen eta partaide izaten segitzen dut». Hala ere, «talde presentzial baten falta» izan zuen: «prozesu berdinean dauden gurasoekin esperientziak, kezak, beldurrak... partekatzea arras aberasgarria da. Denengandik aunitz ikas dezakegu egoera bakoitza arras desberdina baita». Edoskitzea «gure momentua da, haurren eta nire arteko momentu goxoa. Une horretan partekatzen ditugun begiradak, laztanak, jolasak... arras aberasgarriak dira». Gainera, haurrendako onura «fisiko eta emozionalak» dituela gehitu du. Baina argi du «guk ez dugula zailtasunik izan eta aukeratutako zerbait izan dela. Bertze jende aunitzek ezin du edoskitzea aitzinera eraman, egoera bakoitzean hainbat faktorek parte hartzen dutelako». Horregatik, «norbaitek edoskitzea aitzinera eramateko arazoak baditu, laguntza eska dezala. Informazioa badago eta jende aunitz laguntzeko prest».



Lapaitza Gazte Asanblada sortu duten gazteetako batzuk lapaitzaz inguratuta.

Malerreka-Bertizaranan Lapaitza zabaldu nahian

Malerrekako eta Bertizaranako bederatzi gaztek Lapaitza Gazte Asanblada sortu dute. «Sobera mugitua ez dagoen gazteria mugiarazi» eta «hainbat gabeziaren inguruan eztabaidak eta dinamikak landu nahi dituzte

G. PIKABEA

Erraz zabaltzen da lapaitza. Soro, larre eta belaietan nahi baino gehiago zabaltzen den eta aisa galtzen ez den belar txartzat hartua da. Malerrekan eta Bertizaranan, ordea, nahita erein dute, nahita zabaldu nahi dute. Lapaitza izena paratu diote Malerrekako eta Bertizaranako gazte asanbladari eta «gure modura lehenagotik sortua zen asanbladari segida emanaz», «gazteria mugiaraziz» eta «hainbat gabeziaren inguruan eztabaidak edota dinamikak landuz» Malerrekan eta Bertizaranan zabaldu nahi dute.

Ez dute alferrik aukeratu izena, «landarea bezala, espero dugulako gu ere erraz zabaltzea eta nekez galtzea. Eta bidean norbait molestatzen badugu, bide onetik goazen seinale izanen da». Halaxe adierazi dute.

«Malerrekako eta Bertizaranako egoerarekin kezkatuta dagoen eta gazteria mugiarazi nahi duen lagun kuadrilla» bildu da Lapaitza Gazte Asanbladana. Orain dela hilabete bat hasi ziren elkartzen eta geroztik «asanbladaren izaeraren eta eskualdeko gabezien inguruan eta sendotzeko lanean» aritu dira. Baztango Gazte Asanbladaren atea ere jo dute, «ideia batzuk ateratzeko» eta hainbat mobilizaziotan parte hartu dute: «harrotasunaren egunean, *Ez dira heriotzak erailketak dira, Beltzen bizitzek axola dute...*».

Hemendik aitzinera, berriz, epe laburrean «asanblada sendotu eta indarra hartu» nahi dute, «komunitate bat lortuz». Eta epe luzera begira, «gaztetxe bat izatea gustatuko litzaziguke, horrelako espazio bat izatea hagitz beharrezkoa ikusten

baitugu, baita bertan maiztasunez jarduerak egitea ere».

Gazteria geldirik

Inguruan ikusten dituzten «hainbat gabezia» hizpide izan dituzte, tartean, «euskara, indibidualismoa, LGTBIQ+ komunitatea, gazteen prekaritatea, ekologismoa, digitalizazioa, anti-arrazakeria, feminismoa, aisialdia, osasun-mentala, apustuak, etxebizitza, garraioa...» aipatu dituzte. «Gai horiek ez dira sobera lantzen, are guttiago gazteen artean». Baina bada gehiago kezkatzen dituen zerbait: «Malerrekako gazteria ez dago sobera mugitua eta nahi-ko hila somatzen dugu, gu barne noski». «Politizatu gabeko gazteria» sumatzen dute, «bizitza heldu den modu berean hartzen duena. Bizimodu eroso izan daiteke, baina igno-

rantzia du oinarri. Joerari segitzen dion gazteria da, aisialdiko denbora gehiena alkoholean eta bestan oinarritzen duena». Lapaitzakoen ustez, «ez dago interesik egunerokoan ditugun biolentziez hausnartzeko eta salatzeke, seguruenik interes hori ez izatea pribilegio batetik datorrelako, eta jendea ez dago prest konpromisoa hartzeko».

Gabezia horietako bakoitzari erantzun nahi diote, «pixkanaka sortuko ditugun ekintzen bidez». Hasteko, «asteen behin edo bitan hainbat adin eta herri-tako jendearekin elkartzeko aukera izatea guretzat alternatiba hagitz garrantzitsua da». Ez hori bakarrik. Asanblada «arnasgunea» dela diote, «talde segurua eta indibidualismoak dakarren problematikari irtenbidea ematen diona». Izan ere, «eskualdean *kuadrillismo* aunitz» ikusten dute; «batzuetan badirudi gure adinekoekin ateratzera kondenatuak gaudela. Asanbladak horri erantzuten dio, hein handi batean *kuadrillismo* hori alde batera utziz».

Ez da hutsetik hasitako proiektua, diotenez, «Malerrekako Gazte Asanbladak ereindakoa ere bada». Lotura badute hortaz, baina ez erabatekoa, «Lapaitza asanbladak zerbait berria izan nahi duelako, aitzineko asanbladatik desberdina». Horregatik aldatu dute izena: «Ez dugu MGA 5.0 izan nahi, hil-berpiztu dinamikan ibiliko dena, eskualdean jende berria bildu eta sendo mantenduko den indar berria izan nahi dugu». Badu berte berritasun bat: «asanblada zaharrak ez bezala, Bertizaranako gazteendako ere helduleku izan nahi dugu».

Doneztebe, Zubietan, Sunbilla, NARBarte eta Donamariako bederatzi gaztek hasi dute bidea, baina «ateak irekiak» dituzte: «Gazteria ematu beharra dago, eta asanbladara etortzea alternatiba ona izaten ahal da. Ez dugu talde itxia izan nahi, jende berria nahi dugu, seguru gaudelako denek izanen dutela zer erran. Edozein ongietorria izanen da».




«Betikoa den aisialditik kanpo gazteria mugiarazi» nahi dutela dio Agirrek.

«Gazteak ez bagara gure interesen alde mugitzen ez du inork eginen»

ITZIAR AGIRRE SAGASETA DONAMARIA

«Lagun batek» eman zion Itziar Agirre Sagasetari (Donamaria, 2001) asanbladaren berri, eta proposamena «interesgarria» iruditu zitzaion «hainbat gairi buruz solastatzeko». Hala sartu zen Lapaitza Gazte Asanbladan. Kontatu duenez, hainbat dira kezka sortzen dioten gaiak: «asanbladak goratu zuen infografian agertzen direnak gehienbat: feminismoa, euskara, anti-arrazakeria, LGTBQ+...» eta «horien inguruan Malerrekan dauden aurreiritziak eta iritziak orokorrean kezkarriak» direla dio donamariarrak. Sinetsita dago gazte asanbladak kezka partekatu horiek dituen «jendea elkartzeko eta elkar ezagutzeko» balioko duela, eta bidenabar, «gure artean harremana sortzeko» bitarteko egokia ikusten du. Horrekin batera, egiten dituzten ekintzen bitartez, «bertze jende mota bati bertzelako egoerak» ikusarazi nahi dizkiotela azaldu du, «betikoa den aisialditik kanpo gazteria mugiaraziz». Agirrek garbi du «gazteria ez bagara gure interesengatik borrokatzeko mugitzen, ez duela inork eginen». Horregatik egin du «egiten ditugun ekintzetara animatzeko» deia: «Giro polita sortzen ahal da Malerreka-Bertizaranako bazter hauetan». Gehiago ere adierazi du: «Ez gara inork baino gehiago dakien gazte kuadrilla. Beraz, ez lotsatu eta hurbildu, ez dugu ausirik egiten eta hagitz jatorrak gara».



Gazte asanbladaren onurez mintzatu da doneztebarra.

«Eskualdearen trantsizio prozesuan haziak ereiteko baliagarria da»

NAXARA JAUNSARAS SANTXOTENA DONEZTEBE

«Asanbladan sartzeko gonbidapena» egin die Naxara Jaunsaras Santxotena (Doneztebe, 2000) gazteei, «interesgarria» delako. Bere kasuan, batetik, «gizabanako gisa hazkuntza prozesu propioarako onuragarria iruditu» zitzaiolako sartu zen, «asanbladaren helburuetako bat barne forkumakuntzan oinarritzen baita»; eta bertzetik, «eskualdean lantzeke eta garrantzitsuak diren zenbait auzi» ikusten dituelako. «Indarrean segitzen duten matxismoak, homofobiak, arrazakeriak edota droga-menpekotasunak, hedatutako jokabide indibidualistak eta berekoiak...». Horiek dira bere kezka iturri, eta horien artean, «osasun mentalaren auzia» nabarmendu du: «Arazo psikologikoak edo sufrimendu psikikoa betitik izan diren arren, pandemiaren ondotik gizabanakoen ongizate psikologikoaren iluntasuna aunitz azaleratu da, eta ikusi da, adibidez, nera-beengan anorexia nerbioa kasuak areagotu direla. Gainera, ezin dugu ahaztu heriotza ez naturalaren kausa nagusia suizidioa dela». Hutsune horien aitzinean, gazte asanblada «gizarteko gaien inguruan hausnartzu eta kanpo laguntzaren bidez hezitzaile» izan daitekeela dio. Ez hori bakarrik. «Korpora begira, eskualdeko hainbat gabeziari, hala nola, euskararen egoerari, feminismoari, digitalizazioari... aurre egiteko aukerak eskaintzen ditu, beti ere, apaltasunez. Hau da, eskualdearen trantsizio prozesuan haziak ereiteko balio du».

«Ezin dugu bizitza esperoan pasatu, gazteok gara oraina eta etorkizuna»

MIKELE ETXEKOLONEA DIEZ ZUBIETA

Malerrekan eta Bertizaranan «baztez ere gazteei dagokionez, hutsune handia» sumatzen du Mikele Etxekolonea Diezek (Zubieta, 2000). «Badira urte batzuk Malerrekako Gazte Asanbladak *Ta Malerrekan ze?* dinamika abiatu zuela, eta hori da bailara ongi deskribatzen duen mezua. Ez dago errealtateko gaien inguruko inolako mugimendurik, kultur eskaintza urria da, aisialdi alternatiborako aukerez zer esan, eta beraz, gaztetxerik ere ez». Gai «askok» kezkatzen dute, baina «are kezka haundiagoa sortzen dit ikusten dudak ignorantziak».

Besteak beste, «ekologismoan» jarri du arreta: «mundu hau gure eskuekin pikutara bidaltzen ari gara inpunitate osoz, eta horrekin oso lotua, migrazio politikek kezkatzen naute, ikusten baitut pertsonak ez direla pertsona gisa ikusi eta tratatzen, ez beraien herrialdean, ez bidaian, ez iritsierako herrialdean, ez heriotzean». Hala, «hutsuneak betetzen saiatzeko, gazteak sartzeko, gai politikoak lantzeko, aisialdi alternatiborako eskaintza sortzeko...» egokia ikusten du asanblada eta «aurreiritziak eta hierarkizazioak alde batera utzita» hurbiltzeko gonbita egin du. «Gazteok gara oraina eta etorkizuna. Ezin dugu bizitza esperoan pasatu, gauza ttikiek mugimendu haundiak sortzen ahal dira. Bakoitza jabetu dadila duen potentzialtasunaz, eta buelta eman diezaiola egunerokoari: zer egiten dugun, zer ondorio dituzten gure ekintzek eta nola eraldatu ahal ditugun».



«Gazteriak duen politizatze beldurra» kezkatzen du sunbildarra.

«Gazte asanblada sendoak ekarpen positiboa eginen dio eskualdeari»

HARITZ BEREAU MUTUBERRIA SUNBILLA

«Problematikak indibidualki landu beharrean, iritziak elkarbanatu eta modu kolektiboan lantzeko beharra ikusi dudalako» sartu da Lapaitzan Haritz Bereau Mutuberria (Sunbilla, 2000). Beretako «arnasgunea» da, «hausnartu eta iritziak plazaratzu, gazte kontzientzia indartzeko tresna» eta «hagitz aberasgarria» iruditzen zaio «ezinegoa sortzen diguten gaien inguruan bertze gazteekin mintzatu ahal izatea», eskualdean «ez dagoelako inolako espaziorik ez talde zabalik egungo problematikez lasai mintzatzeko». Berezi «egungo gazteriaren politizatze beldurra» kezkatzen du, «desmobilazioa eta ikuspegi indibidualistak. Kexa destruktiboak egiteko joera zabaldua da, ez dut jarrera eraikitzaileak edo antolatzeo hauturik ikusten». Ez hori bakarrik. «Eskualdean urgentziaz lantzeko gaiak» zein diren ere argitu du: «feminismoa, apustu makinak, drogen kontsumoa...». Horiei buruz «diskurtso okerrak hedatu» direnez, «hausnartzea eta erdigunean jartzea beharrezkoa da. Denok badugu zer ikasi eta zer desikasi». Hala, «asanblada gazte aktibaziorako motore eta gabeziei aurre egiteko tresnatzat» ikusten du: «Gazte asanblada sendo eta indartsuak eskualdeari ekarpen positiboa eginen dio, balio hegemonikoak zalantzan paratuko dituelako». Gazteei «animatzeko eta parte hartzeko» deia egin die: «Denon artean espazio eroso, alternatiboa eta eraikitzailea sor dezagun».



Aurreiritziak utzita asanbladara hurbiltzeko deia egin du zubietarrak.



Gazte asanbladako ateak irekiak daudela dio narbartearrak.

«Inguratzen gaituen gizartearekin ez gaude arras gustura»

EKHINE TXOKARRO EZKURRA NARBARTE

«Aurtengo ikasturte osoa kanpoan» pasatu du Ekhine Txokarro (Narbarte, 1999). Gironan, hain zuzen, eta «mugimendu politiko zein kultural aunitz duen hiria» dela deskribatu du. Ekain hasieran bueltatu zen sorterrira, eta «hutsune aunitz» nabaritu zituen. Baina ez da kontu berria beretako. Dioenez, «beti sentitu izan dut gure inguruak ez diola erantzuten nik sentitzen ditudan hutsune horiei». Bada ekainean, bueltatu zenean, gabezia horiei aurre egiteko aukera sentitu zuen: «Gazte asanblada berria sortu zela enteratu nintzen eta aukera hagitz ona iruditu zitzaidan sumatzen ditudan hutsune horiek bete ahal izateko».

«Ez dira gutti» Txokarrendako kezkatzeo gaiak, eta horien artean, «feminismoa, ekologismoa, gazteen prekaritatea, aisialdi ereduak, euskara, erreferente falta eskualdean...» aipatu ditu. Hain zuzen, horiei erantzuna emateko «asanblada arras bide egokia» dela uste du: «Talde oso polita eta segurua da kezkatzen gaituzten gaien inguruan solastatzeko», eta gisa berean «gai horietaz solastatzeko aukera izatea lorpen bat» dela iruditzen zaio: «Espazio eta gune hori izatea ezinbertzekoa da. Gainera, garrantzitsua da eskualdeko gazteen ahotsa izatea. Ikus dezatela bagarela kuadrilla bat inguratzen gaituen gizartearekin arras gustura ez gaudenak».

Asanbladaren ateak zabalik

Malerrekako eta Bertizaranako gazteei luzatu nahi izan die mezua, «euren burua eta inguruan duten guztia zalantzan jartzeko» deia eginez. «Hortik hasita, ez da lan erraza onartzea zein den egiatan pairatzen dugun errealitatea, zein pribilegio ditugun, zenbat zapalkuntza mota ditugun edota jakitea noiz isildu behar dugun gure ondokoak solas egin dezan». Hala, «gauzen zergatia eta zergati horiek bilatze aldera asanblada hurbiltzera animatu» nahi ditu gazteak, «plazera izanen da ahots eta kezka berriak aditzea, horiei lekua egin eta ahal den neurrian erantzuna emateko». Gaineratu duenez, «ez gara talde itxi bat eta jendeak asanblada zer den jakitea nahi dugu. Ideia berriak beti dira ongietorriak, eta edozein zalantza izanez gero, lasai idatzi asanbladako kideoi».



Urteroko ekitaldia izaten da besta aitzineko herri kirol jaialdia. UTZITAKOA

Ekitaldiz betea heldu da besta aitzineko asteburua

Ortziraletik astelehenera bitartean kirol probak eta kultur emanaldiak izanen dira

A. LARRETXE

Gero eta hurbilago daude Berako bestak, eta nahiz eta bestak ofizialki asteartean hasiko diren, aitzineko asteburuan ere zer egin izanen da herrian. Ortziraletan, uztailearen 29an Hutsun+J.E.L Trio taldearen kontzertua izanen da Toki Onako patioan.

Larunbatean kirola izanen da eguneko protagonista. 14:30ean 4x4 autoen ikuskizuna izanen da Postan. Horren ondotik, 16:00etan hasita, koadrilen arteko 3x3 saskibaloia txapelketa izanen da Toki Onako patioan. Parte hartzeko izen ematea ordu bete lehenago irekiko dute, eta taldeak 3-4 lagunez osatuak egon beharko dute. eta parte hartzeko gutxieneko adina 16 urtekoa da.

Ordu berean, Lizuniagako tiro eremuan plater tiroa izanen da minifoso modalitatean. Berako Ehiza eta Arrantza elkarteak antolatu du, eta herriko tiratzaileek zein kanpotik etorritakoak parte hartzen ahalko dute. Iluntzean, 20:00etan Gure Txokoa Dantza Taldeak ohiko dantza

jaialdia eskainiko du Eztegar pilotalekuan.

Igandean ere kirola nagusi

Igandean ere egun guziz kirola izanen da protagonista. 11:00etan kadeteetan Berako XIX. Saria txirrindularitza proba egingen dute Gure Txokoa Elkartek antolatuta. 44 kilometro egin beharko dituzte zirkuitu bati 10 itzuli eginez. 16:00etan 3x3 modalitatean saskibaloia txapelketa izanen da eliteko mailan. Izen ematea bezperan bezala 15:00etatik aitzinera egin beharko da.

Eguna bukatzeko herri kirol jaialdia egingen dute 19:00etan Eztegar pilotalekuan. Ondorengo probak egin beharko dituzte: lokotx biltzea, zakua eramatea, aizkora, korrika, arpana, txinga eramatea eta ingude altxatzea. Herriko lau kirolarik hartuko dute parte proba konbinatuan, hiruk Arantzako taldearekin, eta laugarrenak Sunbillarekin.

Astelehenean VIII. Gau Krosa jokatu dute 22:00etan. Xehetasun gehiago 33. orrialdean aurki daitezke.

Zalaingo depositutik Foruen Plazara ur sarea berrituko dute

Ur sarearen berritzearekin batera, espaloiak konpondu eta handituko dituzte hala posible den eremuetan

A. LARRETXE

Berako udalak 340.417,41 euroko dirulaguntza lortu du Zalaingo ur depositutik Foruen Plazara ura banatzeko sarea berritzeko. Obraren kostua 425.521,76 eurokoa da, eta berrituko den ur sareak guztira 1.436,84 metroko luzera du. Errepidearen gaineko eragina murrizteko eta etorkizuneko mantentze-lanak sinplifikatzeko, espaloietako zoladura aldatzean espaloian dauden hesi fisiko guztiak kenduko dituzte. Ahal den guztietan, gainera, espaloien eremua handituko dute oinezkoen irisgarritasuna bermatzeko.

Zalaingo biltegitik Foruen Plazarako tartean ura banatzeko sarean atzemandako akats eta ur ihesak konpontzeko sustatu du proiektua udalak, hoditeria guztiz berrituz, bertako bizilagunei eta industriei hornidura egokia eta etengabea bermatu ahal izateko. Esku hartzeak, gainera, Zalaingo depositua sare osoarekin lotzea dakar, haren ustiapena eta erregulazioa hobetuz. Horrela, sareak biltegitratze-bolumen handiagoa eta hornidura-iturri gehiago izanen ditu, eta Zalain auzoko hornidura bermatuko da udan.

Urgentziazko obra bat da, derrigorrez egin beharrekoa,

eta tramite administratiboak uzten duten heinean, ahal denik eta azkarren hasi beharrekoa.

Gaur egun, berritu beharreko ur-hoditeria Zalaingo depositutik Ubelako poligonora bitartekoa da, eta bi puntutan izan ezik, berritzearen trazadura egungoaren puntu berberetatik igaroko da.

Lanen helburua

Lanen bidez ondorengo ga-bezia hauek hobetu nahi dituzte: etengabe gertatzen diren ur ihesak ezabatzea; Ubel, Legarbidea eta Ipar-karrikako etxebizitzaren ur hornidura bermatzea; Ubelako industrien ur hornidura bermatzea eta Berako sarearen biltegitratze-ahalmena handitzea, Zalaingo depositua sare orokorrera konektatuz orain arte gainerakoekiko sareen independente lan egiten baitzuen.

Ur sarea berritzearekin batera, sarearen diametroa handituko da, kontsumo handiko momentuetan uraren abiadura hobetzeko. 15 urtetik goitiko ur kontagailuak eta ur hartuneak berritu eta bide publikotik aterako dituzte. Ahal den neurrian, udal ur sarea lurzoru pribatutik aterako dute, mantentze-kostua nabarmen murriztuz eta haren kontrola erraztuz.

LIDERA
HORTZ KLINIKAK - ESTUDIO DENTAL

Itzurunbiko plaza. 9-10 • 31770 LESAKA (Na)
Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklina.es | [@liderahortzklina](https://www.instagram.com/liderahortzklina)



Irteeran parte hartu zutenetako batzuk mendian. UTZITAKOA

Taillon hildako hiru mendizaleak oroitu dituzte

50 lagun baino gehiagok hartu zuten parte Taillonera egindako irteeran

TTIPI-TTAPA

Bi urtetik behingo ohitura segituz, Mantallek eta Agerra Mendi Taldeak Taillonera irteera egin zuten uztailearen 16an Loro Pikabearen, Xabier Zubietaren eta Xabier Saralegiren omenez.

Goizean goiz atera ziren Beratik, eta bertan bi itzuli desberdin egin zituzten: batzuk Gavarnietik Bujarueloko lepora joan ziren oinez, eta bertzeak aldiz, Col de Tentesetik atera, Bujaruelotik pasa eta Taillon mendia tontorrera igo ziren.

Ondotik Bujaruelon elkartu ziren bi irteeratako parte har-

tzaileak Taillon hildako hiru mendizaleen omenezko monolitoan. Eguna borobiltzeko bazkaria egin zuten.

Bi urtetik behin egiten den irteera izaki, 2024an antolatuko dute Taillonera irteera berriz ere.

Alkaiaga Trail larunbatean

Mantallek eta Alkaiagako besta komisioak antolatuta, pasaden larunbatean, Alkaiaga Trail lasterketaren 11. edizioa egitekoa zuten. Errelebobako lasterketaren aitzinetik, aldiz, haurren lasterketa antolatua zuten.

Ricardo Baroja Eskolan leihoak konpontzeko lanak egingen ditu udalak

A.LARRETXE

Ikasleen udako oporrak aprobetxatuz, uda sasoiko hila-beteak Ricardo Baroja Eskolan hainbat konponketa lan egiteko aprobetxatuko du Berako Udalak, eta azken urteetan bezala, leihoen berritze lanak egingen dituzte dotozen asteetan.

Hainbat berrikuntza egingen dituzte: lehen solairuan, hegoaldeko fatxada aldean dagoen irakaskuntza gelan leihoak aldatuko dituzte. Beheko solairuan, aldiz, ekialde aldera dagoen korridorea

berrituko dute eta beheko solairuko jantokian iparraldera ematen duen atea eta leihoak aldatuko dituzte.

Lan hauen helburua, energia kontsumoan ahalik eta gehien aurrezte da, horrela efizientzia energetikoa irabaziz.

Lanen kostua 31.181,88 eurokoa da, eta %65a Nafarroako Gobernuaren diru laguntza bidez finantzatu da.

Irailan, ikasturtea hastera bukatuak izanen dituzte lan guztiak.



NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Nerea Sorondo Nafarroako txapeldun

Uztailaren 8an Iruñeko sanferminetan jokaturako Nafarroako Aizkora Txapelketan txapela eskuratu zuen Nerea Sorondo herritarrek 18.02.40ko denbora eginda. Uztailaren 14an, aldiz, 3. mailako txapelketako kanporaketa jokatu zuten eta Endika Goiak finalerako sailkatzea lortu zuen.

JOSENEA
ZONE AUTO

GARBIKETA ZENTRO BERRIA
AUTOZERBITZUA
DANTXARINEAN

Merkatuko Makinarik Berrienak

- * 2 garbigailu 8 kilora arte
- * 2 garbigailu 14 kilora arte
- * 4 lehorgailu 14 kilora arte

Ordainketa: **Speed Queen** app-aren bidez egin daiteke

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centrauto@josenea.es
Egunero 7/7 irekita, 08:00 - 20:00
Josenea Zone Auto [Dantxarineko mugan] Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.

BEKO

LOREAK ETA LANGAREAK

Frain Auzoa - LESAKA
T. 948 637 826

Arturo

arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria

Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136



Pandemian egindako lanagatik txupinazoa bota zutenak. AITOR AROTZENA

Betiko giroan joan dira, aurten bai, sanferminak

Hiru urteren ondotik, berriz ere Zubigainekoa dantzatu zuten eta Irrintzi peñak 50. urteurrena umorez ospatu zuen

AITOR AROTZENA

Giro ederrean joan dira aurten sanferminak, bi urtez ofizialki ospatzerik izan gabe egon ondotik. Txupinazoaren arduradun osasun zentroko, Andra Mari Zahar Etxeko eta etxez etxeko zerbitzua eskaintzen duten Gizarte Zerbitzuen mankomunitateko langileak izan ziren. Horien guztien izenean, Beatriz Martinez medikua, Itxasne Otxoteko erizaina, Zeze Pereira eta Pilar Alzugarai zahar etxeko langileak, eta Sonia Salgado eta Maripi Fagoaga etxez etxeko langileak izan ziren balkoian suzuria pizten. Lehen eztandaren ondotik, berehala abiatu ziren musika taldeak beraien ibilbideetan. Haurren danborrada lehen aldiz gidatu zuen Xabi Fagoagak (haurren egunekoan ere izan zen) eta Tantirumairu dantza taldeak emanaldi ederra eskaini zuen.

San Fermin egunean, nola ez, ezpatadantzariak hartu zuten protagonismoa. Bigarren aldiz hiru emakumek dantzatu zuten Zubigainekoa. Arratsaldeko dantzetan, Unai Gurrutxagak aureskua dan-

tzatu zion Ane ahizpari. Aitzinesku izateari utziko dio Gurrutxagak eta kapitainaren lan hori, aurten lehen aldiz ezpata dantzari atera den Beñat Ordokik hartuko du datozen urteetan.

Peñen egunean Irrintzik 50. urteurrena giro ederrean ospatu zuen, garai bateko Sabina gogoratzen zuen asto eta guzti. Latsagak falta direnen aldeko brindisa egin zuen, aurten Zubiria ere gogoan zutela.

Hondarreko bi egunak izan ziren jendetsuenak, hainbat bisitari izan baitziren. Umeen egunean, haurrak gurasoekin atera ziren tanborradan, herriko eta Baztango erraldoiak eta gaiteroak lagun zituztela. Herritarren egunean, azkenik, ez zen zezenik izan, baina herri kirol saio ederra eskaini zuten plazan eta haurrendako entzierroa eta jokoak ere izan ziren Beheko Plazan. Jota eta mariatxi doinuek lagunduta joan zen arratsaldea eta Txakaingo jautsieran dantzatzu eta Gaixoa Nikantatzu bukatu ziren bestak. Guttiago falta da 2023ko sanferminetarako!



Hiru urteren ondotik, berriz ere Zubigainekoa dantzatu zuten.



50. urteurrena ospatu zuen Irrintzi peñak, asto eta guzti.



Bezperako nahiz umeen eguneko danborrada Xabi Fagoagak gidatu zituen.



Txakaingo jautsiera izan zen hondar eguneko ekitaldirik jendetsuena.

Paraninfo Trioren eskutik akordeoi kontzertuak

Uztailaren 25ean ematekoa zuten lehenbizikoa eta abuztuaren 7an emanen dute hurrengoa elizan, meza ondotik

IRUNE ELIZAGOIEN

Uztailaren 25ean, joan den astelehenean, uda Etxalarren pasatzera etorria den Oliver del Val akordeoilariak kontzertua eskaintzekoa zuen Etxalarko elizan, Paraninfo Trio bere taldearekin. Bigarren akordeoi saio bat ere emanen dute. Kontzertu hori abuztuaren 7an izanen da, igandeko meza ondotik, 12:45 aldera.

Taldeko musikariak Oliver Del Val, Julen Murga eta Alejandro Arbues dira eta kontzerturako sarrera doan izanen da.

«Akordeoiak daukan potentziala bistara atera nahi dugu»

Akordeoiak daukan potentzial guztia bistara atera nahi duen hirukotea da Paraninfo Trio, «bai bakarka jotzeko, baita



Akordeoilari hirukotea.

taldeka ere». Hiru musikariak Aragoiko Musika Kontserbatorio Gorenean (CSMA) elkar ezagutu zuten, Ander Telleria irakasle zutela, eta hirukotea osatzea pentsatu zuten. Pentsatu eta egin. Geroztik, hainbat kontzertu eman dituzte akordeoia ezagutzera emateko helburu horrekin eta sariak ere irabaziak dituzte. Tartean, joan den urteko azaroan Ponferradako Aris del Puerto IV. Saria lortu zuten.

Herriko pilotariak ongi Bortzirietako eskuz binakako txapelketan

Uztailaren 16an Bortzirietako binakako txapelketako finalak jokatu zituzten Beran. Etxalartik lau pilotarik hartu dute parte txapelketan eta hiru iritsi dira finalera. Ttikien mailan Xiker Olagarai eta Beñat Ansalasek 18-5 galdu zuten Alain Errandonea eta Jon Tellechearen aurka. Kimuak mailan, Erik Igoa etxalartarra eta Iker Arotzena aranztarra txapelkun izan ziren ekain bukaeran jokatuako finalean. Umeen mailan Romeo de Caceresek ere finala jokatu zuen.



Herriko txapelketan ere hasiak dira.

Herriko txapelketa orain

Orain herriko txapelketa jokatzen ari dira 26 ume eta 12 gaztetxo eta abuztuaren 17an, bestetako egitarauaren barnean jokatuko dituzte finalak.



MARTXEL LARRAZA

Hogeita hamaika haur udalekuean

Uztailaren 4tik 29ra arte, 31 haurrek udalekuek gozatzeko aukera izan dute Etxalarren, Martxel Larraza, Ainara Otxoteko, Nerea Begino eta Aroa Martinekin. Herri kirolak, txangoak, eskulanak, uraren astea... aspertzeko astirik gabe ailegatu zaie udalekuak bukatzeko eguna.



LEIRE OLAGARAI

Sanferminetako pilota jaialdira

Uztailaren 10ean Iruñeko San Fermin torneooko partida ikustera joan ziren Etxalartik 20 bat lagun. Ezkurdiak eta Martijak Jaka eta Albisuren kontra jokatuako partida ikusi eta elkarrekin afalduta, egun pasa polita egin zuten. Ezkurdiarekin argazkia ateratzeko ere aprobeztatu zuten.



Bestetako kartel lehiaketarako lanak aurkez daitezke

Agorrilaren 20an bukatuko da entregatzeko epea eta irabazleak 150 euroko saria izanen du

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Aurten bai. Bi urtez ospatu ezinik egon ondotik, herriko sanmigel bestak ailegatzen ari zaizkigu, herritarrek gogotsu sumatzen dira, eta honekin batera ari da besta batzordea besten antolaketa lanetan, egitarauko ekitaldiak lotzen poliki-poliki. Honen harira, aipatzekoa da bestetako kartel lehiaketa martxan dela dagoeneko.

Lanak aurkezteko zenbait baldintza bete beharko dira. Hasteko, marrazkiekin edo argazkiekin egiteko aukera izanen da, baina hori bai, 27x19 zentimetroko neurria izan beharko du. Kartelean, derri-gorrez *Igantzi*. *Sanmigelak* 2022 esaldia agertu beharko du.

150 euroko saria

Lanak udaletxean aurkezteko epea uztailaren 20tik agorri-laren 20ra zabalik dago. Parte-hartzaileak Igantzin jaioak edo bertan bizi direnak izan beharko dute eta parte-hartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu. 150



Bestak antolatzen hasiak dira.

euroko saria izanen da lehiaketaren irabazlearentzat eta bere lana argitaratuko da.

Informazio osoa herriko whatsapp taldean eta boletinean izanen da.

INFORMAZIO GUZTIA HERRIKO WHATSAPP TALDEAN DAGO

Hogei haur aritu dira igeriketa ikastaroetan

Egin dira aurten ere, urtero egin ohi diren igeri-ikastaroak igerilekuan. Astelehenetik ortziralerara 16:00etatik 17:30era aritu dira gure ttikienak igerian ikasten, adin edota mailaren araberrako taldeetan banatuak. Hogei bat haur aritu dira, hiru taldeetan banatuak.

Ehiztariak auzolanean ari dira sasoia prestatzen

Ehiza sasoia hurbiltzen ari den honetan, ari dira herriko ehiztariak auzolanean gure mendietako bazterrak garbitzen eta txukuntzen. Joan den uztailaren 16an, larunbatean, egin zuten lehenbiziko elkartzea eta urrirora bitarte gehiagore ere egingen dituzte.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Herriko dantzarien emanaldi bikaina

Uztailaren 15ean egin zuten herriko dantzariak (13 urtetik goitikoak) beraien udako ikuskizuna. Arratseko hamarretan izan zen eta ederki gozatu genuen, beti bezala, eskainitako emanaldiarekin. Hurrengo emanaldia sanmigeletan izanen da eta orduan ttikienak ariko dira (15 urtetik beheitikoak).



XAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALBIZKARIAK





Nafarroako Herriz Herri Txapelketa ari den herri kirol taldeko kideak. TTPI-TTAPA

Harrera sareari eta herri kirol taldeari dirulaguntza

Donazioak egiteko zuen diru partida Irungo Harrera Sarearen eta herriko herri kirol taldearen artean banatu du udalak

NEREA ALZURI

Aurrekontuetan 1.000 euroko partida onartu zuen udalak donazioak egiteko, eta diru kopuru hori bi talderen artean erdi bana banatzea erabaki du.

Alde batetik, dirulaguntzaren zati bat Irungo Harrera Sareari ematea erabaki du, «migratzailei laguntzeko egiten duen

lanagatik». Udalak oroitarazi duenez, «2018az geroztik, bertzeak bertze, jatekoa, arropa, garbitasuna eta osasun laguntza ematen die migratzailei». Eta «pertsona guztiek harrera duina izateko eskubidea dutelako» lagunduko die diruz.

Bertzetik, aurtun estreinakoz Nafarroako Herri Herri Txapel-

ketan parte hartuko duen herri kirol taldeak hartuko du dirulaguntza. Gisa honetara, «gizonezkoek eta emakumezkoek eratutako herri kirol talde partarioa» dela saritu nahi izan du, eta hala, «berdintasuna irizpide nagusietako bat» dela. Horrekin batera, «helburu nagusia Arantzan herri kirolak sustatzea» dela kontuan izan du udalak. Horregatik erabaki du «gastuekin laguntzea».

Nafarroako Herriz Herri Txapelketan bi saio egingen ditu herriko taldeak. Uztailaren 25ean Elizondan aritzekoa zen, eta hurrengo uztailaren 31n Beran egingen du, 19:00etan Eztegar pilotalekuan. Finalera sailkatzen bada, abuztuaren 27an jokatu du.



Oinatz Madariaga txapela soinean.

Pilotari gaztetxoak txapelketaz txapelketa

NEREA ALZURI

Txapelketaz txapelketa ibili dira azken boladan herriko pilotariak. Uztailaren 16an, adibidez, Bortzirietako binakako pilota txapelketako finalak jokatu zituzten eta herriko hainbat pilotarik parte hartu duten txapelketa izan da: ttikietan Aiert Baleztena eta Xuban Ugalde aritu ziren; umeetan Ekaitz Madariaga, Oihan Leiza, Aner Mariezkurrena, Amets Madariaga eta Ioritz Iguzkiagirre. Hain zuzen, Ioritz txapeladunorde izan zen finaleko partidaren. Kimuetan, Ander Etxegarai, Iker Arotzena eta Aritz Iparragirrek parte hartu zuten. Ekain akabailan jokaturako finala Ikerrek irabazi zuen Erik Igoarekin, Aritzen eta Urko Telletxearen kontra. Haurren kategorian, Beñat Azpiroz, Oinatz Madariaga eta Kattin Madariagak parte hartu zuten, eta finalean, Kattin txapeladunorde izan zen.

Herriartekoa

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketan ere herriarrak izan ziren. Alde batetik, Bera ordezkatzuz, Ioritz Iguzkiagirre eta Ander Etxegarai aritu ziren. Eta bertzetik, Doneztebe ordezkatzuz, Ekaitz eta Oinatz Madariaga. Gainera, uztailaren 2an Labriten izandako finalean, infantiletan, Oinatzek txapela eskuratu zuen Zuhaitz Barbarinekin bikotea osatuz.



JULEN BALEZTENA

Sormena erabiliz hainbat jarduera

Hilabete osoan udalekuetan gozatzen ari dira haurrak. Lehenbiziko astean eskulanean ibili ziren, eta ondokoetan giro beroa izan zuten, urarekin jostetan. Herri kirolak ere egin zituzten, txingien partez urez betetako ontziak erabiliz; txokor biltzea urez betetako globoekin... Ortzirale hau dute hondarreko eguna.

Bertze urte batez barnetegien sasoia hasi da

Udako hilabeteetan hainbat lagunek euskara ikasi eta praktikatzeko hautatzen dute gure herria. Ikasgelatik kanpo ere ateraldiak egiten dituzte. Lehenbiziko hamabortzaldian egondako taldea dugu argazkian, Amaiurren.





Unai Bertiz orga jokoan lanean. Txapela jantzi zuen. ESTI GASTEARENA



Esti Gastearena Nafarroako txapeldun txinga eramaten. HERRI KIROL FEDERAZIOA

Unai Bertiz eta Esti Gastearena Nafarroako txapeldun

Orga jokoan eta txinga eramaten lortu dituzte txapelak herriko kirolariek Iruñeko sanferminetan

MAIDER PETRIRENA

Iruñeko sanferminetako egitarauaren barrenean, Foruen plazan, egunero hainbat herri kirol saio eta txapelketa jokatzen dituzte. Horien artean aipatuko dugu uztailaren 10ean Nafarroako orga joko txapelketa izan zela. Bertan Unai Bertiz Anzizar herritarrek par-

te hartu zuen eta gainera txapela herrira ekartzea lortu zuen. Guztira 2 itzuli eta erdi eta 5,45 metro egin zituen.

Uztailaren 14an, berriz, Esti Gastearena Villanueva herritarrek Nafarroako emakumezkoen txinga txapelketa parte hartu zuen. Egin beharreko lana ondorengo zen: esku

banatan 25 kiloko txingekin ahalik eta plaza gehien egitea (plaza= 28 m). Guztira 16 plaza eta laurden eta 6,15 metro egin zituen eta erraztasunez lortu zuen Nafarroako txapela.

Herriz Herri Txapelketa

Nafarroako Herri Kirol federazioak antolatuta, 2022ko Nafarroako Herriz Herri txapelketa jokatuko da. Maila nagusian parte hartuko duten taldeen artean Sunbilla egonen da. Ondorengo egunetan parte hartzea egokitu zaie: Uztailaren 31n, igande arratsaldean, Arantza, Arraioz, Goizueta eta Sunbilla izanen dira parte hartuko duten taldeak. Abuztuaren 15ean berriz, Etxalarko

frontoian, 18:00etan berriz ere Sunbilla parte hartuko du, baina oraingo honetan Araxes eta Basaburua izanen ditu aurkari. Lau talde onenak finalera pasatuko dira eta hau abuztuaren 27an, arratsaldean, Añorbeko frontoian izanen da.

Herriko taldean parte hartuko duten herritarrek hauek izanen dira: Koxkorretan: Iñigo Arrieta eta Eneko Herrera. Korrika: Julen Ibarra, Josune Agirre eta Ane Petrirena. Zakuekin: Haritz Bereau eta Asier Antuña. Txingekin: Ander Oskoz. Ingudearekin: Itxaso Arrieta. Arpanean: Unai Bertiz eta Esti Gastearena. Aizkoran: Endika Goia (beratarra). Zorte on ekipo!




UTZITAKOA

Hemezortzi neska-mutiko ludotekan

Ludoteka zerbitzua martxan jarri zen ekainaren 23an. Guztira 18 neska-mutiko parte hartzen ari dira abuztuaren 9a bitarte. Hezitzaile lanetan Helene Rekarte Korta eta Iraitz Aiesa Rekarte dituzte. Egunero 09:00etatik 13:00ak bitarte, lagunen artean pasatzeko tarte ederra dute.

Unai Bertiz aizkoran Iruñeko kantu egunean

Nafarroako orga jokoan txapela jantzi bezperan, aizkoran ere aritu zen Unai Bertiz Iruñean. Uztailaren 9an Baluartean egin zen kantu bazkarian saio polita eskaini zuen. Aipatzekoa da aurren, berriz ere Ramon Latasa saria jokatuko dela abuztuaren 13an. Informazio gehiago kirol orrialdeetan.



MAIDER PETRIRENA



Txapelketan parte hartu duten neska-mutiko gehienak. OLATZ MUTUBERRIA

Narbarteko haurren II. frontenis txapelketako finalak jokatu dituzte

OLATZ MUTUBERRIA

Narbarten bigarren aldiz antolatutako haurren frontenis txapelketako finalak jokatu zituzten uztailaren 16an. Fronteniseko partidaz gozatzeko aukera izatez gain, Saldiasko taloak jateko aukera ere izan zuten Narbarten.

Haurretan, Pablo Agirrek eta Urko Mendiburuk 22-16 irabazi diete Unai Zubigarai eta Mikel Bengotxeari.

Gaztetxoetan, berriz, Ugaitz Salaberri eta Arene Salaberri anai-arrebek ere 22-16 irabazi diete Irati Mitxelenari eta Aimar Opokari.



Haurretako finalistak.



Gaztetxoen mailako finalistak.

Holly Miranda estatubatuarrak kontzertuak emanen ditu Bertizen

TTIPI-TTAPA

Holly Miranda abeslari estatubatuarrak bi kontzertu emanen ditu Bertizko Natur Parkean, abuztuaren 4an eta 25ean, ortzegunetan 17:30ean. Asteotan Bertizen ikusgai dauden *Un bosque* eskulturen musikaren konpositorea da Miranda eta hortaz, eskulturak ikusi bidenabarkoan, bere musikaz gozatzeko aukera ere izanen da. Gainera, egunero, 17:30etik 18:00etara *Luna* negra filma proiektatzen ari dira Bertizen eta abuztuan egunero bisita gidatuak eskainiko



Holly Mirandak Bertizen abestuko du.

dituzte. Kultur programaren 27. edizioaren barrenean, Mikel Belaskoren Lilura-Olerki magikoak erakusketa ikusgai dago Bertizko lorategian abuztu hondarrera bitarte.



Hondakinak transferitzeko plantaren ondoan egingen dute. UTZITAKOA

Konposta egiteko instalazioaren prozedura abian da

Urtean 3.000 tona bio-hondakin tratatzeko gaitasuna izanen luke eta 102.000 eurotan esleitu dute

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako departamentuko kontseilaria buru duela, konposta egiteko bi instalazio berriren proiektuak idazteko lizitazioa egin berri du, Nafarroaren erdialderako bat eta Nafarroaren iparralderako bertzeta. Horrela bada, lizitazioa bi lotetan banatu dute. Zehazki, Doneztebeko proiektua garatzeko 102.000 euro esleitu dituzte eta bertze 158.000 euro Tafallako proiektua garatzeko (proiektuen erredakzioa eta obra-zuzendaritza).

Nafarroa iparraldeko konpostaje instalazioari dagokionez, Donezteben egitea aurreikusi dute, N-121-A errepidearen bazterrean orain dagoen hondakinak transferitzeko plantaren ondoan, hain zuzen. Kasu honetan, Doneztebeko instalazioak urtean 3.000 tona bio-hondakin tratatzeko gaitasuna izanen luke, eta Bortzerrietako, Bertizarana-Malerrekako eta Baztango 21.800 biztanleri emanen lioke zerbitzua.

Konpostaje instalazioen ezaugarriak

Bi instalazioek etxeko bilketatik eta hondakin sortzaile handietatik datozen sukalde eta jatetxeetako hondakin biodegradagarriak tratatu eta balorizatuko dituzte. Behin hondakin horiek tratatuta, deskonposizio biologiko aerobikoaren prozesua kontrolatutako baldintzetan egin ondotik, konposta sortuko dute.

Bi zentro berriak Doneztebeko eta Tafallako hondakinak transferitzeko orain dauden instalazioen ondoan kokatzea aurreikusi dute, eta hartara, instalazio horiek orain dituzten sarbideak, energia elektrikoaren hornidurak, pisatzeko baskulak eta hondakin-uren tratamendua aprobetxatuko dituzte.

BAZTAN-BIDASOKO 21.800 BIZTANLERI EMANEN DIO ZERBITZUA



Mendaur eskolako trikitilari eta panderojoleak. ARKAITZ MINDEGIA



Herri kirol erakustaldian aritu ziren emakumeak. Maika Ariztegi omendu zuten.

Eguraldi bero eta giro bikainarekin joan dira bestak

Herritarrek ez ezik, gerturatu diren guztiek ongi pasatzeko moduko egitarau zabala izan dute

ARKAITZ MINDEGIA

Eguraldi eguzkitsua beroarekin, giro ederrean joan dira Iturengo bestak. Ortzeguneko txupinazotik hasi eta igandeko Andrea Bidarten eta Mikel Markezen kantaldira eta xingar-jatera bitarte izan da non gozatu. Ortzeguneari berean, herriko bertsolari gazteek beraien prestaturiko bertso-sortak ederra kantatu zuten eta ondotik Mendaur triki-pandero eskolako ikasleek kalejira egin zuten. Halere, aitzine-tik gaztetxoek pilota partidak ere jokatu zituzten.

Ortziralean haurren bazkaria, puzgarriak, mus txapelketak eta paella eta xingar-jatea izan zuten. Aipatzekoa da, egiten zuen beroa zela eta, ura zuen puzgarriak estimazio handia izan zuela. Larunbatean antzerkia eta pilota partidak (Iker Arretxe eta Elizalde herritarra aurrez aurre) ikusteko aukera izan zen eta herri bazkaria jendetsua izan zen. Eta igandean, arestian aipatutako Bidart eta Markezen kantaldiaz gain, Maika Ariztegi, Nerea Sorondo, Nerea Arruti eta Laiene Pikabea aizkolarien eta



Puzgarri freskagarrietan gustura.

Aroa Sanchez harri-jasotzailearen erakustaldia izan zen eta Maika Ariztegi omentzeko baliatu zuten hitzordua.

Lehiarako ere lekua izan zen eta frontenis, pilota eta mus txapelketak jokatu zituzten, baita bertzelako desafioak ere. Adin guztietako herritarrek bere lekua izan dute egitarauan eta hortaz, besta parte hartzaileak izan dira eta herritarrek ez ezik, eta gerturatu diren guztiek ere ederki pasatu dute.

**ANDREA BIDART
ETA MIKEL
MARKEZ KANTARI
ARITU ZIREN**



Mus txapelketako finalistak, sari banaketaren ondotik.



Pilota partida ikusgarriak ere izan ziren plazan.



Andrea Bidart eta Mikel Markezen emanaldia, hondar egunerako.

Joaldunak ETB-1eko 'Vikingak' saioan ere agertuko dira

Uztailaren 20an estreinatu du ETBk Vikingak programa berria. Amancay Gaztañaga, Erika Olaizola eta Zuriñe Hidalgo aurkezleak autokarabana hartu eta Euskal herrian barrena ibiliko dira. Geldiadi bat Iturenen egin dute eta, nola ez, joaldunekin izan dira.



'Vikingak' saioko aurkezleak.



NAFARROAKO HERRI KIROL FEDERAZIOA

Maika Ariztegiren hamabigarrena

Nafarroako ingude altxatze txapelketak jokatu zituzten uztailaren 143an Iruñeko sanferminetan, eta emakumezkoetan Maika Ariztegi iturendarrak arazorik gabe irabazi zuen bere hamabigarren txapela. Minutu eta erdi batez 94 altxaldi eman zizkion bederatzi kiloko ingudeari.



JUAN MARI ONDIKOL

Herriko artistak Baztandarren Biltzarrean

Baztandarren Biltzarrean besta handia ospatu zen Elizondon. Aspaldiko urteetan bezala Iturengo joaldunek ireki zuten desfilea eta Mendauro trikipandero eskolako ikasleak Almandoz herriaren gibelatik musika jotzen aritu ziren. Trikidantz taldearekin dantzaldia ere izan zen.



Lanean aritutakoek aurkeztu zuten pelikula plazan. IZASKUN ZUBIALDE

'Negu hurbilak' herrian estreinatu dute uda betean

Uztailaren 9an egin zuten filmaren lehen emanaldia jendez betetako plazan eta gero afaria izan zuten

FERMIN ETXEKOLONEA

Oraindik zinema-aretoetako estreinaldi ofiziala egin baino lehen, uda beteko gau sargorian estreinatu dute herrian *Negu hurbilak* filma, uztailaren 9an. Ez zen alfonbra gorriarik izan, baina bai joaldunek egindako ongi-etorria. Filmean lanean aritutako aktoreak eta beste langileak ere hurbildu ziren, bai Euskal Herrikoak baita Kataluniakoak ere eta jendetza bildu zen plazan. Ordubete atzeratu behar izan zen emanaldia, oraindik nahiko ilun ez zegoelako, baina merezi izan zuen itxaronaldiak,



Afarian ere jendetza bildu zen.

filma ikusgarria baita. Ondotik, afaria ere izan zuten umore ederrean eta batzuk herrian, beste batzuk Lesakan eta besteak Iruñean luzatu zuten gaudiak.

Zubietarrak Baluarteako kantu zaharren egunean

Angel Mariezkurrenak antolatuta, berriz ere kantu zaharren bazkaria egin zuten uztailaren 9an Baluarte, Iruñeko sanferminetan. Herriko joaldunek ez zuten hutsik egin, ezta herritik joandako kuadrilla honek ere. Ederki pasatu omen zuten kantuan.



Kantu zaharren bazkarian. UTZITAKOA

BEINTZA-LABAIEN



Aizkora erakustaldi ederra izanen da larunbat arratsaldean. ARANTXA ITURRALDE



Hondarreko egunean haurrendako jokoak izanen dituzte. ARANTXA ITURRALDE

Herriko bestak ekitaldiz gainezka abuztuaren 5etik 8ra

Hamabi aizkolari lehiari arituko dira larunbateko erakustaldian, tartean Donato Larretxea eta Patxi Etxeberría beterranoak

TTIPI-TTAPA

Bi urtez ezin izan dira ospatu eta, hortaz, gogotsu ekinen diote herriko bestei Beintza-Labaienen. Ohi bezala, egun batean auzo batean eta bihar-munean bestean izaten dira ospakizunak.

Abuztuak 5, ortziralea Beintza

20:00etan altxaferoak bestei hasiera emateko. Ondotik, karrikarronda Iturengo txistulariekin. **21:00etan** zopak Iturrondo elkarte eta ostatuetan. **Arratsalde eta gauez** musika Aimar DJrekin.

Abuztuak 6, larunbata Labaien

Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin. **11:30etan** plater tiroketa. **14:00etan** gazteen bazkaria Labaiengo ostatuan. Goizez eta arratsalde zopak. **19:00etan** aizkora erakustaldia: Gizonezkoak, Bihurri-Zaldia, Joxean Etxeberria-Oier Kañamare eta Basozabal-Julen Gabirondo. Emakumeak, Nerea Sorondo-Xanta Sousa eta Maika Ariztegi-Beatriz Tanco. Beteranoak, Donato Larretxea eta Jose Luis Etxeberria. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia.

Abuztuak 7, igandea Beintza

Goizean karrikarronda Iturengo txistulariekin. **11:30etan** meza nagusia. Ondotik ha-maiketako ostatuan. Egunean zehar puzgarriak. **17:00etan** Funbox Factory Freestyle Show Team taldearen erakustaldia Labaiengo plazan. **21:00etan** tortilla eta postre lehiaketa. Ondotik suak eta dantzaldia Aitor Jaliskorekin.

Abuztuak 8, astelehena Labaien

Goizez karrikarronda Iturengo txistulariekin. **11:00etan** haur jokoak herriko hurrek antolatuak. **14:00etan** kantu zahar eta bertso bazkaria. Anjel Mariezkurrena, Jalisko eta Beñat. Bertsolariak: Anjel Peñagarikano eta Amaia Agirre. **Arratsalde** merienda herriko haur eta gaztetxoendako. **Arratsalde eta gauez** dantzaldia Aitor Jalisko soinu-lariarekin. **00:00etan** Gaixoa Ni, bestei bukaera emanaz.



Igande gauean suak izanen dira.

KANTU ZAHARRAK ETA BERTSO BAZKARIA AZKEN EGUNEAN





Larunbatean egingen dute herri bazkaria. MAIALEN MITXEO



Haurrek izanen dute, aurten ere, ederki pasatzeko aukera. MAIALEN MITXEO

Santo Domingo bestak abuztuaren 4tik 7ra Gaztelun

Bestak akitzeko, aizkora apustua, harri-jasotzaile erakustaldia eta mus eta patata tortilla txapelketak izanen dira igandean

TTIPI-TTAPA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, berriz ere Santo Domingo bestak ospatzeko gogotsu daude Gaztelun eta horixe egingen dute abuztuko lehen asteburuan. Egitarau zabala prestatu dute horretarako, ortzeguneko suzrietatik hasi eta igandeko mus eta patata tortilla txapelketak bitarte.

Abuztuak 4, ortzeguna

11:00etan suziriak. **11:30ean** meza nagusia. Ondotik salda. **17:00etan** partxis lehiaketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Agerralderekin.

Abuztuak 5, ortziralea

Goizez eta arratsaldez, puzgarriak. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Agerralderekin. Ondotik afaria Herriko Ostatuan.

Abuztuak 6, larunbata

09:30ean gosaria. Ondotik, gazteen arteko herri kirol desafioa. **14:00etan** herri bazkaria. **Arratsaldez**, dantzaldia Agerralderekin. **Gauetz**, dantzaldia mariatxiek.

Abuztuak 7, igandea

12:30ean aizkora apustua eta harri-jasotzaileen era-



Aizkora apustuek eta dantzak ez dute hutsik egingen aurten ere. MAIALEN MITXEO

kustaldia. **17:00etan** mus txapelketa. **19:00etan** patata tortilla txapelketa. **20:00etatik 22:00etara** dantzaldia Agerralderekin. Akitzeko, Gaixoa Ni!

GAZTEEN HERRI KIROL DESAFIOA
LARUNBAT GOIZEAN
IZANEN DA

The Trikiteens taldeak igandean joko du Donamariako frontoian

TTIPI-TTAPA

Kultur 2022 programaren barruan, Malerrekako lehen emanaldia uztailaren 31n eskainiko du The Trikiteens taldeak Donamariako frontoian, igandean 19:00etan. Egun horretan, *Lezealde, Lur barruko altxorra* espeleologia

jarduera ere egingen dute Beintza-Labaienen. 10:00etan hasita, hiru orduko ateraldia izanen da. 20 euro ordaindu beharko dute helduek eta 14 euro 8-17 urte artekoek. Izen-ematea info@orbela-beintza.com eta 659 47 73 96 telefonoan egin daiteke.



Trikiti doinuak izanen dituzte igande arratsaldean Donamariako frontoian.

Eraso Matxisten Kontrako Mahaia osatu dute

Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, eraso matxistei aurrei egiteko protokoloa aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Hainbat hilabetetako lanaren ondoren, uztailaren 15ean Tifanitxo eraikinean aurkeztu zuten Goizuetan eraso matxistei erantzuteko protokoloa. Maiatzean hartu zuten gaia esku artean, Amaia Paz berdintasun teknikariak azaldu duenez, «Goizuetan gertatzen diren eraso matxisten aurrean erantzun soziala modu antolatuan emateko irizpideak zehazteko helburuarekin». Geroztik bi saio egin dituzte eta horren emaitza da protokoloa.

Pazen arabera, «erantzun egokia emateko ezinbestekoak diren printzipioak jasotzen ditu» protokoloak, eta horrekin batera Eraso Matxisten Kontrako Mahaia osatu dute. Mahai hori udalak eta herriko hainbat eragilek osatuko dute eta «eraso baten aurrean erantzuna artikulatzea izanen da bere ardura».

Protokoloan erasoaren berri izan denetik mahaiak eman beharreko urratsak zein diren bildu dute eta aldi berean, momentuan emakumeari eman beharreko erantzuna zein den ere zehaztu dute.



FELIX LOIARTE

Karmen bezperako ospakizunak

Bi urteko geldialdiaren ondoren, uztailaren 15ean, Karmen bezperako ohiturak berreskuratuz, herritar asko bildu zen plazan. Eguraldi ederrarekin, kuadrillak edo taldeka afaria egin zuten lehenbizi eta ondoren, su gainean saltoka ibili ziren.



Aurreskua kantatu eta dantzatu zioten uztailaren 15ean Etxeberriari. FELIX LOIARTE

Herritarren omenaldia jaso du Joxe Jabier Etxeberriak

TTIPI-TTAPA

«Eskerrik asko egindako lanagatik, zure prestutasunagatik eta herriari emandako zerbitzuagatik». Uztailaren 15ean halaxe adierazi nahi zion udalak hainbeste urtez herriko medikua izan den eta berriki erretiroa hartu duen Joxe Jabier Etxeberriari.

Omenaldian, Umore Ona abesbatzako kideek aurreskua kantatu eta hiru dantzarik dantzatu zuten. Ondoren abesbatzak beste hiru kanta kantatu zituen, tartean Imanol Kamioeren akordeoi doinuaren laguntzarekin kantatu zituzten Etxeberriari buruzko bertsoak. Segidan, Juan Antonio Lekunak oroigarria eman zion eta azkenik, Maialen Apezetxea eta Alaitz Eskudero zinegotziek hartu zuten hitza. «Azkeneko ia 30 urteetan herrian zerbitzua eman duen Joxe Jabierri me-

rezitako omenaldia» egin nahi izan ziotela nabarmendu zuten, «ederra delako herrian osasun zerbitzua izatea, eta oraindik ederragoa herrikoa bertakoa den medikua bertan izatea». Gogoratu zutenez, «Joxe Jabier 1993an etorri zen Goizuetara Ruandan kooperante bezala lanean aritu ondoren. Hasieran guardiak egiten zituen eta azken urteetan kontsulta pasatzen aritu da. Zenbat katarro, min eta poz ikusiko ote zituen! Eta zenbat *karetx* kendu!». Eskerrak ematez gain, «zortetik hobere» opa nahi izan zioten.

Etxeberriak ere esker oneko hitzak izan zituen herritarrekin eta herrian lan egin eta familia bertan osatu duelako zorteduna sentitzen dela aipatu zuen. Horrekin batera, «Goizueta herri zaintzailea dela eta horrelaxe jarraitzeko» deia egin zuen.

Herri lurren aprobetxamendurako ordenantza

Herri lurren aprobetxamendurako ordenantza berritzeko bi saio egin ditu udalak baserritarrekin. Eta ostegunean, hilaren 28an, 18:30ean, azken saioa egingen du, baserritarren ekarpenetatik sortutako ordenantzaren zirriborroa aurkezteko. Ekarpinak egiten ahalko dira.

Irailaren 16an itzuliko da liburutegi ibiltaria

Uztailaren 14an egin zuen liburutegi ibiltariak ikasturte honetako azken geldialdia. Ez zuen arrakasta haundirik izan, baina Leitzako liburutegian irailean berriz martxan jarriko du. Abuztuko oporraldiaren ondoren, irailaren 16an etorriko da, 14:30etik 15:30era.

«Gasolindegia- ren funtzionamendua normala da»

Herrian zabaldutako zurrumurrue-
ren ondoren, azterketa egin du
Goizukoop-ek eta funtzionamendua ez du arazorik aurkitu

TTIPI-TTAPA

Erregaien kalitatearen inguruan
zabaldutako «zurrumurruei»
erantzunez, «gasolindegia-
ren funtzionamendua normala»
delajakinaz du Goizukoop-ek.
Horretarako, «azterketa on bat»
egin dute eta «deposituetan
urik sartzen den edo ez begira-
tu» eta «gasolioaren lagin bat
hartu eta aztertu» dute. «Filtro
guztiak garbi daudela, erregaiek
ez dutela ur aztararik eta gaso-
lioaren azterketan bakterio eta
onddoei dagokionez negatibo
eman dutela» ikusi dute. «Gure
hornitzaileak beste gasolinde-
giakoak» direla gaineratu dute.

Herriz Herri herri kirol txapelketan izena eman du Goizuetak

Baialtzinikin... aurten Goi-
zuetak lehendabiziko aldiz
Nafarroako Herriz Herriko
herri kirol txapelketan parte
hartuko duela? Aste honetan
egitekoa zuten aurreneko saioa,
uztailaren 25ean Elizondon,
eta bigarrena uztailaren 31n
Beran egiten dute, 19:00etan

Eztegara frontoian. Arantza,
Arraioz eta Sunbillako taldeak
izanen dituzte kontrario. Guz-
tira zazpi taldek eman dute
izena eta bi kanporaketak
gaindituta, finalera sailkatzen
diren lau taldek jokatu dute
finala, abuztuaren 27an Añor-
beko frontoian.

Umeen Egune- ko bazkarirako txartelak

Abuztuaren 7an, Umeen Egu-
nean, bazkaria antolatu du
guraso elkarteak. 14:00etan
ikastolako tabernan izanen
da, eta txartelak kafetegian eta
estankotan sei eurotan eros-
daitezke. Ostiral hau, uztaila-
ren 29a, izanen da erosteko
azken eguna.

Udako lanetarako langilea hartuko du udalak

Udalak jakinarazi duenez,
abuztuaren 20 bat egunez uda-
ko lanetan aritzeko langile
bat kontratatuko du. Uztai-
laren 22an bukatu zen izena
emateko epea eta aukeratu-
takoa abuztuaren 3an hasiko
da lanean. Hilaren 23ra arte
ariko da.

Hainbat aldaketa bilduko ditu festetako programak

Herri bazkarirako txartelak Sastinean erosi beharko dira
abuztuaren 7a baino lehen

ENERITZ IRAOLA

Ohiko datetan baina eraberritu-
ta datoz aurtengo festak.

Abuztuaren 14an hasiko dira
festak eta 2019an hasitako ohi-
tura berreskuratuta, herritarrek
omentzeko baliatuko dute txu-
pinazoa. Aurten, Leire Baraibar
eta Adur Etxezarreta izango dira
omenduak. Kirol arloan egin-
dako ibilbideagatik eta azken
urteetan lortu dituzten emaitza
borobilengatik jasoko dute ai-
tortza. Festetako lehenbiziko
eguna indartzeko guraso elkar-
teak antolatutako afaria ere
egun horretan izango da.

Abuztuaren 15ean ohiko eki-
taldiekin batera, Ados enpresak
antolatutako plazaz plaza txapel-
ketako norgehiagokak izan-
go dira. Abuztuaren 16an, umeak
izango dira protagonistak eta
estreinako Holi fest edo kolo-
refesta egingo dute arratsaldean.

Abuztuaren 17an, herri baz-
karian bilduko dira. Aurten,
Sarayola cateringa kontratatu
dute eta bazkarirako txartelak
Sastinean erosi beharko dira
abuztuaren 7a baino lehen.
Helduek 25 euro eta haurrek 11
euro ordaindu beharko dituzte.

Helduek urdaiazpikoa eta espa-
rargoak, otarrainxkak baratxu-
ritan, piper beteak, bakailaoa
piperradarekin, karrillerak eta
postrea izango dute; haurrek
kroketaketa nuggetsak, xolomoa
patatekin eta postrea. Bazka-
londoa girotzeko Uxue Alberdi
eta Iker Zubeldia ariko dira
bertsotan. Arratsaldean, pilota
partida berezia izango da: Ben-
goetxea VI.a eta Olano, Olaza-
bal eta Lazkozen aurka.

Festei bukaera borobila ema-
teko, kuadrillen eguna izango
dute abuztuaren 18an. Urtero-
ko paella-janari buelta eman
eta saltsa sortuko duen berri-
kuntza proposatu dute: Kuadri-
llen arteko I. Paella Txapelketa.

Ez da izango txapelketa ba-
karra, II. Balkoi eta Etxe-atari
txapelketa ere antolatu dutela-
ko. Ea nor den gai Palaziokoei
ongi irabazitako titulua kentze-
ko. Parte hartu nahi dutenek
udaletxean eman behar dute
izena. Hernandorena burdin-
degian erabiltzeko 70 euroko,
50 euroko eta 30 euroko eros-
keta-txartelak izango dira sariak.

Egitarau guztia hurrengo al-
dizkarian izango duzue ikusgai.

Liburutegi ibiltariaren bisita uztailaren 13an

Udako irakurgaiak hartzeko
aukera izan zuten uztailaren
13an udaletxean. Elena
liburuzaina etorri zen maleta
bete liburu zuela eta asko
izan ziren bertaratu zirenak.
Irailean hartuko du berriz ere
martxa liburutegi ibiltariak.





948 031 174
info@anelan.pro

Egiten ditugun lanak:
Fatxaden konponketak,
segurtasun-sistemen
instalazioak, telebista eta
azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.





Iñaki Perurenak bota zuen 2019ko pestetako txupinazoa. PABLO FEO

Pesta batzordeak botako du pestetako txupinazoa

97.000 euroko aurrekontua izanen dute aurtengo pestek, aurrekoetan baino haundiagoa

TTIPI-TTAPA

Aurten bai, aurten betiko pestak izanen dituzte herritarrek. Pesta batzordeak prest du egitaraua, aldizkari honetako gehigarrian ikus daitekeen bezala, ekitaldiz ongi hornitua, eta hain zuzen, pesta batzordea izanen da aurtengo txupinazoa botako duena.

Pesta batzordeak txupinazoa nork bota erabakitzeko sei proposamen bildu zituen, eta batzordeko kideek aurreneko bozketa egin zutenean, biki egin zuten aurrera: pesta batzordeak eta EH Mendi Erronkak. Horien artean aukeratu dute herritarrek. Uztailaren 15etik 17ra zabaldu

zuten herritarrek botoa emateko aukera eta Julian Zabaleta kultur zinegotziak TTIPI-TTAPAri azaldu duenez, «paperean eta Internetez 300 bototik gora» jaso zituzten. Bi proposamenak «nahiko pareko» gelditu zirela kontatu du, baina azkenean, hainbat eragileren bilgune den pesta batzordeak izanen du santiburtzioei hasiera emanen dien suziria botatzeko ohorea.

Amazabal institutuko guraso elkarteko, Denok bat guraso elkarteko, Alke kultur taldeko, Aurrera Kirol Elkarteko eta Txozna batzordeko ordezkariak eta udaleko kultur zinegotziak osa-

tzen dute pesta batzordea. Otsailean hasi ziren aurtengo pestak antolatzen: «Bilera deitu eta proposamenak biltzen eta aurrekontuak eskatzen hasi ginen. Lehentasuna gaueko musika taldeek izaten dute, horiek izaten dutelako presarik haundiena. Gero umeentzako etagainerako ikuskizunak lotzen ditugu», dio Zabaletak. Geroztik hamabostero bildu dira.

Aurrekontuaren harira ere mintzatu da kultur zinegotzia. «Pestetako aurrekontua 77.000 eurokoa izaten da, eta hor reparto eguneko, umeen eguneko eta abuztuaren 10etik 15era bitarteko ekitaldien gastuak sartzen dira. Bainakontratazioak garestitu dira eta 20.000 euro gehiago bideratu behar izan ditugu». Hala, aurtengo Leitza-ko pestek 97.000 euroko aurrekontua izanen dute».

Plazaola aldizkaria

Amaia Iparragirre Baleztenaren *Oin puntetan arin* lanak ilustratuko du aurtengo Plazaola aldizkariaren azala. Uztailaren 15ean egin zuten bozketa eta 16 urtetik gorakoetan aurkeztutako lau lanen artean, berea izan zen boto gehien bildu zituena. 176 botoetatik 78 puntu lortu zituen. 16 urtetik beherakoetan, berriz, beste lau parte hartzaile izan ziren eta 154 botoetatik 55 lortuta, irabazlea Liher Fernandez Zubeldiaren *Buruahundiak prest!* lana izan zen. Plazaolaren 1.200 aldizkari banatuko dituzte reparto egunean.

Abuztuaren umeentzako bi tailer liburutegian

TTIPI-TTAPA

Pestekin batera, abuztuaren 11n itxiko ditu liburutegiak areak, baina hori baino lehen, umeentzako bi tailer antolatu ditu liburuzainak. Lehenbizikoa abuztuaren 3an izanen da, 11:00etan. *Begirada ezberdin baten bila* izenburupean, jolasen eta dinamiken bitartez eta hainbat lagunen esperientziak ezagutuz, gizarte bazterketari lotutako kontzeptuak aztertuko dituzte. Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako liburutegi publikoek gizarte justuagoa eta berdinago eraikitzeko helburuarekin sortu duten Bakea eta Bizikidetzak Lantzen duten Liburutegiak programaren barruan egingen dute eta hamai-ka urtetik gorakoentzako da.

Beste saioa abuztuaren 9an egingen dute, 11:00etan. Zortzi urtetik gorakoentzako da eta kasu honetan, birziklapen tailerra eta hondakinen ginkana egingen dituzte. NILSAko Ingarumen Hezkuntza Programak bultzatu du.

Irailean buelta

Abuztuko oporren ondoren, irailaren 1ean zabalduko dute berriz liburutegia eta irailaren 15etik aurrera, egun hori barne, 14:00 etatik 20:00etara irekiko dute.

Aurreneko aldiz udako futbol campusa antolatu du Aurrerak

TTIPI-TTAPA

Kirola eta pesta bateratuz, Uda-ko I. Futbol Campusa antolatu du Aurrera Kirol Elkarteak. Lau eta hamalau urte bitarteko neska-mutilei zuzendutakoa da eta abuztuaren 1etik 5era egingen dute, 09:00etatik 14:00etara. Eguraldiak lagun-

tzen badu Arkiskil futbol zelaian bilduko dira. Izen emateko epea asteazkenean, uztailaren 27an, bukatzekoa zen. Bost egunen prezioa 100 eurokoa da eta egun solte bakoitzeko 25 euro ordaindu beharko dira. Horren barne, gosaria, asegu-rua eta oparia sartuak daude.



Eguberrietan eta Aste Santuaren bueltan ere futbol campusa egin zuten. D. DELGADO

Berako bestak 2022

egitaraua



Abuztuak 1, astelehena

22:00etan VIII. Berako Gau Krosa. Luzera: 7,3 km. Desnibela: 300 m positiboak. Izen-ematea: www.mantale.com 10 euro aitzinetik eta 12 euro egunean bertan.

Abuztuak 2, asteartea

11:30ean ahantzien orolimez lore eskaintza Herriko Etxeko plazako oroigarrian.

12:00etan 2022ko San Esteban besten hasiera adierazteko Herriko Etxetik altxatzen

botako da, eta ezkil jotzea izanen da. Aldi berean, tikiendako goxokiak eskainiko dira. **Ondotik** erraldoiak eta buruhandiak karrikaz karrika ibiliko dira Incansables txaranga eta Ezpelur gaiteroek lagunduta. **17:00etan** Ezpelur gaiteroek San Jose zahar etxean joko dute. **19:00etan** Berako txistularien kalejira illeketatik Herriko Etxeko plazara. **19:00etan** txosnen irekiera Toki Onako patioan. **19:30ean** batukada Batuklang taldearekin. **21:00etan** dantza herrikoiak Altxateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **23:00etan** Toki Onako patioan, Janus Lester eta Joseba B. Lenoir. **Egun osoan** Incansables txaranga ariko da karrikaz karrika.



Ainhua Altzuguren Mitxelena

ongi pasa bestak!

Abokatutza orokorrean - Herentziak
Alokalruak - Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut. *Deitu hitzordua hartzeko*
Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89
ainhoaaltzuguren@gmail.com

ARANEN

ongi pasa bestak!

Blazar - Blazorra

Kantzenberri, 5
31780 Bera (Nafarroa)

Tel. 948 625 285
aranenbera@gmail.com

Osatzuz

Psikologia-Psikoterapia
Garbiñe Goia Irazoki

HAURRAK / NERABEAK / HELDUAK

Tel.: 619 343 755
g.g.irazoki@gmail.com



ONGI PASA BESTAK!

ITURRIONDO
ZURGINDEGIA
ZURGIN LANAK OROKORREAN

T./F. 948 631 430 • M. 607 890 923
Zalain ind. 7 • BERA



MAITE
PELUQUERIA MIXTA

Ongi pasa bestak!

679 493 099
948 630 483

Iturlandeta, 4-Bheia
31780 Bera - Nafarroa



Denda: 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Cano Baroja, 6 - BERA
jaurrenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Egutzi-panelen instalazioa
eta dirulaguntzen gestioa

Ongi pasa bestak!



MARKA GUZTIEN KONPONKETA

MEKANIKA • ELEKTRIZITATEA • TXAPA • PINTURA

Tel.: 948 62 55 55 • Fax: 948 62 55 05

e-mail: zoansa@zoansa.com

Banarri, 2 • Alkalaga ind. • 31789 LESAKA (Nafarroa)

BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!



IDOIA
BEAUTÉ



perfumeriasidoia.com



Abuztuak 3, asteazkena

09:30ean herriko txistulariek argisoinua joko dute; Ezpelur gaiteroek herrian barna joko dute. **10:30ean** Meza Nagusia Esteban Donearen ohoretan Berako Abesbatzak lagunduta (San Esteban elizan). **Meza ondotik** Gure Txokoa Dantza Taldeko kideek Berako makil dantzak eta bordondantza dantzatuko dituzte txistularien laguntzaz. **On-dotik** Saioa Alkaiza eta Igor Elortza bertsulariek kantatuko dute. **12:00etan** Incansables txarangak San Jose zahar etxean joko du. **13:00etan** Ezpelur gaiteroak Ibardinen ibiliko dira. **18:00etan** Gure Txokoa Dantza Taldeak Berako Aurrekua dantzatuko du Herriko Etxeko plazan txistularien laguntzaz. **Gero** Berako Bandaren kontzertua Herriko Etxeko plazan. **21:00etan** dantza herrikoiak Altxateko karrikan Ezpelur gaiteroen laguntzarekin. **00:00 kontzertua** Toki Onako patioan: Tirry & Tery DJa. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ibiliko da.

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

Pintura orokorrean
Barrualdeak eta fatxadak

T. 666 235 466

Ansonea ostatu
jatetxea

Ongi pasa bestak!



T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 - BERA

SMAZIZIOR
edariak

T.F. 948 631 557

Helbidea: Ziboli, 3 ALKAIZA

eposta: maziziorsenper@gmail.com

EDARIEN
eta
JANARIEN
SALMENTA
eta
BANAKETA

HORTZ-
Klinika

Iker Ribiso Pitologirre

Iturlandeta, 3 behe ezkerre - BERA - T. 948 631 631

Lu's
Ibarra

Zurekin
DISEINUAK

Ongi pasa
bestak!

SUKALDEAK, LURRAK,
ARMAIRUAK, ATEAK,
TEILATUAK, EGUR
LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO
BEHAR DUZUNA
GURE DENDA BERRIAN!

Kanttonberri, 3 BERA | Tef: 722 52 14 71



artatu
ONGI PASA BESTAKI

Oihana Elzaurdia Ariztia
Julen Errandonea Martin

- Fisioterapia.
- Erreadaptazioa.
- Prestaketa fisikoa.
- Coaching.

San Esteban 21 behea | BERA
633 78 83 23 | artatubera@gmail.com



Ileapaindegia
Raquel Estilo

Ongi pasa
bestaki

☎ 635 507 604

📍 45 Legia karrika - BERA

ilaia
ileapaindegia
T948 63 14 27

ONGI
PASA
BESTAKI

ongi pasa bestaki



ERANDONEA, S.L.

Bidasoa, 76 - atea 21-22 • BERA

BILTEGIA:
948 630 102
SAKELAKOA:
633 480 563

Abuztuak 4, ortzeguna

09:00etan musika eskolako trikitariak eta panderojoleak Dornakun ibiliko dira, eta Ezpelur Gaiteroak Zalain auzoan. 10:00etan plater tiroa ehiza ibilaldia modalitatean. Bakarrik herrikoentzat. Antolatzailea: Berako Ehiza eta Arrantza Elkarte. 11:00-13:30 eta 16:00-18:00 L'atelier Merkatu plazan (eguraldi txarra edo sobera bero eginez gero, Altzateko pilotalekuan). 11:15ean Incansables Txaranga San Jose zahar etxean joko du. 12:30ean Herri danborrada Herriko etxeko plazatik Altzateko plazara. 13:00etan Kukaña Illeketan. 14:00etan bazkari feminista Toki Onako estalpean. Antolatzailea: Goldatz Berako Emakume Talde Feminista. 18:00etan Pilotari profesionalen arteko partidak Eztegarra pilotalekuan. Aspeko punta puntako pilotariak. Sarrera: 30 euro. 18:00etan kontzertua Toki Onako estalpean Trikidantz taldearekin. 21:00etan dantza herrikoia Ezpelur gaiteroekin Altzateko karrikan. 23:00etan kontzertua Toki Onako patioan: Trikidantz. Egun osoan Incansables txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



ONGI PASA
HERRIKO BESTAKI

errandonea
EDARIAK

Ziobi 11, Alkaiaga Industrialdea.
31789 BERA Tel. 948 630 982

ONGI PASA BESTAK

elika
Dietetika eta elikadura

IXIAR ANDUEZA LANZ
Dietista-Nutrizionista
Kolegiatu zenbakia NA221

Itzea, 6 behea 31780 BERA
☎ 645 70 85 12
✉ ixiarandueza@gmail.com



IREKI
LEIHOAK

Aluminio R.P.T / PVC | Pertsianak | Toldoak
Itxidurak | Kontraleihoak | Barandak | Berandak

ONGI PASA BESTAKI

T. 948 630962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com • www.irekileihoak.com



ERREKALDE
OSTATUA

ONGI
PASA
BESTAKI

T. 948 630 259
Eztegarra 23 BERA



Abuztuak 5, ortziralea

09:00etan diana Irats taldeko trikitilariak eta panderojoleak Suspelan ariko dira, eta Ezpelur gaiteroak Kaule auzoan. **12:30ean** erraldoiak eta buruhandiak Ezpelur gaiteroen laguntzarekin ibiliko dira Agerran. **13:00etan** Kukaña illekuetan. **14:00etan** kantu bazkaria Altxateko pilotalekuan. Sarrera: helduak 24 euro eta haurrak 21 euro. Uztailaren 31 arte salgai. Antolatzailea: Labiaga Ikastola. **17:30ean** Kukaña illekuetan. **18:30ean** migatuak Herriko Etxeko plazan. **20:00etan** Etxera! Elkartasun ekitaldia. Mukixutik Toki Onako estalpera. Ibilbidea: Mukixu, Altxate karrika, Uraldea karrika, Julio Caro Baroja pasealekua, Toki Onako estalpea. **21:00etan** dantza herrikoia Ezpelur gaiteroekin Altxateko karrikan. **00:00etan** kontzertua Toki Onako patioan Kaleko Urdangak taldearekin. **Egun osoan** Incansables txaranga karrikaz karrika ibiliko da.



LABE ZAR

Astehenetik ortziralea:
07:15etik aitzinera
Larunbata eta igandea:
08:00etatik aitzinera

Ongi pasa bestak!

948 631 076
BERA

Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, arnarma-barize eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa
- Ekointerbertzionismoa
- Zinetako ultzerak, gaitasun Unfatiakoak

Ongi pasa bestak!

Telefona: 610 549 507

Centro Médico Bera
San Esteban 17. Bera

Xirgil
Ongi pasa bestak!
ZELAPAZNDEGIA - PELUQUERIA
948 63 14 62
Mocketak, ile tratamenduak, tintak eta produktu begarriak, azken tendentziak...

MEKANIZATUAK
Ubela
ongi pasa bestak!
Zalain Ind., 9 - BERA
T./F. 948 63 11 67

Pizzio
tabako-denda 2. zbk
ongi pasa bestak!
Altxate, 26 - Tel. 948 630 788 - 31780 Bera

ZELAIETA
tabako-denda
egunkariak, aldizkariak...
Iturlandeta - BERA - 948 631 246
ONGI PASA BESTAK

MARITX
- INGENIARITZA ELEKTRIKOA - BOLETIN INDUSTRIA
- PROIEKTU ELEKTRIKOAK - INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Ongi pasa bestak!
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

Toki Ona
Berako Udak Kiroldegia



Kirol bulegoa: 948 630 215 - info@sastrakokirola.eus

Goxune
ONGI PASA BESTAK!
Kafetegia  **Okindegia**
Sara kalea, 7 - BERA
Tel. 948 630 235
Udako ordutegia (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Asteartetik igandera **Astelehena**
07:30-13:30 **07:30-13:30**
17:00-21:00 *Astehenera arratsaldean itxita*

Martiko

1986TIK ZURE MAHAIAN

**BOUTIQUE
MARTIKO**

ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
08:00ETATIK
17:00ETARA

*GORA
BERAKO
BESTAK*



WWW.MARTIKO.COM



Abuztuak 6, larunbata

09:00etan Bera kantari eta Ezpelur gaiteroak Garaitarreta eta Suspelitiki auzoetan ibiliko dira. **10:00etan** herriko pilotarien partidak Eztegarra pilotalekuan, Benjaminak, alebinak, infantilak eta helduak. Antolatzailea: Gure Txokoa elkarte **12:00etan** erraldoiak eta buruhandiak, Altxatetik Herriko Etxeko plazara Ezpelur gaiteroak lagunduta. Bertan, agurra egingen zale erraldolei eta buruhandiei. **12:30ean** mutxikoak dantza saioa Merkatu plazan. Zatoz dantzatzera! (eguraldi txarra eginez gero, Toki Onako patioan). **14:30ean** herri bazkaria Toki Onako estalpean. Prezioa: 20 euro. Txartelak salgai uztailaren 28ra arte Errekalde eta Katakun. **17:00etan** Ezpelur gaiteroak San Jose zahar etxean joko dute. **17:30ean** Kukaña, Illekuetan. **18:30ean** migatuak Herriko etxeko plazan. **21:00etan** dantza herrikoiak Ezpelur gaiteroekin Altxateko karrikan. Ondotik Zezensuzkoa aterako da Altxateko karrikan **23:00etan** kontzertuak Toki Onako patioan: Noa & The hell drinkers eta Willis Drummond. **Egun osoan** Incansables karrikaz karrika ibiliko da.



JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK 699 12 28 15



Etxebizitza berriak
Zaharberritzeak
Erreformak
Konponketak
Telatuak
Harri eta hormigoi lanak
Mota guztietako
igeltzeritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)**

Ongi pasa bestak!

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zelai Ind. 42 | BERA
948 63 14 52 - 639 60 80 34 - 639 56 59 65

GORA SAN ESTEBAN!
borzrudi
IMPRESA - HOPISTEGIA

948 631 521
material guztietan inprimatzen dugu
hamasetak / oparitzeko artikulua

**ONGI PASA
BESTAK!**

IRUKIDE

Eguzki panelak ◀ ▶ Iturgintza
Industria mantenimendua ◀ ▶
Aire egokitua ◀ ▶

T./F. 948 625 395
Alkaiaga Ind. • Alasta, 4-6 Behea • 31770 LESAKA

semper **autoeskola**

ESKaintza BEREZIAKI!
Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!

- INFORMATU ZAITEZ -

Eztegarra pasealekua, 26 Plaza Berria, 7
BERA LESAKA
T. 948 630 298 T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com
ongi pasa bestak!



Ongi pasa bestak txurripuki! Aupa hi!

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA
GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK
bizikleta estatikoak, lasterketako zintak...

2. eskuko bizikletak

Kanttonberri, 1 | BERA | T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com | www.kateabike.com



«Denbora luzez entseatzen ibili ondotik gogoz bizitzen ditut dantza jaialdia eta San Esteban eguneko dantzak»

Saioa Zelaieta
Argazkilaria



«Geldirik egoten ez dakien neska bat: etengabe abentura berrietan murgiltzen eta bizitzaz gozatzen ari dena», horrela deskribatu du Saioa Zelaieta beratarrak bere burua. Ikus entzunezko komunikazioko ikasketak bukatu berri ditu eta argazkilaritzan murgilduta dabil. Ohikoa izaten da kamera eskuan duela ikustea, batean eta bertzean ibiltzen baita argazkiak egiten. Abuztu hasieran ordea, Berako bestak hastearekin batera, egun batzuez bada ere, kamera alde batera utziko du bestaz gozatzeko.

Zelaietak kontatu duenez, txikitatik datorrion kamera alitzinean zein gibelean ibiltzeko zaletasuna. Txikia zeneko irudi andana gordeak ditu kazetari itxura egiten, edo antzerkia egiten ari dela. Lehen kamera, aldiz, lehen jaunartzean oparitu ziotela kontatu du, eta geroztik «bidela-

gun» izan duela. Hori horrela, eta batzuei ikasketak aukeratzea kostatzen zaien arren, berak hasieratik argi izan zuen ikasketak egiterakoan ikus-entzunezkoen alorra zela landu nahi zuena, eta Bilbora jo zuen ikastera. Bertan eman ditu pasa den lau urteak.

Ibiliz egiten da bidea, eta horrela murgildu zen Zelaieta argazkilaritza profesionalaren munduan. «Hasieran asteburu bakarreko plana izan zen. 2017. urtean lagun bat lasterketa batean nola aritzen zen ikustera joan nintzen, eta kamera eraman nuen berari zein bere taldeko kideei argazkiak ateratzeko», azaldu du. Hasieran egun bakarreko kontua zena ohitura bihurtu zitzaion konturatzerako, eta asteburuko lasterketak ikustera joan zen. Sare sozialetan ere kontua ireki zuen, dena «afizio hutsez».

ZU lorendenda dekorazioa osagarriak

BESTA ON BATZUK OPA DIZKIZUEGU

Altzate, 33 · BERA · T. 948 625 786
zulorendenda@hotmail.com

JATONE-GOZOTEGIA

Besta gozo eta zoriontsuak opa dizkizuegu

Etxean egindako produktuak

948 630 786 · Altzate, 21 · BERA

Gestel

K SAT

ONGI PASA BESTAK!

TELEKOMUNIKAZIOAK

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA
T. 637 40 86 40 · 31780 BERA
andonimatxako@gmail.com

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satelite bidezko internet
- Internet konexio simetriko ultrabastera
- Zuntz-optikoa

erran.
eius

caveo

ongi pasa bestak!

Bidasoa, 78 · BERA
Tel.: (+34) 948 62 50 20
Fax: (+34) 948 63 10 01
www.caveoautomotive.com

Afizioa ofizio bihurtuz

Hasieran afizioa zena, ofizio bihurtuz joan da argazkilariarentzat. Duela urte eta erdi «esfortzu eta lan guztiaren saria jasotzen» hasi nintzen», kontatu du, orduan jaso baitzuen lehengoz dela lasterketa batetik argazkilari ofizial modura aritzeko. Irati Trail izan zen lehen lasterketa hori eta hori egin ondotik, «lasterketa pila batean» aritu da lanean, eta kirolaz aparte bertzetako proiektuak ere egiten ari da egun. Tartean, datozen hilabeteetan zabalduko duen alzheimer gaixotasuna lantzen duen argazki-proiektu pertsonal bat egiten ari dela azaldu du.

Orain arte egindako bidearekin pozik da: «Amets batean murgilduta nagoenaren sentsazioa dut etengabe bi afizio bateratzeko aukera eman baitit lanak, kirola eta argazkilaritza», kontatu digu. Eta hasieran afizio zena pixkanaka ofizio bihurtu bada ere «pasio eta gogo berdinarekin» lan egiten duela dio, «beti disfrutatuz».

Jendez betetako plaza

«Momentua ehuneko ehun bizitzeko gogo», bestetan kamera apartxeago izango duela kontatu digu Zelaietak nahiz eta argi dioten horrek ez duela erran nahi momenturen batean kamerarekin ikusiko ez dugunik «urte berezia» dela uste baitu kamerarekin uneak gordetzeko: «Dantzaria izanik, plaza inguruak berriro ere jendez beteta daudela aterako nuke argazkiren bat», kontatu du. Dantza Taldeko kide gisa, gainera, une horiek bereziak izaten direla azaldu du: «Denbora luzez entseatzen ibili ondotik, gogoz bizitzen ditut jaialdia eta San Esteban eguneko

dantzak», kontatu du. Aurten, abuztuaren 3an «dantzarien egun handia» aterako da plazara, Bordondantza eta Makil Dantzak dantzatzera. Arratsaldean, beharbada, kamera eskuan ikusiko dugu.

Egun horretan zein aitzinekoetan dantza egiteko, ordea, bezperako egunak aski lanpetuak izaten dituzte Gure Txokoak Dantza Taldeko kideek, eta baita Zelaietak berak ere: «Batzuetan ematen ez badu ere, itzalpean lan handia egiten dugu. Entseguak, bilerak, nekatuta bukatzen dugu», kontatu du. Hala ere argi dio, esfortzu guzti horrek baduela bere saria plazara atera orduko.

Dantza bai, baina bertzetako gauza aunitz izaten dira bestetan, eta aurtengoak «berreziki potenteak» direla iruditzen zaizkiola kontatu du Zelaietak. Abuztuaren 2an lehertuko da besta Beran, eta hain zuzen hori da Zelaietarentzat egunik bereziarena «lagun arteko gosari batekin hasi, txupinazora joan, familiarekin bazkari goxo bat egin eta arratsaldean kontzertu edo ekitaldiren bat ikusi, eta gauean nola ez, bestak jarrai dezala!», kontatu du. Hala ere argi uste du edozein egun izan daitekeela «perfektua». Txupinazoarekin batera, ez du huts egiten dantza emaldiak eta ezta batukadara ere. Hain zuzen horixe du bestetako ekintzarik gustukoenetako bat, eta batez ere bertan sortzen den «giro ederra».

Abuztuaren 6an Berako bestak bukatuta, eta bestondoa pasata, herriz herri segituko du ahal den besta guztietara joaten «aurten aunitz dagoelako ospatzeko». Beraz, ez da harritzekoa izan inguruko bestaren batean ere aurkitzea.



Argazkia: Nahia Fagoaga

Gure ideia «bizi» bihurtuko dugu



ONGI PASA BESTAKI

Kalash
Bizi-denda | Erloju-denda

Banatzailerik ofiziala:



CASIO



Kantimberri, 6 BERA | 948 630 751
Merkatarien Karrika, 7 DONEZTEBE | 948 451 519



ITURGINTZA · GASA · BEROGAILUAK
AIRE GIROTUA
KOMUNEKO & SUKALDEKO OSAGARRIAK
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa

629 449 602

E D A R I A K



Ongi pasa bestak!



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



Ongi pasa bestak!

Sara Kafetegia

UDAKO ORDUTEGIA
(Ekainaren 24tik irailaren 1era)

Asteartetik igandera:
07:30-13:30 | 17:00-21:00
Asteazkena (arratsaldetan itxita):
07:30-13:30

Hurlandeta, 6 BERA · 948 625 673

BESTARIK ONENAK OPA DIZKIZUEGU!



**ZURE AURREZTEA
DA GURE HELBURUA**

BIÖK
MARKET



ventabiok.com

«Arropa, lekua... dena berezia izaten da aureskuan»



Argazkia: Nahiya Fagoaga

Oier Larretxea Berako gaztea

«Mendia, kirola eta lagunekin egotea gustuko dituen Berako gazte bat», halaxe deskribatu du Oier Larretxea beratarak bere burua. Baina, hori baino gehiago ere bada: txistularia, dantzaria, aizkolaria... Etxean gelditzen ez dakien horietakoa da, eta, beraz, bestetan ere aski zaila izanen da bera etxean harrapatzea. Azken urteetan udako lana tarteko eta pandemia bertze-ko ezin izan du Berako bestez nahi bertze gozatu, eta «gogo haundiz» hartuko ditu aurtengoak. Lana eta besta uztartzeko ahalaginak egiten ditu abuztuaren 2tik 6ra, bestarako, eta deskantsurako denbora ahalik eta hobekien uztartuz.

Sanestebanak hasi aitzinetik, ordea, izanen du zeregina Larretxeak, aizkora entrenamenduak batetik, dantza entseguak bertetik egun mugituak izan baitira uztailako azken hauek beratararentzat. Gustuko lekuan aldaparik ez da izaten, ordea, eta bere kasuan ere hala izaki, gustura ibiltzen da batetik bertara, dantzarako espartinak batean, eta aizkora bertean.

Txupinazoaren aitzinetik sartuko da besta giroan beratarra, uztailaren 31n, egitekoa den Nafarroako Herriz Herri Txapelketan ariko baita Arantzako taldearekin batera. Lehenengoz parte hartuko du txapelketan, eta «gogoz» eta «ilusioz» dago bi probetan ahalik eta denborarik

onena egin, eta finalerako sailkatzeko. Arantzako herri kirol taldearekin aritzea «berezia» dela dio: «Txapelketako prestaketa polita izaten ari da, talde lanean aritzea polita da, eta aita bertakoa izanda, gainera, oraindik eta bereziagoa». Lehiaketaren helburu nagusia haur eta gazteei herri kirolerako «grina» sortzea dela azaldu du, eta agerikoa da orain arte lortu dutela, ikusmin handia piztu baitute entrenamenduek.

Abuztuaren 3a, «berezia»

Aizkora alde batera utzi eta abuztuaren 2an besta pixka bat egin ondok, arratsaldean arropa zuria jantzi eta plazara ateratzea egokituko zaio arratsaldeko aureskuan. Bigarren, gainera, kapitaina izanen da, eta beraz, ardura bikoitza izanen da beretzat, plazan aureskua dantzatzeko egokituko baitaio. Abuztuaren 3a eta arratsaldeko aureskua bereziki gustatzen zaion eguna dela kontatu digu: «Erabiltzen dugun arropa, dantzatzeko dugun lekua... dena berezia izaten da». Plazara ateratzean sentitzen den «zitarra» nabarmendu du, «herri guztia egoten baita begira». Arratsaldeko aureskua ekitaldi berezia izaten da beratararentzat, horixe izaten baita dantzatzeko duen urtean ere «inoiz hutsik egiten ez duen ekitaldia».

Berakoen ondok, Arantzara

Dantza eta aizkora kontuak bukatuta, besta murgilduko da beratarra, beti ere «zainduz», udan izanen dituen gainerako herri kirol saioetarako. Izanen du, ordea, bestarako tarterik: migatuak, pilota partida, lagunekin otorduak... Dagoeneko burutan ditu bestetarako planak. Eta horien ondok zer? «Arantzako bestetaz disfrutatzea», horixe aurtengo helburua.



Alasta karrika · BERA | T. 948 625 472

Alberto RETEGI
abokatua

T. 948 630 763 · Alzate, 17 · BERA

INDARRI

HOTZ KOMERTZIALA
ETA INDUSTRIALA

Ongi pasa
bestak!

T. 639 103 305 · BERA

Ongi pasa bestak!



matxako

KALEFAKZIOA · CASA · ITURGINTZA

Tel.: 609 808 756 | BERA

Iturgintza lanak
Berokuntza
mota guztiak
Galdaren
instalazioak

"Baxi" markan
eskaintza berezia.
Eskatu
aurrekontua

BAXI
LA NUEVA CLIMATIZACION

ANTZUZELAI
S.L.

Ongi
pasa bestak!

BERA
T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com



HARGINTZA | FATXADAK | TXIMINIAK
ZOLAK | TAILLA ARTISTIKOAK | OBRAK



Tel: 948 630 180
Altzate 28,
BERA

OROZ JANARI-DENDA
Ongi pasa bestak!

MENDIKO
JATETXEA

Sagardotegiko menua eta karta
EGUNERO IREKITA



Ibardin-BERA
www.mendikoiibardin.com
+34 699 810 870

Oinetako eta osagarriak

Ongi pasa
bestak

Oinatz

Altzate, 5 31780 BERA • T. 948 630 120



PRIM, c.b.
Fisioterapia Zentroa

Itzea 1. behe • T/F. 948 625 206 • BERA
Colón Pas. 6 - 1.º • T/F. 943 633 050 • IRUN



gauko konfort-kubina



Ongi pasa bestak!

Centro Prim

regina tolosaechepe



**Elkarrian
Nagusilan elkarte**

«Ematen duguna baino aunitzez ere gehiago jasotzen dugu trukean»

«Gehiago jasotzen duzu ematen duzuna baino». Elkarrian Nagusilan boluntario taldeko kideetako baten hitzak dira. 2004an sortu eta 18 urte beranduago zaurgarritasun egoeran dauden herritarrek laguntzen jarraitzen du elkarteak, eta egiten duten lana eskertzeko, Berako bestetako suzuria piztuko dute abuztuaren 2an. Elkarteko arduradun Mayte Sanz eta Ramon Errandonea izanen dira suzuria pizteko ardura izanen dutenak, eta Jose Mari Lasagak botako du bigarren suzuria, elkarteko boluntariorik zaharrena baita. Baina, beraiekin batera izanen dira taldeko bertze partaideetako anitz. Izan ere hori nabarmendu dute, talde bat direla eta lana taldean egiten dutela.

Egun, 50 urtetik 80 urtera bitarteko boluntarioek osatzen dute taldea, eta dene-

ra 50 lagun inguru biltzen dira. Adinekoen egoitzetan dauden egoiliarrekin paseoak, etxeetara bisitak, ospitaleko kontsultetara laguntza eta garraio zerbitzua eta adinekoen egoitzan abestea dira elkarreko kideek egiten dituzten ekintzak, eta neurri txikiagoan baita helduen alfabetizazioa eta adin txikikoei eskola laguntza ere. 2004an sortu zuten elkarte orduko Berako udal ordezkariak sustatuta, eta Marian Biurraena izan zen lehenengo lehendakaria.

Elkarlanean

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean aritzen dira, honek beharrik identifikatu eta Elkarrian Nagusilan elkartearen bitartez erantzuten baititu behar horiek. Behar hori batez ere bakardadeari aurre egitekoa dela nabar-



Berako Udalak besta
zoriontsuak opa diezkiezue



B E R A

Gora Berako bestak



rretan parte hartu zutenek «zorientasuna» nabarmendu dute.

Hemendik aitzinera orain artean bezala lanean segitzeko, boluntario gehiagoren beharra dutela azaldu dute. «Gure lanik inportanteenetako bat, paseoa ateratzea da, eta horretarako indarra behar da aunitz gupildun aulkian daudelako», azaldu dute. Horregatik, deia egin diote elkartaren parte izan nahi duen orori bat egiteko «ateak zabalik ditugu», azaldu dute. Talde alai direla diote, giro ona dutela, eta boluntarioekin egiten duten lanaz harago, «lagun talde handi bat direla».

Txupinazoa botatzeko prest

Elkarteko boluntarioek gogotsu hartu dute txupinazoa botatzeko ardura, eta nabarmendu dute «pozgarria» dela beraintzat herria beraiekin oroitzen dela jakitea. Egun horretarako plan berezirik ez duten arren, udalarekin elkartuko dira suzuria piztu aitzinetik udaleko ordezkariekin batera, eta denek batera ospatuko dute besten hasiera. Lesakako boluntarioen bat, eta Nagusilan elkartekoren

bat ere bertaratzea espero dute. Bezperan, aldiz, egoitzako egoiliarren txanda izanen da.

12:00etan txupinazoa botako du aurtien 100 urte betetze-koa den Teresa Etxebestek eta horrekin inauguratutzat emanen dituzte aurtengo

bestak. Urteroko senitartekoen bazkari-rik gabe, baina, luntx txiki bat ere eginen dute. Horren ondotik, egunero izanen dute bisitaren bat, egoitza herriaren erdialdean izanik, ekitaldi-eko aunitz igarotzen baitira bertatik: txaranga, erraldoiak, gaitariak... Besten parte aktibo izanen dira, beraz, bertako herritarrak ere.

Udan egonagatik ere, ohiko jardunarekin jarraituko dute. Elkarrian Nagusilanekoek: beren denboraren zati bat bertzei eskainiz gizarteari onura eginez, eta beraiek ongi dioten gisan, «ematen dutena baino gehiago jasoz».

mendu du Jokin Apezetxea Bortziriletako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko langileak. Azaldu du boluntarioen lana «profesionalizatzeko» formazioa, segurua eta kilometraje gastua ordaintzen dizkietela. Gainera, konfidentzialtasun klausula bat ere sinatzen dute boluntario denek.

Bereziki egoitze-tako egoiliarrekin egiten duten lana nabarmendu du Apezetxeak, boluntarioek egoiliarrei haize berria eramaten dietelako. Boluntarioek ere kontatu dute erabiltzaileek pozarren jasotzen dituztela bisitak egiteko aukera: «Senitartekoei izugarri gustura egoten dira, baina, gurekin egotean bertzelako harreman eta giro bat sortzen da, gu familia baino, lagunak gara, eta beraiei kontatzen ez dizkieten gauzak kontatzen dizkigute aunitzetan».

Batean eta bertean ibiltzen dira txangoan, baina, paseo horiek ez direla ibilaldi soilak izaten uste dute, egoiliarrek boluntarioekin elkartu aldiro jendearekin solastatu, eta bereziki «adituak» izateko aukera izaten dutelako. Berriki, Elgorriagako bainue-kean izan dira irteeran, eta ateraldi ho-

«Paseoa ateratzeko indarra duen jendea behar dugu»



ELIZALDE

Bento | Ostatur | Jatebxa

Besta on batzuk pasa!

948 631 024 | Ibarcin | BERA

SEGUROS BILBAO
Grupo CATALANA OCCIDENTE

Ongi
pasa
bestak!

Iriarte-Etxandi
artekaritza-aholkularitza

Kanttonberri, 1 • BERA • T.948 631 169

Ongi pasa bestak!
FONTANERIA
Carlos Pacheco

C/Legula nº 19
31780 BERA (Navarra)

Telefono: 637 15 11 70

F. LANCHAS
Akutilladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzalea
Jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679



PAGOLA
Harategia - Hestebeteak

ONGI PASA BESTAK!



Altzate Plaza, 2 • Bera • T. 948 63 00 54
carniceriapagola@gmail.com • 722 84 12 85

Ongi pasa bestaki!

Arnedo Inda SL

Allianz

Eztegara, 26 - BERA - T. 948 625 259
 Parroquia, 21 - DONEZTEBE - T. 9484 50 266 } M. 691 384 651
 Londres, 16 - IRUÑA - T. 948 319 725 - M. 633 714 485

arnedo.ind@allianzmed.es

KORTA

AROZTEGI METALIKOA
CARPINTERIA METALICA

ongi pasa bestaki!

Alkaiaga Ind. Elutxa 1 - 31789 LESAKA
 T/F. 948 631 651
 info@kortanaiak.com

Zalain
 JATETXEA RESTAURANTE

BESTETAN LASAI IBILTZEKO
GARRAIO ZERBITZUA ESKAINTZEN DUGU
21:00-01:00
TXUPINAZO EGUNEAN EGUERDIAN ERE

Zalain Auzoa z/g 31780 Bera - Nafarroa
 t. 948 631 106 w. www.zalain.com

HAMAIKETAKO ERAMATEKO JANARIA

ETXERA ERAMATEKO MENU OSOA 8,5 €tik HASITA
948 631 017

ONGI PASA BESTAKI!

Sara karrika, 7 - Agerra auzoa - BERA

ZENTRU
LOGOPEDIKO-PEDAGOGIKOA

Nekane Ordoki Gonzalez
ongi pasa bestaki!

- ★ Ahozkapen zailtasuna ("erre" gaizki esana, "ceceo"-a...)
- ★ Gauzak kontatzeko zailtasuna
- ★ Irakurketa arazoak
- ★ Idazketa arazoak
- ★ Toteltasuna "tartamudeo"
- ★ Ahots arazoak
- ★ Arnasketa arazoak

Euskaraz/Erderaz

646 894 332
 BERA

«Jendeak Janus Lester lehenengoz aditzeko aukera izanen du bestetan»

Jokin Pinatxo Musikaria



Argazkia: Nahia Fagoaga

«Lo baino ametsetan ordu gehiago igarotzen dituen beratar gazte inpuntuala. Ordenean baino kaosean zoriontsuagoo dena». Halaxe aurkeztu du bere burua Jokin Pinatxo gazte beratarrak. Kimikaria ofizioz eta musikari afizioz, bien arteko oreka uztartzen ematen du egunerokotasuna. Kimikan doktoretza-tesia egiten ari da, eta «eguneko denbora, zein burohauste» aunitz ekartzen dizkio horrek, gainerako tartea, aldiz, musikalki abiatu duen proiektu berria lantzen ematen du oraindik ere gauza asko egiteko dauzka eta». Funtsean, egunerokotasun kaotikoa izaten du: «normalki oso berandu arte egoten bainaiz hamaika gauzekin eta lo orduak dezente murriztu ditut, batzuetan afizioa ofizio bihurtuz».

Lehen emanaldi berezia

Datozen egunetan orain arte dituen lo ordu murrizak are gehiago murriztuko zaizkio. Alde batera utziko du kimika eta doktoretzako lana, musikan eta batez ere bestan giroan murgiltzeko. Lepoko gorria soinean, eta kuadrilako blusa gerrian lotua duela, gogoz hartuko ditu aurtengo bestak, eta batez ere abuztuaren 2a. Egun berezia izanen da bestetako lehenengo eguna, txupinazoa lehertzeaz gain, egun horretan aurkeztuko baitu azken bi urteak lantzen ibili den Janus Lester musika proiektu berria.

Azken Trena musika taldearekin bi disko atera eta bakarka abesti batzuk sortu eta bertsonatu ondotik, zerbait «pertsona-

lagoa» egiteko gogoak bultzatuta abiatu du talde berria. Mattin Arbelaiz eta Julen Suarezekin hasi zuen proiektua, beraiek izan ziren ibilbide berriaren berri izan zuten lehenak, eta denborarekin abestiak sortzen joan den neurrian gerora elkartu zaizkio Garazi Esnaola, Ane Bastida, Andoni Arriola eta Javi Etxarri musikariak, denekin gaur egun «izugarritzko familia» osatu arte.

Abuztuaren 2an emanen du taldeak bere lehen kontzertua Beran 23:00etan Toki Onako patioan paratutako oholztan, eta Pinatxok argi dio berezia izanen dela «bi urteren ondotik bestetan egonen den lehenengo kontzertua delako eta jendea disfrutatzeke gogoz dagoelako». Horretarako «emozioz beterik beteriko emanaldia» egiten saiatuko direla aurreratu du. Gainera, emanaldiak sorpresa kutsua ere izanen du, Janus Lester aditzeko lehenengo aukera izanen delako: «Berezia izanen da abesti bakarra egin dugulako publiko orain arte, *Maitasuna Tabu* izenekoa, horregatik, jendeak Janus Lester zer den lehen aldiz entzuteko aukera izanen du». Kontzertu «intentsua» izanen da bere hitzetan, eta «denetarik momentuak» izanen ditu.

Bandarekin ere bai

Abuztuaren 2koa ez da izanen Pinatxoren bestetako musika emanaldi bakarra. Biharamunean, San Esteban egunean, gitarra utzi eta saxofoia lagun hartuta

Berako Musika Bandaren kontzertuan ere joko baitu. Gure Txokoa Dantza Taldearen aurrekuaren ondotik, urteroko emanaldia izaten da egun horretakoa. Gainera, kontzertua urtetik urtera indarra hartzen ari dela uste du musikariak: «Jendearen erantzuna hobetuz doala sumatzen ari gara eta horrek pila bat motibatzen gaitu». Bandarekin batera eskaintzen duen emanaldia «plazera» izaten da musikariarentzat. Musika jotzen hasi aitzinetik urduri egonen dela uste du Pinatxok, baina, «alde batetik bandan dugun giro bikaina dela eta bertetik, Igor Telletxeak zuzentzeko duen gaitasunarengatik «arratsalde bikaina» izanen dutela pentsatzen du. «Batzuk oraindik aurreko eguneko ondorioak izaten ditugu, baina, hala ere gustuko tokian aldaparik ez».

«Jendearen erantzuna hobetu dela ikusteak motibatzen gaitu»

Eguneko egitaraua eta gauekoa, bietan ibiliko dela aurreratu du. Hala, bere bestetako egun ideala zein den ere kontatu digu. Eguna aperiiboarekin hastea gustatzen zaio lagunartean eta txarangaz inguratuta, eta ondotik lasai bazkaldu eta bazkal ondorengo luzea egitea. Ondotik, «mahaitik altxatzeko indarrak izatean», ez du herriko poteoan huts egiten eta afaldu eta helburua «kontzertuetan bukatzea» izaten du. «Kontzertuen ondotik, gauak harrapatzen gaitu eta nahigabea gosaltzeko ordua iritsi dela konturatzeak boroiltzen du eguna».

Musikaria, eta musikazalea da Janus Lester taldeko abeslaria, eta beraz, galdu ezin duen ekitaldi bat zein den galdetuta argi dio beti saiatzen dela kontzertuetara hutsik ez egiten, are gehiago, «beti joaten saiatzen naiz», kontatu du. Horrekin batera, Berako bestek oro har soberan

ekitaldirik ez dutela uste du, eta faltan izatekotan besta egiteko egun pare bat gehiago izatea.

Txarangarekin herri herri

Janus Lester eta musika bandaz gain, erraza da Pinatxo saxofoia hartuta karrikan ikustea, bertzeak bertze Elutxa txaranga ibili izan baita saxofoia jotzen. Herriz herri bestak musikarekin alaitzea, polita dela iruditzen zaio. Lana bai, baina, musikarekin bestak alaituz giro ederrean ibiltzen dira taldekideak, hala azaldu du behintzat: «Txarangarekin joatean, egia da gu ez gaudela beraiek bezain animoso, baina, beti saiatzen gara ahalik eta hurbilenak izaten eta guk gure partetik giro bikaina jartzen».

Berako bestetara joaten denak, beraz, izanen du Pinatxoren musikarekin gozatzeko aukera, eta mezua ere luzatu die bere bila ibiliko direnei: «Ez jo gure etxeko atea bestetan, ez naiz eta etxean egonen». Bortz egunez erlojua atzendu eta karrikako giroak hartuko du.

Herri osoa bestarako gogoz

Behin musika lanak bukatuta, disfrutatzea bertze egitekorik ez du izanen beratar gazteak. Bestazalea da, hala onartu du eta dagoeneko gogoz dago aurtengoak noiz hasiko zain. Ez da bera besta gogoekin dagoen bakarra, inguruan ere hori sumatzen duela dio, bi urteko itxaronaldia «luzea egin delako». Horregatik, uste du aurtengo sarnestebanak «besta bikainak» izanen direla, eta «ez dela giro onik faltako karrikan». Berak ere lehenengo egunetik azkenekora «gogo biziz» biziko ditu bestak, nahiz eta uste duen lehenengo egunean urduritasun puntu bat izango duela gaueko kontzertua tarteko. Behin hori eginda, ahalik eta gehien «disfrutatzen» saiatuko da gorputzak irauten duen arte.



KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidad

kulturkari.com

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTORAK

DESINSEKTAZIOAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK

T. 948 625 597
Zalain, 42 B • BERA

GANIX
Itallerra



Ongi pasa bestak!

Zalain Pol., 11 • BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

URKILA
HARATEGIA

Kanttonberri, 12 • BERA
T. +34 948630439 • M. 666407210

ONGI PASA BESTAKI



AHOLKULARITZA · FISKALA KONTABLEA
ASESORIA · FISCAL CONTABLE

Rafa Pombar Sainz

Sara karrika, 1 31780 BERA (Nafarroa)

tel 948 63 02 01 fax 948 63 02 55 e-mail asesoria@ugaldea.com

LARRETKEA
EGYRRAK

Zuhaitzak
 erosi, bota
 eta ateri

Piketeak eta
 sutarako egurra



Ongi pasa bestak!!

Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

asegi asesorías
 Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 Eztegarra pasealekua, 22-1 Eliza Kalea, 22 Eltzeta, 20
 31700 ELIZONDO 31780 BERA 31740 DONEZTEBE 31770 Lesaka
 T. 948 581 300 · F. 948 580 648 T. 948 631 108 T. 948 450 395 · F. 948 451 304 T. 948 638 077



ONGI PASA BESTAK!

BERA · IBARDIN · 00 34 948 630 724



Churrut hoteleko
jatetxea (LENKONEA)

Foruen plaza | BERA (erdian)
 T. 948 625 540 · T. 948 625 542
www.hotelchurrut.com

BERAKO BESTETAKO MENUA 2022

EZTEGARA iberikoak, foie-blokarekin
 eta losta kumuskarekin.

AGERRA Garbokiak plantan.

BIDASOA legatza plantan, barazkiekin eta
 saltsa berde bereziarekin

ALTZATE masail iberikoa ardo beltzean
 patata ingolearekin

ILLEKUETA gazta-tarta, mangoarekin
 eta almendra izozkiarekin.

NAFARROAKO JATORRI-IZENDAPENEN ARDOAK
URA eta KAFEA (BEZA BARNE)

PREZIOA: 35 €

Eta bazkalondoa ongi bukatzeko
 gure kontinatu bereziak 6€ (marka estandarak)

ongi pasa bestak!



Eztegarra, 30A - BERA
 T. 948 630 451 | 948 630 641
info@takatukabidaiak.com

Savera
 Elevator System Solutions

ONGI PASA BESTAK

Zalain auzoa, 31780 BERA (Nafarroa)
 Tel.: +34 948 626 900 - Fax: +34 948 626 904
savera@saveragroup.com - www.saveragroup.com

Beratik
 mundura

The Kingdom Tower
 Jeddah, Saudi Arabia
 1.000 m.ko altura

Berako
 gidak
 erabiliz
 egina



Sunbillaako bestak 2022

egitaraua



Abuztuak 10, asteazkena

18:00etan herri kirol saloa. 20:00etan suzuria Herriko Etxetik erraldoi, buruhandi, gaitero eta Elutxa txaranga-ekin. 21:00etan zezensuzkoa plazan. 21:30ean zopak Ulibeltzak elkartean. Gauz dantzaldia Andus taldearekin.

Abuztuak 11, ortzeguna

09:00etatik 14:00etara LGTBI+ informazio gunea. 09:30ean argi soinuak gaiteroekin. 11:00etan meza nagusia. 12:15ean Sunbillaako dantzarien emanaldia eta luntxa plazan. 17:00etan toka txapelketa eta boneta eta zapatil jaurtiketa. 19:00etan dantzariak plazan, ondotik muxikoak. 22:00etan zezensuzkoa plazan. Arratsaldez eta gauz dantzaldia Laiotz taldearekin.



Abuztuak 12, ortziralea

09:30ean argi soinuak. 10:30etik 11:30era erraldoien kalejira Malerreka-ko gaiteroekin. 11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 19:00etara haurrenda-ko jokoak Colorin Espectaculorekin. 19:00etan zumba plazan. 20:30ean tortilla eta postre lehiaketa. Ondotik, pintxo dastaketa eta sagardoa. 22:00etan zezensuzkoa plazan. 23:00etatik 05:00etara kontzertuak: Buruhandiak, Kaos Etoliko eta Eztitan.



Abuztuak 13, larunbata

09:30ean argi soinuak. 10:00etatik 11:00etara erraldoien kalejira Male-rrerako gaiteroekin. 11:00etan Herri Krosa Ulibeltzak elkartetik abiatuta. 13:30ean bazkaria Guraso Elkarteak antolatua (izen-ematea Fonda ostatuan). 14:00etan kuadrillen bazkaria Ulibeltzak elkartean. Ondotik ura ura Matraka elektrotxarangarekin. 16:00etan ura eskatzea haurrekin plazatik. Harbirtin apar besta. 17:00etan gazteen ura eskatzea. 19:00etan XIX. Ramon Latasa Saria. 22:00etan zezensuzkoa plazan. Goizez eta arratsaldez Tren Txubcu herrian. Arratsaldez eta gauz dantzaldia Andus taldearekin.

Abuztuak 14, igandea

09:30ean argi soinuak. 10:00etan mus txapelketa. 17:00etan pilota partidak. 20:00etatik 22:00etara Txamukos taldearen kontzertua. 22:00etan herri afaria Ulibeltzak elkartean eta zezensuzkoa plazan. Gauz musika Beñatekin.



JAVI PETRIRENA



ITURGINTZA ETA ELEKTRIZITATEA

- ITURGINTZA - BEROKUNTZA
- EGUR ETA PELLETEZKO GALDARAK
- GASA
- AEROTERMIA
- EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK
- INSTALAZIOEN FINANTZAKETA %0
- INSTALATZAILE BAIMENDUA

Ongi pasa bestak!

T: 679 35 49 47- jpinstalazioak@gmail.com

Ongi pasa bestak!

SUKALDEAK, LURRAK, ARMARIOAK, ATEAK, TEILATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA GURE DENDA BERRIAN!

Kanttorberr, 3. BERA | Tef. 722 52 14 71

ONGI PASA BESTAK!

CAMPING · KANPINA

ARIZTIGAIN

RESTAURANTE · JATETXEA

BOKATAK

AUKERA ZABALA
Eskatu eramateko!!

PINTXOAK | RAZIOAK
HAMBURGESAK
SANDWICH-AK
PLATER KONBINATUAK
MENUAK
MENU BEREZIA ENKARGUZ

31791 SUNBILLA
948 450 540 | 660 798 249 - 636 488 300
info@campingariztigain.com
www.campingariztigain.com



**«Herrian
gazteen
mugimendua,
inplikazioa eta
parte hartzea
sustatu nahi
ditugu»**

Irati Arrieta Agirre
Ulibeltzak elkarteko lehendakaria



SUNBILLAKO UDALAK
Besta zoriontsuak opa dizkizue
sunbildar eta bisitari guztioi
GORA SAN TIBURTZIO !

Bidaiaatzea, lagunekin egotea eta besta egitea gustuko duen gaztea da Irati Arrieta Agirre (Sunbilla, 1993). Sunbilla-ko Ulibeltzak elkarteko lehendakaria da, «berriki junta aldatu dugu eta niri tokatu zait lehendakari izatea». Gainera, Antrotoki herriko gazte taldearen parte da eta Sunbilla-ko Dantza Taldean dantzatzen du titikatik.

Ulibeltzak elkartea

Duela bortz urte inguru sartu zen elkartean, «aukera polita zela ikusten genuen, kuadrillako bazkariak egiteko eta denak elkartzeko leku bat izateko. Gainera, elkartea herriko besten zati handi bat antolatzen du eta horren parte izan nahi nuen».

Apiril-maiatz aldera junta aldatu dute eta Arrietak ez zuen aukera pasatzen utzi; «lau lagun elkartu ginen eta boluntario

aurkeztu ginen laurok batera sartzeko. Batek idazkari izan nahi zuen, bertzeak diruzain eta lehendakaria aukeratzean denek niri begiratu zidaten [irriz]. Beraz, niri tokatu zait».

Hainbat bilera egin ditu elkartearekin eta baita udalebtearekin ere santiburtzioei begira; «bi urte geldirik egon ondotik, ez dugu inor juntan bestak antolatzen aritu denik eta ikasten ari gara oraindik. Bestez gain, ez dugu gauza aunitzik egin oraingoz».

Sunbilla-ko bestak udalebteak, Ulibeltzak elkartea eta Antrotokik antolatzen dute, «eta elkartea pisu handia du antolaketan; krosa, pilota partida, aizkora apustua eta herri afaria antolatzen ditu. Aipatzekoa da aizkora apustuaz gehien arduratzen dena Antonio dela eta gehiena egiten duela».

BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa bestak!

Zalain Ind. 42 | BERA
☎ 948 63 14 52 - 639 60 80 34 - 639 56 59 65

JAVIER IBARRA ERAIKUNTZAK

699 12 28 15

- Etxebizitza berriak
- Zaharberritzeak
- Erreformak
- Konponketak
- Teilatuak
- Harri eta hormigoi lanak
- Mota guztietako igeltsaritza lanak

**GREMIOEN KOORDINAZIOA
SUNBILLA (NAFARROA)**



Ongi pasa bestak!



Herriko gazteak mugituz

Antrotokiko kide ere da Arrieta, Sunbilla-ko gazteen taldea. «Aurten taldearen 20. urteurrena dugu. 16-17 urterekin laguntzen hasi ginen, eta duela bost urte sartu ginen antolakuntzan».

Taldearen helburua argia da: «herrian gazteen mugimendua, inplikazioa eta parte hartzea sustatzea. Bestetan egun bat guttienez gazteei bideratzen diegu beti musika eta kontzertuekin, asteburu kulturalen gazteendako eskaintza izaten saiatzen gara eta aurten Korrikan ere afora eta joko batzuk egin ditugu».

«Herriko bestetarako gogoarekin» ikusten ditu sunbildarrak, «hagitz besta onak izanen ditugu aurten eta helduak zein gazteak gogotsu daude». Kuadrillen eguna da «dudarik gabe» Arrietaren egunik gustukoena, «kuadrillen bazkaria, ondoko ura ura... bestetako egunik ederrena da niretako».

Egun bereziak dira santiburtzioak Sunbilla; «norberarendako beti dira bereziak herriko bestak», eta batez ere aitzakora apustua nabarmendu du, «jende aunitz etortzen da».

«Ahal dudan guztia»

Arrieta ez da geldirik egoten denetakoa eta guztiz inplikatu dago herriko bestetan. Izan ere, Uribeltzak elkarteko lehen-dakaria eta Antrotokiko kide izateaz gain, Sunbilla-ko Dantza Taldeko dantzaria ere bada. «Bizi guztian» ibili da dantzan taldearekin, «8 urte inguru nituenen hasi nintzen, egia da unibertsitatean nintzen tarte batez ez nintzela ibili baina orain dela hamar urte berriz bueltatu nintzen».

Pandemiarekin geldialdia egin behar izan dute eta orain «hurrengo ikasturterako» «ttiki, ertain eta helduen dantza taldeak antolatzen ari gara Sunbilla-ko Dantza Taldea lehen zen bezala berreskuratzeko, momentu honetan helduak bakarrik gaudelako». Jendea taldean sartzea eta dantzak probatzera animatu nahi izan du.

Bestetara begira, dantzak bere tartea ere dauka Sunbilla; «San Tiburtzio egunean dantza luzea egiten dugu meza ondotik». Beraz, bestak antolatzeaz gain, ikuskizunetan ere parte hartzen du Arrietak; «ahal dudan guztia egiten dut». Azkenik, jendea Sunbilla-ko bestetara joatera eta «ongi pasatzera» animatu ditu Arrietak.



ALTZURI

Leku Eder, Bustitz - 31791 SUNBILLA
altzuris@yahoo.es - Tel. 948 450 504
M. 659 867 287 - 699 461 394

MENDI LANAK
EGUR ATERATZEAK
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK
GARBITZE MEKANIKOAK
ITXITURAK

**SU EGURRA ETA
PIKETEA SALGAI**

MARISOL

JANIRAK | TIRAKOR | DROGERIA | LOTERIA | PRENTSA

Kale Nagusia 7, 31790 SUNBILLA | T. 948450608

**ONGI PASA
BESTAK**

**Lizun
GAZTANDEGIA**

ONGI PASA BESTAK!

Sunbilla - Tel: 948 450 862

**sasoi
eraikuntzaks.l.**

Leku-eder, 5
31791 - SUNBILLA - (NAFARROA)
T.: 948 451 596 F.: 948 456 168
info@sasoi.es

larreta lanak

IGELTSU PROIEKTATUA

Bidasoa kalea 36 - Bera
larretaigeltsua@gmail.com

Gorka Arretxe 627 225 514 Juanen Saralea 637 421 240

**Bustitz
ostatua**

PINTXOAK • RAZIOAK • BOKATAK
HAMAIKETAKOAK • KAXULAK

T. 948 627 919 - Leku Eder - SUNBILLA

**IRURI
MOTOR**

Aukerako autoak
Turismo eta furgoneten salmenta
4x4 autoetan modelo guztiak | Salerosketa zerbitzua

ONGI PASA BESTAK!

T. 948 450 399 - 620 950 687
Iruñe-Iruñe errep. zaharra | SUNBILLA



ZEURE BURUARI
DENBORA ESKAINIZ ZAINDU

Gozatu pestak!

Elbarren kalea, 43, 2. Aldea
Tel. 646 568 753



ONGI PASA PESTAK!

• Prentsa • Opariak • Testu liburuak
• Plastifikatzeak • Enkuadernatzeak
• Inprenta lanak • Fotokopiak

Elbarren, 15 - Herriko Plaza - LEITZA
mairurleitz@gmail.com - T/F: 948 510 146



BEATRIZENEA

TABERNA-JATETXEA

Ongi pasa pestak!

menua • otartekoak • kaxuelitak • pintxoak

Mikel Deuna, 2 - Tel: 948 510 991 - LEITZA

Gosariak, ogia, pastelak, pastak, tartak...



*Pesta onak pasa!

Lirain

Arropa-denda

ONGI PASA
PESTAK!

Elbarren 34, LEITZA ☎ 676737856



Garbi

drogeria - lurrindegia

ongi pasa
pestak!

Huarte Gotzaia 19, LEITZA ☎ 948 51 01 73

EZKAIN eraikuntzak S.L.



ongi pasa
pestak!!

Lizarraga, 3 • LEITZA
M. 650 910 868 • 650 910 867
T/F. 948 610 956 • 948 610 956
ezkain1@gmail.com

Leitzako Pestak 2022



Miguel Olano Zabaleta
Aurrera Dantza Taldeko kidea

«Pesta bigarrenekoa izaten da Aurrera Dantza Taldearen urteko saiorik bereziena»

Maite du dantza, ilusioz eta barrenetik bizi du, eta agerikoa da hori. Urteak daramatza Miguel Olano Zabaletak Aurrera Dantza Taldean, eta horixe segitzen du, «betitik» izan duen zaletasunaren bueltan, urteotan dantzak «satisfazio eta emozio asko» eman dizkiolako, baita «ezagun eta lagun mordoa eta herri asko ezagutzeko bidea» ere, «eta parranda batzuk ere bai, noski».

Dantzaria, dantzazalea eta dantza irakaslea da. «Duela 22-23 urte» hasi zen: «Dantzak ikustera joaten ginen, beti gustatu izan zaizkit. Joseba, Onintza, Xabier eta Nerea talde bat egin behar zutela hasi ziren eta holaxe sartu nintzen». Geroztik «ibilbide polita» egin dute. «Tarteka pixka bat gogorra» izan dela aitortu du, «lanetik atera eta dantzara segidan, udan egunerok...» baina gustukoa denean... Gainera, bestelako ateak ireki dizkie dantzak: «Bidaia batzuk egokitu zaizkigu eta herri asko ibili gara; normalean, Euskal Herrian barna, baina baita

Katalunian, Txekian eta Marakezen ere». Dantza ikasle hasi zena gaur egun, irakasle ere bada: «Gazteekin normalean Nahia eta ni aritzen gara, baina tarteka Joseba eta Onintza laguntzera azaltzen dira. Helduetan normalean ni aritzen naiz pixka bat zuzentzen, eta Joseba ere azaltzen da. Orokorrean denok egiten dugu gure ekarpena».

Taldea bizirik

Ez da atzo goizean sortutako taldea. Olanok azaldu duenez, «Aurrera Dantza Taldea Aurrera Kirol eta Kultur Elkartearen barrenean dagoen atal bat da. Aurrera izenarekin 50.eko hamarkadan sortu zen legalki, nahiz eta aurretik dantza talde gisa herrikan kanpora ateratzen ziren inguruko dantzazaleak». Eta hamarkada batzuk beranduago taldea bizirik dago: «Taldea nagusian neguan gubxi ibili gara eta pandemiak asko moztu digu. Orain, pestetako ari garen honetan, 22 lagun inguru gara. Gaztetan, berriz, 12 eta 17 urte bitarteko 45 inguru dira».

Pesta bigarreneko saioa

Pandemia tarteko azken bi urteak «nahiko bereziak» izan direla kontatu du: «ez dugu deus aurreratzerik izan». Baina garai hori atzean utzita, egun bereziak dituzte ate joka: pestak. Horiei begira daude orain, nahiz eta ez den horretara mugatzen Aurrera Dantza Taldearen urteko jarduna. «Orantzarotan, Aurrera Egunean, Urteen Egunean gazteekin eta pestetako bi egunetan» aritzen dira. Pestetan, «San Tiburtzio Egunean Leitzako Ezpata dantza dantzatzeko dugu, 12:00etan, eta pesta bigarrenean arratsaldean Leitzako Inguruboa eta saioa osatzeko euskal dantza batzuk». Guztietan «jendeak ongi erantzuten» duela eta, «asko eskertzekoa» iruditzen zaio: «joanen ez bailira, ez dut uste saio haundirik izanen genukeenik. Pesta egunean eta bigarrenen plaza gainekia egoten da».

Izan ere, leitzarren agendan, bereziak dira bi emanaldi horiek. Eta Olanoren hiltzetan, pesta bigarrenekoa da «dudarik gabe, urteko bereziak»: «Zure herrian zaude eta ahalik eta bukunena egin nahi duzu. Nerbioak eta tentsioak normalean baino haundiagoak izaten dira, ingurukoei dantzatzeko diotzu eta herriko pesten parte zara».

Jendetza biltzen da saioa ikustera, eta Olanori «izugarria» iruditzen zaio «plaza horrela ikustea, oilo pikorra jartzen da. Oso jende leiala eta konplutua daukagu herrian». Arrakastaren sekretua zein den ez dakiela aipatu du, irri artean «akaso ongi dantzatzeko dugulako» esan du, baina horren gainetik, «urte guzian egindako lanaren fruitua» erakusteko momentua da beraientzat. Horren atzean prestaketa haundia baitago: «Normalean irail aldera hasten dugu ikasturtea. Hasieran Aurrera Egunean eta Orantzaroko saioetarako zentratzen gara, eta pixkanaka pestetakoarekin hasten gara. Urtarriletik aurrera pestetakoarekin aritzen gara: hasieran ostiraletan, udan asteen bi edo hiru aldiz, eta azken asteetan egunero».

Seguru mimoz landutako saioa egiten dutela aurtzen ere. «Euskal dantza tradizionalak» izanen ditu oinarri, baina «aurreko urteetakoetatik desberdina» izanen da, «urtero errepikatzea ez delako polita». Horik aparte, ez du deus gehiago aurreratu: «Hoberena pestetako emanaldira azaltzea izanen da nolakoa izanen den jakiteko».

Ezpata dantza

San Tiburtzio Egunean Ezpata dantza dantzatzeko dutenean ere goraino betetzen da plaza. «Jatorriz dantza ez da Leitzakoa, baina bertakoa bezala kontsideratzen da». Au-



rrenekoz, 1932an dantzatu zuten Leitzan, «Batzokia» inauguratu zutenean. Sabino Aranak Durangaldeko Dantzari dantzaren eraldaketa bat sortu zuen, eta Batzokien bidez Euskal Herrian zabaldu zen. Eraldaketa hori da Leitzara 1932an iritsi zena, beste hainbat lekutara bezala. Aldiz, handik urte batzuetara, eraldaketa hori bigarren mailan gelditzen hasi zen eta Dantzari dantza jatorrizko moduan dantzatzeko hasi ziren Leitzan ez gainerako beste lekuetan. Leitzara izan da Aranak zabaldu zuen modura mantendu duen kasik leku bakarra. Horregatik gaur egun oraindik Leitzako Ezpata dantza izenez ezaguna da. Aldatu dena parte hartzea da, 2015etik emakumezkoek ere dantzatzeko dutelako. Aldaketa «nahiko natural» egin zela dio Olanok: «Beti gizonezkoek egiten zuten eta nik uste ohituragatik ez zela planteatzen. Pixkanaka gurekin ikasten hasi ziren eta hortxe ari dira gu bezala».

Leitzak dantzarekin duen loturaren beste adierazlea inguruboa da, hori ere «berezia», Olanoren arabera, «bertakoa» izatez gain, urte askotan mantendu delako. Guretzako ohorea da gurea den gauza bat toki askotara zabaltzea. Umoretsu gaineratu du, «lehen ligatzeko balio omen zuela... Orain ez dakit hala izanen den...».

Dantzak dantza, pestetan lanean aritzea tokatuko zaio Olanori, «tabernan egiten dut lan eta ordu batzuk pasa beharko ditut». «Lagunekin eta etxekoekin egoteko» tarte bat hartzen saiatuko dela dio, baina Aurrerako hitzorduetan behintzat ez du hutsik egiten. Herriarrei «pestak ahal den hobeak ospatzeko» deia egin die, «binto eta gauzak zainduz pasatzeko eta etxean inor ez dadila gelditu». Baina esker oneko hitzak ere luzatu ditu: «dantzariak oso eskertuak gaudie herriarrek ematen diguten babesarekin. Eta bistulariei eta musikariei ere eskerrak, baina beraiek ere lana egiten dute».



**HIERROS
LEITZA**

Iñurrista Pol, 12 Leitza
948 51 08 48

LEITZELARREA S.L.

Aroztegi eta Galdereria

ONGI PASA PESTAK!

Landa Beikoa Industrialdea, 20 • LEITZA
T. 948 510 598 M. 669 368 991



INAXIO PERURENA
KIROMASAJEA

Elbarren 53, LEITZA

649302307



LEITZAKO UDALAK

pesta zoriontsuak opa dizkizue
leitzar, bisitari eta gurekin egon
ezin izan duzuen guztiei



**ERRESPEZUZO
HARRERMANAK
GUSTATZEN DUTZUGO**
BARRUTIAK BARRUTIAK
2022-07-28

KAMPERBIDE

ONGI PASA PESTAK!

Landa Poligonoa 8b • LEITZA • 669 707 916
info@kamperbide.com • www.kamperbide.com



Egunero egiten ditugu

PIZZAK



ONGI PASA PESTAK!

EROSKI city



Tel: 948 510 007 - 948 610 657
Elbarren, 20-71

ongi pasa pestak!

Arzallus
HARATEGIA

Tristorra eta artisauek produktua, etxean eginak
Elbarren, 37 • LEITZA • Tel. 948 510 377

ongi
pasa
pestak

AMAIA
arraindegia



Ongi pasa pestak!

Uharte Gotzaia • LEITZA
948 510 590

ULI-ZAR
ELKARTEA, S.L.



ITURGINTZA
BEROKUNTZA
GASA-GASOLIOA

MOBLEAK
MANPARAK
KOMUNERAKO OSAGARRIAK

647 525 516 • ARESO | LEITZA

egitaraua



Abuztuak 6, larunbata

14:00etan eskelarien bazkaria Aurreran. 16:00etan auzoz auzo, Plazaola aldizkaria-ren banaketa; trikitilari, txistulari, akordeoilari eta gaiteroen laguntza.

Abuztuak 7, igandea

09:00etan diana txistulariekin. 10:00etan udalbatza txikiak udal ordezkariekin gosaria. 10:30ean gurgildun zezenen entzierroa. Ondoren Aurrera Pilota Eskolako gazteen partidak plazan. 11:30etik 13:30era Denok Bat guraso elkarteak antolatutako jolasak plazan. 17:00etan erraldioen konpartsa plazatik abiatuta. 18:30ean Aurrerako dantzari taldeen ikuskizuna eta umeen Ingurubxo irekia plazan. Ondoren goxokiak. 20:30etik 22:30era Xalbor diskofesta. 22:30ean zezensuzkoa.

Abuztuak 10, asteazkena

12:00etan Ebaxera bidean mosaikoa plazan Leitzako Sarek antolatuta. 13:00etan Kantu-jira Kuxkuxturekin plazatik abiatuta. 13:30ean jubilatuen bazkaria. 14:00etan kantu bazkari herrikoia karrapen. 18:00etan txupinazoa eta Plazaola aldizkari azalaren irabazleari saria ematea. Ondoren Incansables txaranga, txistulariak, erraldioen konpartsa eta gaiteroak herrian barrera kalejira. Ondoren zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarian. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etan Burutik eta Pleura taldeen kontzertua. 23:00etan DJak Elektro Tekno gaua Atekabeltzen. 01:00etan Incansables txarangaren erronda.



Abuztuak 11, osteguna

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 10:30ean hamaitaketa irekia karrapen. 12:00etan Aurrera Dantza Taldeko espata dantzariak plazan. Ondoren afizionatuen arteko pilota partidak plazan. 13:00etan Aurreratik abiatuta Incansables txaranga. 17:00etan zuzeneko musika emanaldia Aurrerako atarian. 18:00etan zezenak plazan. 19:00etan herri kirolak plazan: Aizkoran bakarka: Malen Barrenebnea. Bikoteka: Laiene Pikabea-Irati Astondoa, Nerea Sorondo-Uxue Ansoategi. Harria jasotzen: Lur Errekondo eta Lierni Osa. Giza proban: Joseba Santxex. Ondoren goxokiak. 19:00etan Luze eta Motz bakarrikzeta Atekabeltzen. 19:30ean Incansables txaranga eta buruhandiak. 21:00etan Leitzako Ingurubxo nahi duen guzientzat plazan. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etan Goxua'n Salsa. 01:00etan Incansables txarangaren erronda.

Abuztuak 12, ostirala

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 11:00etan Txorotxaranga. 12:00etan Plazaz plaza txapelketako pilota partida plazan. 13:00etan paella prestaketa eta jatea karrapen. 13:00etan Aurreratik abiatuta Incansables txaranga. 17:00etan Leitzako bertso eskolako emanaldia Aurrerako atarian. 17:30ean zezenak plazan. 19:00etan Aurrera Dantza Taldearen emanaldia plazan. Ondoren goxokiak. Ondoren Incansables txaranga eta buruhaundiak. 22:00etan zezensuzkoa. 00:00etan Gozategi. 00:00etan Herdoil eta Kaleko Urdangak Atekabeltzen. 02:00etan DJ Bull Peritzeko txosnan. 03:00etan Leitzako inguruboa nahi duen guziarentzat plazan.



Abuztuak 13, larunbata

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 11:00etatik 13:00etara Bubble jolasak plazan. 12:00etan erraldioen konpartsa eskolatik abiatu eta Amazabal eta Patxi Arrazolara. 13:00etan Aurreratik abiatuta Incansables txaranga. 13:00etan poteo musikatua plazatik abiatuta. 15:00etan brindisa eta bazkaria karrapen. 16:30etik 19:30era Bubble jolasak plazan. Goxokiak. 18:00etan pilotari profesionalak Amazabal pilotalekuan: 1. partida: Zabala-Gaskue, Salaberria-Tolosaren aurka. 2. partida: Altuna III.a-Rezusta, Ezkurdia-Zabaletaren aurka. 19:00etan DJ Reimy plazatik abiatuta. 19:30ean Incansables txaranga eta buruhaundiak. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etan Zea Mays eta Raimundo El Canastero. Ondoren DJ Garrote plazako txosnan. 01:00etan Incansables txarangaren erronda.

Abuztuak 14, igandea

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 11:00etan aparra plazan. 13:00etan txakolin dastaketa plazan. 13:00etan Incansables txaranga plazan. 15:00etatik 19:00etara ur txirista Errekaldeneko atarian. 17:00etan zezenak plazan. 18:00etan bertsolariak plazan: Alaia Martin, Jexux Mari Irazu, Miren Artetxe, Sustrai Colina eta Xabat Illarregi. Ondoren goxokiak.

Ondoren Incansables txaranga eta buruhaundiak. 21:30ean zezensuzkoa. 22:00etan herri afaria plazan. 00:00etan DJ Jo Ta Txo Peritzeko txosna. 01:00etan Incansables txarangaren erronda.



Abuztuak 15, astelehena

08:00etan diana txistulariekin. 09:00etan entzierroa eta behiak plazan. 11:00etan erraldioen konpartsa eskolatik Manuel Lasartera eta plazan bukatu. 12:00etan herri kirolak plazan. Harri jasotzen: Josetxo Urrutia, Aizkoran: Jon Rekondo-Julen Olano, Hodei Ezpeleta-Oier Kañameres. 13:00etan Aurreratik Incansables txaranga. 14:30ean Aurrerako bazkideen bazkaria elkartean. 18:00etan entzierroa eta zezenak plazan. 19:00etan helduen inguruboa plazan. Ondoren goxokiak. 22:00etan zezensuzkoa. 23:00etan Txingones de la Rencle. Ondoren Gaixoa ni Incansables txarangarekin.

Warista ind.P.2
31850 LEITZA
T. 948 610 985

ONGI PASA PESTAKI

POLIURETANOZKO
BABES ETA
INJEKZIOZKO
ISOLAKETA

AISLAN-LEITZA, s.l
618 915 943
Santa Luzia pasealekua, 4 B Behea - Butintxuri - IRUÑA
aislanleitza@yahoo.es

Leitza Garajea Multimarka

LEITZA GARAJEA
MULTIMARKA TAILERRA
STILH AGENTZIA
NEKAZARI TAILERRA
SALEROSKETA

ONGI PASA PESTAKI!

Landa Industrialdea - LEITZA
948 510 466 - 948 510 972

LEIMEN S.L

Era guztietako elektrizitate lanak
LEITZA 628 725 396 Argoitz
MENDILLORRI 628 725 397 david

Jai zorientsuak denoi!!

MAITE PERURENA ZUBITUR
Kalitatez

AITAREN HARRIAK
AMAREN HARRIAK

IREKITA:
Ostirala: 10:00 - 13:30 / 17:00 - 20:00
Larunbata: 10:30 - 14:00
Hitzorduz: 620 810 803

Egiten 2 behea, Leitzako Plazan

www.301k.com
 301K
 301_kito



ONGI PASA
PESTAK!

Gosariak, Plater
konbinatuak,
Bokatak
—
Pestetan
menu berezia

Elbarren Kalea, 14 • 948 51 06 07 • LEITZA
musunzarostatua@gmail.com



TALLERES
Ireber S.L.

- MANTENTZE-LAN PREDIKTIBOA
- MAKINERIA INDUSTRIALAREN
KONPONKETA ETA MUNTAIA

ONGI PASA PESTAK!

T. 948 510 842 • 629 831 535
ireber@cenabarra.es
Landa industrialdea, Nabe 9-10 B • LEITZA



PERITZA
TABERNA

Pesta onak pasa
eta txikxo ibili

MILA ESKER
ANTOLATZATILEET

FERRETERIA - PENTSUAK

ORTIZ

Ongi pasa
pestak!



Baserriko gailak

Tresnak

Hazlak

Sagardoak

Baratza

Ardoak

Kontserbak

Pentsuak

Eraikuntzarako gailak

@ ortizpentsuak@gmail.com
Landa industrialdea 13
31880 Leiza - Nafarroa
T. 948 513 600
www.ortizferreteriaipentsuak.
blogspot.com.es

EXPLOTACIONES FORESTALES

ZUBILLAGA SARALEGUI, S.L.



Oihan aprobetxamenduak
Bertako eta kanpoko zur-billegia
Egurra aireko kable bidez ateratzen dugu
Oihanberritze lanak
Zur-salmenta, eskabazioak, garraioa

Landa Ind. I eta II • LEITZA
Tfnoa: 948 510 214 • Faxa: 948 510 841
M: 606 949 139 • 606 949 131
info@zubillagasaralegui.es

TXOKO
TABERNA

Plater konbinatuak
errazioak
ogitartekoak...

ONGI PASA
PESTAK!

Elbarren, 22 Leiza
948 510 227

*Leitzako pestetan
herria beti garbi!*

traeco
ingurumen - medioambiental

www.traecomedioambiental.com



KULTURKARI
Dizaino grafiko / Publicitate

Zure jatebeteke
diseinuarekin
menuak, kartak,
mahai-oihalak,
musuzapiak,
boto-azpikoak, etab.
pertsonalizatzen
ditugu

kulturkari.com

GAZTAÑAGA
TABERNA

OTARTEKOAK
PINTXO BEROAK
KAXUELAK
PATATA BRABAK

ONGI PASA PESTAK!



948 610 708 LEITZA

Clinica Dental
IRURITA RUBIO

ORTODONTZIA ETA INPLANTOLOGIA

Rx. Panoramikoa • Periodontzia • Odontopediatria
Kirurgia • Endodontzia • Protesiak • Hartz-zuritzea
PADI (Hauren hartzak zaintzeko programa)

DONEZTEBE
Rosa Seminario, 19
948 450 267

Ondi pasa pestak!

LEITZA
Manuel Lasarte, 7
948 610 713



Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

ARIZTIMUÑO
ANAIK
ERAIKUNTZAK

ONGI PASA PESTAK



Landa Ind. 19 • 31880 LEITZA
T. 948 610 648 • M. 619 604 109 F. 948 510 693
construccionesariztimuno@gmail.com

«Leitzan txistuaren doinua oso barneratua dugu eta urte guztirako programa izaten dugu»



Jose Luis Huarte Azpiroz
Txistularia

Zer izanen lirake herrietako pestak txistularirik gabe? Zaila lirake ulertzea, txistulariak direlako pestetako ekitaldi asko eta askori doinua jartzen diotenak. Dianekin eta kalejirekin kaleak alaitzen dituztenak, dantzariak dantzan jartzen dituztenak... Hori ongi daki Jose Luis Huarte Azpiroz. Urteak daramatza pestetan eta pestetatik kanpo txistua joz, egunez zein gauez, maite duelako behatzak dantzan txistua jotzea eta, gainera, ongi pasatzen duelako.

«13-14 urterekin» hasi zen txistua ikasten Huarte, «herriko txistulariekin kuadrilla bat hasi ginen» eta hala, «notak jotzeko posturak eta piezak ikasiz» segitu zuen. Dioenez, «ez naiz musika eskolan txistu ikasketak egindakoa, joz eta belarrik ikasi dut. Abilidade berezia dutenak izanen dira, baina ongi jotzeko ikasi, saiatu eta praktikatu, ez dago besterik». 17 bat urterekin egin zuen kalera-ko saltoa, eta hortxe segitzen du, «Leitzan ehun urte baino gehiago dituen» tradizioari eutsiz: «Segur aski urte gehiago izanen ditu txistuak Leitzan, baina guxienez ehun urte baino gehiago ditu, oso aspaldikoa da».

«Urte guztirako programa» izaten omen dute txistulariek Leitzan. Inauterietan, «bizpahiru

egunetan baserrietako eskean ateratzen gara». Hortik aparte, «herrian edozein ekitaldi baldin bada, hantxe izaten gara». Bada, ordea, azken urteetan «galdu» den ohitura bat: «Duela hiruzpalau urtera arte igandero plazan txistua izaten zen. Guk Anjel txistularia ezagutu genuen, 50 urtez jotzen aritu zena 1980ra arte, Fermin atabalariekin gehienbat. Ondoren Patziku eta Juan Migel aritu ziren urte askoan Ferminekin lagunduta, eta lehendik ere eta azken urteetan, Juan Migelekin batera, Eskubi txistularia eta Ebebe atabalariekin aritu dira». Txistulari gehiago badirela dio, «baina horiek ziren igandero konpromisoa hartua zutenak. Gaur egun, txistulariok ez dugu igandero bi orduz txistua jotzeko konpromisoa hartu nahi».

Pestetarako motorrak berotzeko Igandeetako alde batera utzia izanagatik, badute non ari, eta bereziki uda garaian. San Juan bezperan hasten dute Leitzako txistulariek udako denboraldia, Huartek «betilik» ezagutu duen zitarekin: «Arratsalde, Leitzako dantza ezagunena den inguruboa dantzatzen dute gazteboiek. Ez da serioa izaten, baina aspaldikoa da. Gero, afaltzeko garaira arte txistua jotzen dugu».

Aurrera dantza taldearen saioetan ere ezinbestekoak dira. «Dantzariak urte guzian aritzen dira entseguak egiten, baina sanferminak bukatu eta pestak hasi bitarte, astean bost egunetan entseguak egiten dituzte pestetako erakustaldi handirako, eta txistulariak beraiekin entseatzera joaten gara».

Pesta aurreko asteburuan izaten dute segida. «Larunbatean, Plazaola aldiakaria eta bestetako programa etxer etxer banatzen dituzte, eta txistulariok hor parte hartzen



Ongi pasa pestak!

T. 948 513 611
Elbarren 66 LEITZA

ONGI PASA PESTAK!



DANI
ITURGINTZA

672 18 31 99
iturgintzadani@gmail.com
LEITZA



Pesta zoriotsuak igaro!!

edr' gunea
Ainhua Azpiroz
Esfezista

Laser • Solarium • Depilazio • Makillaje • Begien edertzea
Aurpegiko tratamenduak • Gorpuzko tratamenduak • Opatu bateak

Elbarren 67 behe • LEITZA • T. 948 510 273 • edrgunea@yahoo.es

ongi pasa pestak!



FÍSIOETXEA

Ane Egizabal Llata
Fisioterapeuta

026 kolegiatu zerbakia
Bizkortze arketak • Kirol eta Zirkulazio Masajak
Osteopatia • Erditze aurreko ondorengo tratamenduak
Gimnasio Abdominal Hipopresiboa • Etxer etxeko laguntza

Uharte Gotzaina, 8 3.C • LEITZA • T. 948 510 730

Dia



OKABIO

SUPERMERKATUA
KAFETEGIA

Pesta zoriotsuak opa dizkizuegu!

T. 948 510 731
Landa Etxea
Leitza

gaztelu scl

KALEFAKZIOA • SANEAMENDUA • GASA • ITURGINTZA • KLIMATIZAZIOA
BATA ZIURTAGIRI ENERGETIKOAK ERE

Landa Behikoa Ind. 21 • LEITZA
T. 948 510 086 • 948 510 156 • F. 948 610 856

info@fontaneriagaztelu.com • www.fontaneriagaztelu.com



KIDE
aholkularitza

KONTABILITATEA • ZERGAK • AUTONOMIA • ENPRESEN SORRERAK
ERRENTAITORPENAK • AHOULKARITZA JURIDIKOA
NOMINAK, KONTRATUAK

LEITZA: Landa Ind. Suizpi 3 • T. 948 510 990
DONOSTIA: Tolosa hiribidea 5-2 solairua-3eskuin • T. 943 42 03 48
izaskun@kide.eus • www.kide.eus



Elbarren, 47 • LEITZA
606 27 35 34 • 688 64 08 34
www.lopenea.com



BOKATAK • KAXULAK
MENUA • PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK

DENAUTO SAGASPER
Tailerra

ONGI PASA PESTAK!

AUTO KONPONKETA

Eluseder Ind. • ARESO • T. 948 510 610 • F. 948 510 917

leitzarra
taberna

Pintxo eta ogitarteko aukera zabala

Ongi pasa pestak!

948 510 352
Uhartetxe 2 LEITZA

Ondo pasa bestak!

euskron

+34 948 510 807
www.euskron.com

Eluseder 4
31076 Areso

Tel: 948 510055
Mail: f.hernandorena@yahoo.es

Ongi pasa bestak!

Burundegia/Ferreteria
HERNANDORENA
c/ Elbarren, 21 31080 LEITZA (NAFARROA)

izaskun
estetika zentroa

edertasun tratamendu eta aholkuak

Uhartetxe 4 behea
LEITZA - T. 638 304 110

MAXI VICENTE
ERAIKUNTZAK

ongi pasa pestak!

Amazabal, 17 • LEITZA • 606 307 810

Mokadutxo
Gastrodenda

Elbarren 19 657 77 46 41

LEITZARAN AUTO KLUBA

Mikel Aristeta

Inurista 21 LEITZA
T. 948 610 568

www.lakservice.com

Ainart
LEBAPINDEGIA

Ongi pasa pestak!

Elbarren, 67 • behea
LEITZA
948 510 197



dugu. Igandean, umeen eguna izaten da eta goizean diana izaten dugu, eta arratsaldean dantzari tikien saioa plazan.

Egunero hitzorduak

Pestetan ez dute nolanahiko protagonismoa; egunero ateratzen dira kalera, eta zenbaitetan bizpahiru aldiz. «Bezperan, 10ean, arratsaldean txupinazoren ondoren, kalejiran aurreneko txistulariak ateratzen gara, gero txaranga, erraldoi eta buruhandien konpartsa...». Huartek «oso kale girokoak» direla azpimarratu du: «hizketan gelditzen gara, trago bat hartu...»; eta «bai dikanan, bai kalejiran, aspalditik egin den ibilbide bera» egiten dute.

Bezperan hasi baino ez da egiten txistularien joan-etorria. «Ondoko bost egunetan, egunero, 08:00etan diana jotzen dugu. Tartean, entzierroa izaten da eta hor ere ibiltzen gara». Egun haundian, 11n, plazan biltzen dira: «12:00etan ezpata dantza jotzen dugu. Ikusmin ikaragarria sortzen du eta plaza betea egoten da. Momentu berezia izaten da». Segidan, «gosaria egin eta kalejira egiten dugu». Gauean berriz hartzen dute hiru zuloa tresna kuttuna. «21:00etan inguruboa jotzen dugu plazan. Leitzar gehienek badakite eta irekia izaten da».

12an, goizean diana eta arratsaldean Aurrera dantza taldearen emanaldia izaten dute. Hori omen da «eritsegia gehien» eskatzen diena. Baina ez da eguneko hitzordu bakarra. «Gauean, plazako musika bukatzean, 03:00 aldera plazan inguruboa jotzen dugu». Horren harira, «lehen plazako musika bukatutakoan egunero inguruboa dantzatzeko zela» azaldu du, eta «ikaragarriko arrakasta» zuela. Azken egunean ere, 15ean, inguruboa bere tokia izaten du: «bikoteen inguruboa jotzen dugu».

«Egitarau ofizialekin kanpo», pestetako egun batean txistulariak biltzeko aprobetxatzen dute: «Eguri aldera, gosari tiki bat egin eta bazkalitzeko ordura bitarte kalejiran ateratzen gara. Bazkalondan txistuarekin segitzen dugu. Mahaitik altxa eta beste kalejira bat egiten dugu 20:00 aldera nekatu edo aspertu arte, edo inguruko guziak aspertu arte», dio irri artean. Egitarauaren arabera, egun batean edo beste baten biltzen dira, eta «mordoxka» elkartzen omen dira; «hamar-hamabi lagun».

Garbi gelditu da, eta Huartek hala berretsi du: «txistuaren doinua Leitza oso barmatua dago. Edozein pesta edo ekitaldi denean deitzen digute eta oso ohikoak gara». Hitzordu gehienetan hutsik egiten ez dutenak «lau edo bost» direla dio, «baina pestetako egun berezian gehiago biltzen gara».

«Txistulariak oso kale girokoak gara. Kalejiran jendearen hizketan, tragoa hartuz... ibiltzen gara»

Txistularien etorkizunaz galdetuta, «ez da erraza» bere irudiko, «12-14 urtetik aurrera, kuadrillarik ez badute zaila da segitzea». Baina «sendo datozen gazte batzuk» badirela argitu du: «Goi mailako txistu ikasketak egiten ari den neska bat gurekin ibiltzen da. Beste mutil gazte batek ere oso ongi jotzen du eta ikasketak egiten ari da. Bat edo beste heldu dira».

«Beste musika klaseek» txistuari egiten dioten itzala ere aipatu du: «Bolada batean, pesta bezperako kalejiran lagun kuadrilla bat gurekin etortzen zen, baina gaur egun oso gutxi segitzen du. Txaragarekin ere jende gutxi ibiltzen da. Momentu honetan arrakasta haundiena duena erraldoi eta buruhandien konpartsa da». Hala ere, «gustura» ari da eta hobe segitu nahi du, «gorputzak eta abildadeak aguantatzen duen arte». Pesta hauetan ere ez du hutsik egiten, «txistuarekin edo gabe» kalean ikusiko dugu, «kaleko giroa» delako «pestetik gehien gustatzen zaidana».

'Oihanean sentitu' bisita gidatuak egingen dituzte

Ipuin kontalariarekin eta zuzeneko musikarekin egingen dituzte Baztan-Bidasoa Turismo Elkartek antolatutako bisitak, abuztuan eta irailean



Bisita gidatuak ipuin kontalariarekin eta musikarekin izanen dira. IÑAKI ATXA

TTIPI-TTAPA

Baztan-Bidasoa Turismo Elkartek, zuzeneko ipuin kontalari eta musikarekin antolatutako 'Oihanean sentitu' bisita gidatuak antolatu ditu abuztu eta irailerako. Iaz, 13 ibilbide biltzen dituen izen bereko liburuxka argitaratu zuten. Ibilbide bakoitza osatzeko, ilustrazio bat eta ingurari lotutako ipuin bat daude, herrian kontatzen den eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den istorio bat, elezhar bat, anekdota bat...

Aurten, bisita gidatu bat ere eskaini nahi dute aipatutako ibilbideetatik, Ameli ipuin kontalariarekin eta zuzeneko musikarekin. Bisitak Baztan-Bidasoaldeko hainbat lekutan egingen dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz. Baztan-Bidasoa Turismo Elkartek antolatutako ekimena da. Iturengo Tresanea Apartamentuak eta Beintza-Labaiengo Orbel Aterpetxea, eta Donamaria, Bera, Igantzi, Zugarramurdi eta Baztango udalen laguntzarekin. Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du. Izena emateko 948 59 23 23 telefonora deitu behar da. Helduek 8 euro eta haurrek 4 euro ordaindu behar dute.

Bisiten egutegia

Abuztuak 3, Beintza-Labaien

Abuztuak 4, Donamaria

Abuztuak 10, Lekaroz

Abuztuak 11, Berroeta

Abuztuak 24, Bera

Abuztuak 25, Ituren

Irailak 3, Igantzi

Irailak 10, Zugarramurdi

Irailak 17, Donamaria

Elkarrekin talde bikaina osatzen dugu

Zer garrantzitsua den ñabardurei arreta jartzea. Ez baita gauza bera entzutea edo *kasu egitea*.

Honelakoa da gure Banka Pribatua.

Esaneko banka

www.cajaruraldenavarra.com



Herriko trikitilariak karriketara aterako dira bezperan. ARTXIBOTIK



Zigako zikiro jatea. ARTXIBOTIK



NAFARROAKO HERRI KIROL TXAPELKETA

Zigako bestak abuztuaren 9tik 13ra izanen dira

Bi urteren ondotik herritarrek gogotsu daude sanlorentzoak ospatzeko

TTIPI-TTAPA

San Lorentzo bestak ospatzeko prest daude zigatarrek, eta bi urteren ondotik otorduak, kontzertuak eta jokoak izanen dira nagusi berriz ere Zigan bortz egunez. Abuztuaren 9tik 13ra ospatuko dituzte aurten herriko bestak eta hainbat jarduera prestatu dituzte egitaraua denen gustukoa izateko.

Egitaraua

Abuztuak 9 asteartea, bezpera. Beste hasmenta emateko 20:00etan txupinazoa eta ez-kila-jotzea. Herriko trikitilariak Zigako karriketan barna ibili-

ko dira. 21:00etan Baztan zopak eta 00:00etan dantzaldia Modestoren eskutik.

Abuztuak 10 asteazkena, San Lorentzo eguna. 10:00etan dianak, 11:00etan meza nagusia eta 12:00etan luntxa eta Joxean Etxeberriaren aizkora erakustaldia izanen dira. 18:30ean Los Tajudos del Norte mariatxien emanaldia izanen da eta 20:00etan dantzaldia Modestorekin. Ondotik joaldunak izanen dira. 22:30ean Xinger jatea egingen dute eta eguna akitzeko dantzaldia Modestorekin berriz ere 00:00etan.

Abuztuak 11, haurren eguna. 10:00etan dianak, 11:00etan haurrendako jokoak eta 14:00etan haurren bazkaria. 17:00etan puzgarriak izanen dira, 19:00etan patata tortilla lehiaketa eta 20:00etan dantzaldia Hauspolarien eskutik.

Abuztuak 12, gazteen eguna. 10:00etan dianak, 11:00etan mus txapelketa eta 14:00etan gazteen bazkaria. 17:30ean gazteen jokoak izanen dira eta 18:00etan pala txapelketa. 20:00etan dantzaldia izanen da Fidelekin, 22:00etan herri afaria egingen dute eta eguna akitzeko dantzaldia berriz ere Fidelekin 00:00etan.

Abuztuak 13, zikiro jatea. 10:00etan dianak eta ondotik haurren frontenis txapelketa. 12:30ean pilota partidak izanen dira eta 14:00etan zikiro jatea, Modestok alaitua. 20:00etan Joselu Anaiak izanen dira ohol-tzaren gainean, 22:00etan Xinger jatea eta bestak akitzeko kontzertua berriz ere Joselu Anaiak taldearekin 00:00etan.

Joxean Etxeberria irabazle Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketan

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 10ean Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketa jokatu zen Iruñeko sanferminetan. Foruen plazan izan zen erakustaldia eta eskualdeko hainbat aizkolarik parte hartu zuten bertan, haien artean Joxean Etxeberria zigatarrek, txapela lortu zuena.

Etxeberriak eta Eneko Saralegik osatutako bikoteak lortu zuen lehenbiziko postua 26.16.54 markarekin. Haien gibeletik, Iker Vicente eta Asier Pellejero izan ziren bigarren 28.15.11 denborarekin eta Jon Rekondo eta Julen Olano izan ziren hirugarrenak 29.16.16 markarekin.

Lan ederra egin zuten Etxeberriak eta Saralegik erakustaldi polita eskainiz. Zorionak!



ZIGA

ELEKTRIZITATEA

647 77 31 33

Eguzki plaken instalazioak, argiztapen-azterketak eta elektrizitate lanak orokorrean





NAIARA ARIZTIA

Azpilkuetako bestak giro ederrean

Normaltasunez ospatu ahal izan dituzte sanferminak aurten Azpilkuetan eta aunitz disfrutatu dute; «aspaldiko partez haur, gazte eta helduak herriko plazan elkartu gara eta arras ongi pasatu dugu irriz eta dantzan. Herritarrak kontent eta elkartasunean ikustea izan da bestetako gauzarik onena».

Erakusketa artistikoz betetako uda Baztanen

Uztailetik aitzinera hamabi erakusketa ikusgai daude Erratzun, Arizkunen eta Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak 'Artearen ibilbidea' martxan jarri du udan, 12 erakusketaz osatutako ekimena. Erakusketa bakoitzean zigilu bat lortu ahalko da, eta txartel pertsonalean gutienez zortzi zigilu lortzean, Arizkunenean entregatu beharko da irailaren 15a baino lehen zozketa batean sartzeko. Hiru sari izanen dira: afari bat bi lagunendako, Baztango Zaporeak elkarteko produktuen saskia eta Baztango liburu sorta bat.

12 erakusketa

Jose Mari Apezetxearen, Roque Lasaren eta Diana Iniestaren pintura erakusketa Erratzun daude ikusgai. **Santxotenaren** eskulturak eta **Teresa Lafraguaren** eta **Xabier Soubeleten** pintura erakusketak

Arizkunen. Elizondon, berriz, **Jose Luis Alzugarayren**, **Tomas Sobrinoren**, **Fernando Gorostidiren**, **Anandaren** eta **Mila Estebanen** pintura erakusketak daude ikusgai, baita **Memoria bat, mila kolore. Gaztelu bat, mila irudi** erakusketa ere.



ONDIKOL

Loraldiko sariak banatu dituzte

Arras Baztanen Loraldiak, bailarako balkoi eta leihoak lorez apaintzeko lehiaketak, sei saridun izan ditu aurten: Lydia Petrirena (Elizondo), Maria Teresa Ibarra (Ziga), Maria Lopez (Elizondo), Joxepi Barrenetxe (Lekaroz), Patricia Pellicer (Elizondo) eta Mari Jose Saldias (Elizondo). Zorionak!



JOSE MANUEL IÑARREA

Iñarrea Atlas mendikatean bikain

Draveten gaixotasuna ikusarazteko munduko mendirik adierazgarrienak igotzen ari da Jose Manuel Iñarrea erratzuarra eta Atlas mendikatean (Marokon) ibili da uztailaren 17an eta 18an. «Esperientzia arras ona» izan da, «bizimodu zaila dute hemen, gu zein ongi bizi garen konturatzeko».

Oharriz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

HARRI LAN, S.L.
ERREKONSTRUKTIOA

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

BRIKO BAZTAN, S.L.

Drogeria - Garbiketa produktuk
Ferreteria - Sukaldeko tresnak
Mozorroak - Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda - Oinetakoak
Laneko arropa - Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak - Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Hainbat euskal abeslarik, dantza taldek eta artistek parte hartuko dute Maiak zuzenduko duen ikuskizunean. UTZITAKOA

«Gure historia gure hizkuntzan kontatzea garaipena da niretzat»

JON MAIA SORIA 'AURKITUKO GAITUZUENOI' IKUSKIZUNAREN ZUZENDARIA

Amaiurko erresistentziaren 500. urteurrena omentzeko, ikuskizun handi bat aurkeztuko dute abuztuaren 6an Amaiurko Herriak, Gaztelu Elkarteak eta Aranzadik, udalaren laguntzarekin

R. OSKARIZ AMAIUR

Zumaian bizi den bertsolaria da Jon Maia Soria (Urretxu, 1972), eta «bertsolaria baldin banaiz ere, bertze arlo batzuetan aritzen naiz; dokumentalgintzan, idazten, abesten, letrak idazten... eta abentura gehiagotan». Bere azkeneko proiektua *Amaiur 2022-2522, aurkituko gaituzuenoi* ikuskizuna da, duela 500 urte Amaiurko gazteluan gertatutakoa kontatuko duena hainbat artista eta talderen laguntzarekin.

Gipuzkoarra izanda, zein da zure lotura Baztanekin?

Euskaldun aunitzek duten berbera: kantuen bidezko lotura, arras inportantea dena.

Kantek funtzio hori betetzen dute eta Euskal Herrian arras nabarmena izan da beti; herriak, bailarak, lurraldeak, lekuak, mendiak... kantengatik ezagutzen ditugu bertaratu aitzinetik ere. Baztan Laboaren kantetan ezagutu dugu, bertze hainbat abestitan bezala. Eta noski, bertsotara eta kantatzera joan izan naiz behin baino gehiagotan inguruko herrietara.

Eta Amaiurrekin?

Umetatik joan izangara Amaiurrera, gure abizena Maia delako. Beti sentitu dut lotura berezia herriarekin, ttikitatik familiarekin bisitatzerako joaten ginen eta gero nire kasa ere bai.

Urte berezia da aurtengoa amaiur-tarrendako eta euskaldunendako, ez?

Euskal Herria osoarendako erreferentzia historiko bat da aurtengoa, Amaiurrek garai historiko baten amaiera sinbolizatzen baitu, galera bat. Gazteluaren setioa eta erresistentzia sinbolo bihurtu dira eta kultuzko leku bat da historia eta abertzaleendako, gure historiako gertakizun garrantzitsua baita. Egia da ez naizela arras historiazalea, aunitzetan sinplifikatzerako jo-tzen dugulako eta ez dizkiogulako ertz guztiak ikusten, eta ez dut historia berezik landu, baina sinbolismo berezia ikusten diot.

Horren harira, 'Aurkituko gaituzuenoi' ikuskizuna zuzenduko duzu...

Ikuskizunean historia aitzakia bezala erabiltzen dut garenaz hausnartzeko eta herritarrei perspektiba bat helarazteko; orain egiten duguna izanen da etorkizunen izanen garena, eta horren kontzientzia edukitzea inportantea da. Izenburuan ere horrekin jotzen dut; etorkizuneko arkeologoei zer aurkituko dute gutaz? Eta zer ondorioztatuiko dute? Gu orain dela 500 urtekoekin egiten ari garen bezala: Amaiur defendatu zuten, Nafarroa defendatu zuten... hainbat gauza suposatzen ditugu. Zer erranen dute gutaz 500 urte barruko arkeologoei? Zer izan ginela? Zer defendatu genuela? Nolakoa euskaldunak ginen? Alegia, nolako euskaldunak gara? Horri buruz hausnartzeko baliatu dut Amaiurko Herriak egin didan enkargua. Niretako, gure iraganari egin diezaiokegun omenaldirik ederrera etorkizun bat bermatzea da, eta hori da gehien interesatzen zaidana; memoria historikoa fosil bat da ez badiegu etorkizun bat ematen.

Zein talde eta artistek parte hartuko dute?

Denetik izanen da; abeslariak (Olaia Intziarte, Joseba Irazoki, Jean Mixel Bedaxagar eta Aire ahizpak), Oinkari dantza taldea, Et incarnatus orkestra, abesbatzak (Amaiurko Gaztelu taldea eta Baztango Koro ttiki)... eta sorpresatxo batzuk gehiago ere izanen ditugu. Jende aunitzek parte hartuko du.

Inoiz horrelako ikuskizun haundirik zuzendu duzu?

Ez, eta honekin ezagutzen ari naiz zer den honelako proiektu handi bat egitea. Ikuskizun konplexua da eta ez dut eszenatokia gertatuko denera bakarrik mugatu nahi izan. Horregatik, proiektzioak erabiliko ditugu eta publiko eta oholtzakoaren arteko barrera puskatuko dugu.

Erronka haundia da?

Bai. Gainera, ez du egitura profesional bat gibeletik, Amaiurko Herria baizik. Arras herri ttikia da Amaiur eta bertako jende eta alkatearen laguntzarekin egiten ari gara dena, auzolanean. Hori polita da, baina lan handiagoa eskatzen du.

Zenbat ikusle espero dituzue?

2.000 lagunendako tokia izanen da. Aunitz dira eta gainera, sinbolismo berezia du ikuskitzaren lekuak. Amaiurko gazteluaren muinoko belaitan egingen da, duela 500 urte nafar horiek setiatuak erresistentzian egon ziren leku berean. Gure historia kontatuko dugu bertan, haiek mintzatzen ziren hizkuntza berean, eta hori da niretako garaipena. Haiek borroka galdu zuten, baina mende erdiaren ondoren gertakizunen zelai berean guk haien hizkuntza berean gure historia kontatzea, gure ahotsetik, garaipen sinboliko handi bat da niretzako. Sentsazio arras bereziak biziko ditugu ikuskitzaren gau horretan.

Ikuskitzuna

Ikuskitzuna abuztuaren 6an 21:30ean Amaiurren izanen da, gazteluaren magalean. Sarrerak salgai daude *amaiureus* webgunean, Amaiurko arkeologia zentroan, Fantxiken eta Axularren. Eserlekuak mugatuak izanen dira adineko jendearendako eta komenigarria izanen da lurrean eseritzeko zerbitzu eramatea.

Gaztelu beltzaren erorketa

1512an Gaztelak Nafarroako Erresuma konkistatu ondoren, hiru aldiz saiatu ziren Nafarroako errege-erreginak erresuma berreskuratzen. Azken saiakera 1521ean izan zen, eta Noaingo Guda izan zen horren ondorio. Nafarrak izan ziren galtzaileak, eta bizirik ateratakoak Amaiurko Gazteluan gotortu ziren. Urtebete iraun zuten bertan, Frantziako armadaren laguntzaren zain, baina frantziarrak ez ziren inoiz agertu. 1522ko uztailaren 13an Karlos V.ak 7.000 gerlariko espedizioa bidali zuen, eta gazteluari setioa jarri zioten. 200 bat nafar bildu ziren gaztelua babesteko, eta setioak aste bate iraun zuen. Uztailaren 19an nafarrak Mirandako kondearen aitzinean errenditu ziren. Abuztuaren 11n konkistatzaileek lehergailuak paratu zituzten Amaiurko Gazteluan, eta leherketa bailara osoan entzun zutela erraten da.

Gertakari hau omentzeko, 1922an (400. urteurrenean), gaztelua zegoen tokian Serrapio Esparza arkitektoak egin-dako monolitoa paratu zuten. Monumentua 1931ko uztailaren 26ko gauen dinamitatua izan zen, Lizarrako estatutuaren eztabaidaren testuinguruan. Diotenez, Falangeko segitzaileak izan ziren erantzuleak, monolitoa Gaztelako Erresuma



Amaiurko gaztelua duela 500 urte. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

traizionatu zuten nafarren ikur gisa ikusten baitzuten. 1982an, berriz, herriko gazteek Gaztelu elkarteak sortu zuten eta monolitoa berreraikitzea erabaki zuten. 2006an Aranzadi Zientzia elkarteak indusketa arkeologikoei ekin zien eta lurpean gelditu ziren arrastoak agerpean gelditzen hasi ziren. Aurkitutako aztarna arkeologikoak Amaiurko museoan ikusgai daude gaur egun.

Askatasunaren eta erresistentziaren ikur

Euskal Herriko historiaren erreferentziatzeko lekua da gaur egun Amaiur, eta gaztelua erresistentziaren eta askatasunaren

ikur bihurtu da geroztik aunitzendako, Nafarroako errege legitimoek leial izan zen azken gaztelua izan baitzen. Espainiako Gerra Zibilean euskal gudarostean zeuden batailoiak bati Amaiur deitu zioten, askatasunaren sinbolo bihurtuta. Bertzeak bertze, Lauaxetaren *Amaiur gaztelu baltza* olerkiak biltzen du gertatutakoa, gero hainbat abeslarik eta musikaririk kantatu dutena.

Amaiurko Herriak, Gaztelu elkarteak, udalak eta Nafarroako Gobernuak gertaera hau omentzeko hainbat ekimen abiatu dituzte aurtan, duela 500 urte Amaiurren gertatutakoa atzendu ez dezagun.

JOSEPHINE'S
20 ENGLISH 13

Loial berria!
Pedro Avillar Iarrak, 2 Elizondo

TALDEAK
Lehen hezkuntza 5. mailatik goiti
DBH eta Batxilergoa (B1 eta B2)

**Matrikula irekita
abuztuaren 31ra arte**

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

ANZABAL
inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, bodega, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Ehunka lagun Amaiurko 500. urteurrenean

Uztailaren 16an Amaiurko gazteluko erresistentziaren 500. urteurreneko ekitaldi instituzionala egin zuten

TTIPI-TTAPA

Amaiurko gazteluaren erre-sistentziaren bosgarren men-deurreneko ekitaldi nagusia ospatu zuten Amaiurren uz-tailaren 16an, ekitaldi institu-zionalarekin eta 150 ezpata dantzariaren desfilearekin. Elizako arkupeetan egindako harrera ofizialarekin hasi zen, Ixabel Aleman Amaiurko al-katearen eta Joseba Otondo Baztango alkatearen eskutik.

Bertan izan ziren Unai Hual-de eta Bakartxo Tejeria Iruñe-ko eta Gazteizko Parlamen-tuetako presidentek; Jose Maria Aierdi Nafarroako Go-bernuko presidenteordea; Unai Rementeria, Markel Olano eta Ramiro Gonzalez Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako ahal-dun nagusiak; Mertxe Aizpu-rua eta Bel Pozueta Espainia-ko Gorte Nagusietako diputa-tuak; Bidasoko herrietako alkateak eta baita Baztango herrietako alkateak ere. 1982an lehendakari zenean gaur egun-go monolito inauguratu zuen Carlos Garaikoetxea lehenda-kari ohia ere han egon zen.

Harreraren ondotik desfilea egin zuten monolitoraino, ezpata dantzari ilararekin buruan, Baztango bandera, Amaiurkoa, Nafarroakoa eta Ikurrina zeramaten bandera-dunekin, eta baita Nafarroako banderaren irudiarekin egin-dako lore-zentro batekin ere. Ibilbidean ezpata dantzari-ek euren dantzak erakutsi zituz-ten, monumentura ailegatze-raino.

Monolitoan Gaztelu taldea kantari aditu zuten eta Ixabel Alemanek hitza hartu zuen. 400. urteurrenean paratu zu-

ten eta dinamitatu izan zen monolitoaz aritu zen Amaiur-ko alkatea. Ondotik, urteurre-na gogoratzeko argazki ofizia-la egin zuten.

Amaiurko alkatearen solasaldia

Alemanek oroimenerako le-kuak izatearen garrantzia az-pimarratu zuen, herriek beren historia ezagutzeko, orainaren nortasuna eta etorkizuneko balioak ezagutzeko.

1522ra egin zuen gibelera, eta honako hau adierazi zuen: «Nafarroaren konkista legez kontrakoa eta bidegabekoa izan zen, eta duela 500 urte kon-kistatzaileen botere beliko izugarriari aurre egin zietenek, Nafarroako Erresumaren in-dependentziarekiko aske eta leial izaten segitu nahi zutela erakutsi zuten. Haren lekuko-tasuna izan da ondarrerik ba-liotsuena, eta arrakasta izan du denboran, eta aintzates-pen-ekintza honen bidez hu-raxe aldarrikatzen dugu. Herri bat gara mundu globalizatu honetan, eta aske izateko au-kerak izan nahi dugu».

Herri bazkaria

Gazteluko ekitaldiaren ondo-tik, segizioa plazara jautsi zen eta han bildu zirenek mutil dantzak eta larrain dantza dantzatzeko aukera izan zuten. Gero, 400 lagun inguru bildu ziren Amaiurko frontoian he-rri bazkaria egiteko. Arratsal-dean, berriz, Xubelet eta Xa-manaten, Aitor Ibarraren, Francisco Santxotenaren eta Beñat Mitxelenaren musika emanaldiak izan zituzten, eguna kantuz akitzeko.



Ezpata dantzariak eta politikariak monolitoan. ONDIKOL



Arizkungo ezpata dantzariak desfilearen harreran. ONDIKOL



Nafarroako banderta monolitoaren aitzinean astindu zuten. ONDIKOL



Ezpata dantzariak herriko plazan dantzan. VALLEDEBAZTAN.COM



Garia biltzeko eta gordetzeko prozesua irudikatu zuten zigatarrek. ONDIKOL



Baseiko meategiko langileen lana erakutsi zuten gartzaindarrek. ONDIKOL

Baztandarren Biltzarrak Elizondoko karrikak bete ditu

Zigak irabazi zuen orgen lehiaketa, Gartzain izan zen bigarren eta Elbete hirugarrena

TTIPI-TTAPA

Beroa nagusi izan bazen ere, jendetza bildu zen uztailearen 17an Elizondoko karriketan, bi urteren ondotik Baztandarren Biltzarra normaltasunez ospatzeko. Hamabortz herriek parte hartu zuten orgen desfilean, Amaierko Herriak ireki zuena, gazteluaren erorke-taren 500. urteurrena dela eta. Euskal Herri osoko musikari eta dantzariak parte hartu zuten desfilean. Ondotik, Merkatuko zelaian bertako produktuekin osatutako 1.600 lagun ingururendako bazkaria izan zen, eta orga irabazleak iragarri zituzten.

Ziga irabazle laugarren urtez

Laugarren urtez segidan, Zigako orgak lortu zuen lehen-dabiziko saria, 1940ko hamarkadan oinarritutako orgarekin. Etxeetako lanak irudikatu zituzten, uztaileko eta abuztuko uztaren bilketa zehazki. Garia biltzeko, erauzteko eta gordetzeko prozesua erakutsi zuten orga landu batean.

Gartzainek lortu zuen bigarren postua, Baseiko meategiaren historia kontatuz. 1880

eta 1950 urteen artean alemaniarraketorri ziren meatzea ustiatzera, eta miseria handiko garaia zirenez, gartzaindarrek bertara joan behar izan zuten lan egitera. Jardunaldia antolatzeko Baseiko bordan egiten zuten elkartzea, burdin harria ateratzeko prozesua eta tirolina bidezko garraioa erakutsi zuten orgetan.

Elbetarrak izan ziren hirugarren, Agotzeneko etxebizitzaren sutea kontatuz. XX. mende hasieran Elbeteko alkate izandako Martin Joxe, Anttoni emaztearekin eta seme sortu berriarekin Agotzenera joan ziren bizitzera. Gau haizetsu batean, lurreko sua indartu eta etxe osoak su hartu zuen. Ezkil hotsekin, barride guztiak atera ziren sua itzaltzera eta familiari laguntzera, eta hori irudikatu zuten orga eder batean.

Sari banaketaren ondotik, mutil dantzak, larrain dantza eta mutxikoak dantzatu zituzten. Gero, dantzaldia izan zen Trikidantz eta Gabezin taldeen eskutik, eta eguna akitzeko Tirri&Tery izan zuten.



Agotzeneko sutea eta herritarren laguntza antzeztu zuten elbetarrak. ONDIKOL



1947ko lehortearen ondorioak erakutsi zituzten lekaroztarrek. ONDIKOL



Sagardoaren ekoizpen tradizioa irudikatu zuten arizkundarrek. ONDIKOL



Burdin mineralez kargatutako orgak plazarako bidean. ONDIKOL

Burdinaren Eguna abuztuaren 6an ospatuko dute

Bizkaiko benakeroek eta Salbatore monasterioko abadeek tratua egingen dute eguerdian, bertze hainbat ekitaldiren artean

ARANTXA ETA IRAIA

Ondoko argazkietan ageri den Ikaburuko leizearen egunaren ondotik, urtero bezala hainbat ekitaldi antolatu dituzte uda honetarako herrian.

Joan den larunbatean, **uztailak 23**, pilotaren unibertsorearen hamalagarren edizioa eta tortilla lehiaketa egitekoak ziren, bi urteko geldialdiaren ondotik. Bertan, hainbat modalitatetako (esku pilota, paleta, erremontea, zesta-punta...) pilota partidez gozatze-ko aukeraz gain, herritarrek haien sukaldari dohainak erakusteko aukera izan dute eta herritarrek eta bisitariak dastatzeko modua ere izan dute.

Burdinaren Eguna egingen dute abuztuaren 6an

Abuztuaren 6an, larunbata-ekin, Burdinaren Eguna izanen da herrian. Goizeko ekitaldiaz eta egun osoan izanen den artisauen azokaz gain, bazkaria ere izanen da herriko plazan. Gogoratu behar da azken bi urtetan ez dela ziki-rorik egin. Eguerdian, ohi bezala, burdin mineralez kar-



Abadea eta benakeroak tratua egingen.

gatutako idiak ailegatuko dira Axular baserritik plaza ingurura eta urtero bezala, burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia egingen dute, Bizkaiko benakeroek eta Salbatore monasterioko abadeak tratua egingen dutenean.

Abuztuaren 20an, berriz, herri kirol jaialdia izanen da. Bertan herri kiroleko zenbait modalitate ikusteko aukera izanen da. Animatu udako ekitaldietarat hurbiltzerat!

Bi herritarren ezkontza

Azken aldiko berri onak ere eskertzen dira eta udahonetan Urdazubin berri aski ona izan dugu: Ana eta Ekaitz herritar-rrakezkondu baitira uztailaren 23an. Zorionak bikote!



UTZITAKOAK

Ikaburuko leizearen egun arrakastatsua

Ikaburuko leizearen eguna ospatu zen uztailaren 16an. Goizean artisauak jarritako postuetan eta Iñaki Libanok eskainitako historiaurreko bizitza-tekniken tailerretan haur eta heldu anitz interesatu ziren. Txalaparta tailerra eta magia ikuskizuna ere izan ziren hurbildutako guzientzat.



JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera



Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Aragoiko irteeran parte hartu duten bazkideetako batzuk. ARKUPEAK

Aragoira joan dira elkarteko 64 bazkide

Ekainaren 20an abiatu, eta 23an itzuli ziren eskualdera. «Hagitz ongi» pasatu dute, nahiz eta bero handia izan

TTIPI-TTAPA

Lau egunetako bidaia ederra egin zuten elkarteko bazkideek ekainaren bukaeran Aragoi aldean. Ekainaren 20an abiatu ziren 64 bazkide autobus batean Zaragoza aldera. Bertara ailegatu aitzinetik, ordea, Castejonon gosalduta zuten. Ondotik, Tarazonan egin

zuten geldialdia eta hango eliza nagusia, zezen plaza eta ingurune historikoak ikusi zituzten. Gainera, eskualdeko elikagaien dastaketa zoragarri bat ere egin zuten. Arratsaldean, aldiz, Moncayo giblean utzita Zaragozara iritsi ziren. Sekulako beroa egiten zuen eta hiria bisita-

tzeko hitzordua bi orduz atzeratu behar izan zuten. Gidari baten laguntzarekin lekuri turistikoak bisitatu zituzten.

Ekainaren 21ean, bidaia bigarren egunean Zaragoza hiria ikusten jarraitu zuten: Alfajeria jauregian dauden Aragoiko gorteak, eta bertzelako leku historikoak bisitatu zituzten. Arratsaldean bertatik ihesi Francisco Goya pintore entzutetsuaren Fuendetodos herrira joan ziren eta bertan bere jatetxea, museoa... bisitatu zituzten.

Ekainaren 22an, Calatayud herrira joan ziren. Goizean upategi bat bisitatu eta ardo dastaketa egin zuten, eta ondotik Meson Dolores jatetxean bazkaldu zuten. Arratsaldean, aldiz, Monasterio de Piedra-ra joan ziren, hango freskuraz gozatzera.

Ekainaren 23an egin zuten bueltako bidea. Puerto Venecia merkataritza Gunean pasa zuten goiza, eta ondotik, 13:00etan Castojenerako bidea hartu zuten. Bertan bazkaldu ondotik itzuli ziren etxera.

Bidaia ederra eta polita izan da, nahiz eta beroa izan den protagonista.

Arantzazura, Lezora eta Portugalera hurrengo bidaiak

TTIPI-TTAPA

Aragoitik itzuli, eta dagoneko hurrengo hilabetetarako bidaiak antolatuak ditu elkarteak. Abuztuaren 31n, urteroko ohitura betez Arantzazuko santutegira joanen dira elkarteko 178 bazkide. Irailaren 14an Lezora egingen dute irteera, eta kasu horretan izen ematea oraindik ere irekia dago: abuztuaren 8an, 9an eta 10ean egin beharko da norbere delegatuari abisatzuz.

Bidaia luzeagoei dagokionez, irailaren 17tik 24ra, elkarteko 65 bazkide Portugalera joanen dira bidaia antolatuan.

Portugalgo bidaiaren xehetasunak

Irailaren 17an Doneztebetik Cacereserako bidea egingen dute bazkideek autobusez. Bertan, arratsaldean San Isidro de Dueñas Monastegia bisitatuko dute, eta Caceresen emanen dute lehenengo gaua. Bigarren egunean, goizean Caceresen bisita gidatua egin eta Portugalgo Algarve alderako bidea hartuko dute arratsaldean.

Hurrengo egunak Algarven emanen dituzte eta bertako lekuri eta herririk ezagunek bisitatuko dituzte: Tavira, Vila Real de Santo Antonio, Portimao, Lagos, Sagres, Cabo San Vicente, Vilamoura, Albufeira, Faro, Fatima eta Coimbra. Lekuri gehienetan bisita gidatuak izanen dituzte eta hainbat museo ere ikusiko dituzte, eta Atunaren bidea ere egingen dute itsasontziz.

Bidaia bukatzeko, irailaren 24an berriz ere etxera itzuli aitzinetik Salamancan egingen dute geldialdia. Bertan bisita gidatua egingen dute goizean, eta ondotik, etxera itzuliko dira.



Elkarteko mendizaleak Berastegin

Neguan euriak eta udan beroak ez ditu elkarteko mendizaleak kikiltzen. Horren seinale, uztailaren 19an Berastegira egindako irteera. 45 mendizale inguru elkartu ziren Gipuzkoako paisaiez gozatzeko.



Goizean denak nahasirik errugbian aritu ziren Animaineen. GANEX



260 lagun elkartu ziren bazkarian. GANEX

50. urteurrena ederki ospatu du errugbi taldeak

Uztailaren 14ko goizean hainbat lagun aritu dira errugbian eta bazkariak 260 pertsona elkartu ditu

GANEX

Sarako Izarra errugbi taldeak aurten egin ditu 50 urte antolatua dela. Hasiera batean, maiatzaren 28an egitekoa zuen mende erdia ospatzeko besta, baina egun hartan euskal ligako finala jokatu eta irabazi zuen Elorrion. Orduan ere nahikoa ospakizun izan ziren,


eta uztailaren 14a hautatu dute 50. urteurren hori ohoratzeko. Goizean, lehengoek, oraikoek, gazteek, neskek eta hurrek egin dituzte errugbi matxatiki batzuk Animaineen. Elkar hunkituz, izigarri ongi jostatu dute denek. Aperifa ederra egin dute eta ondotik bazkari bikaina.

Mugerreko Mechoui Mugek egina, eta ongi gainera, xerritikia ongi errea baitzen. 260 pertsonak parte hartu dute bazkarian eta izigarri kontent ziren. Arratsaldeko 7ak aldean DJ batek eman du soinua denak alaitzeko. Izigarritzko umore onean pasatu da eguna eta gau gehiiena. Patxi Jauregi presidenteak, bere lagunekin, denak eskertu ditu, horrelako egun eder bat antolatzeagatik.

1972tik lanean

Pierrot Etxeberriak 1972an ostatua bazuen eta, etortzen ziren gazteekin, errugbi talde bat egin behar zuela pentsatu zuen. Herriko etxearekin solas egin eta horra nola sortu zen Sarako Basurde taldea. 1974an

zelaia antolatu zuten Animaineen. 1976an eta 1987an hirugarren mailan txapeldun ordea izan zen Sarako Izarra, baina 1990ean ailegatu zen lehen garaipen handia: hirugarren mailan Frantziako txapeldun izan zen. 1991n Cote Basque Lande txapelketa irabazi zuen. 1995ean bi titulu lortu zituen: laugarren mailan Frantziako txapeldun, Saint Andre de Roquelongue taldearen kontra baita Cote Basque Lande txapelketako txapeldun. Cote Basque Lande txapelketan txapeldun orde ere izan da hirutan. 2018tik honat Euskal Herriko lehen mailan jokatzeko ari dira eta iaz eta aurten txapeldun izan dira.



GANEX

Mama Tabac Alyssa de Yzaguirreren esku

Alyssa de Yzaguirrek hartu du Mama Tabac denda. Denda ongi betea du, heldu eta haurrentzako liburuak, oroigarriak eta, bistan da, tabako eta loteria. Alyssa saratarra da, bere gurasoak aspaldi Sararat etorri ziren, eta aitatxi-amatxiak aspaldiko urtetan etortzen ziren Sararat.

Maialen Lujanbioren 'rr #5 marrak' ikuskizuna agorrilaren 11n Ortillopitzen

TTIPI-TTAPA

Agorrilaren 11n, ortzegunean 20:30ean Sarako Ortillopitz etxean *rr #5 marrak* izeneko Maialen Lujanbio bertsolari eta artista ezagunaren ikuskizun berria ikusgai eta entzungai izanen da. Bertso eta testu idatziz osaturiko emanaldi performatiboa da. Maialen Lujanbioren ahotsean, garaia-aren korapiloak eta gure tes-tinguruen kezkagaiak aieratzen dira hitzez eta irudiz, modu poetiko eta plastiko batean. Ondotik musika, jatekoa eta edatekoa.



Maialen Lujanbio.

Sartzeak zortzi eurotan salgai daude Plekan, Herriko Etxeko edantegian edo <https://my.weezevent.com/rr-maialen-lujanbio> webgunean eta agudo hartzea komeni da.

Animazio handiarekin joan dira herriko bestak

Ortziraleko zikiroan 430 afaltiar izan ziren eta larunbat eta igandean 250 bazkaltiar hurbildu ziren karrikara

JL BESSONART

Pozez beterik ziren komiteko gazteak bestak bururatzean, hauek uste baino hobekiago iragan direlako. Ostiraleko zikiroan 430 afaltiar, larunbat eta igandean munda bat hurbildu da karrikara (250 bazkaltiar), kabalen lekiaketarekin abiatutako astelehenean herriarrek bete dituzte jatetxeak, astearteko azken uztarrek bukaera seinalatu dute. Animazio guztiak ongi bete dira, Txarangek ere harrotu dituzte bazterrak denen lorietan. Ezagun zen aspaldi huntan,



Kabalen primak. JL BESSONART

jendea besta horien goaitan zabiltzala, denak irrifartsu ikustea giro sano eta alai batean, atsegin handikoa izan da.



EH Baiko kideak Le Maire erabiltzen duen etxean. JL BESSONART

Arosenean bisitari izan dira EH Baiko kideak bizitegien eskasa salatzeko

Ergarai auzoko etxe hau Bruno Le Maire ekonomia ministroaren familiako egoitza da. Noizbehinka bere familia eta bera ere tarteka, etxe honetara etortzen dira. Aldi honetan EH Bai-ko kide batzuk sartu dira etxean, Euskal Herriko bizitegien eskasaren problematika salatzeko. Ekintza sin-

bolikoa honekin nahi zuten hitzordu bat finkatu, orain arte ezinezkoa zena. Ministerioko ordezkaria den Eric Spitz prefetarekin bilkura iragan da. Orain zer ondorio aterako den ikustekoa da, bigarren egoitzeri buruz aldaketak behar lirateke lortu, bereziki fiskaltate mailan.



Ikuspegi kritikoek kontzientzia hartzeraz bulkatzen gaituzte. JL BESSONART

Elkanoren itzuliaren ikuspegi kritikoa eman du Axier Lopezek mediatekan

Mediatekan, Axier Lopez Argiako kazetariak nahi izan du erakutsi Elkanoren itzuliaren bosgarren mendeurrenaren inguruan eraiki diren ospakizun eta balentriazko ekitaldiek itzal ainitz gordetzen dituztela. Azpimarratu du, garai hartan euskaldun ospetsu batzuk parte hartu zutela, arrazakeria

erabiliz, esklabotzan eta konkistan. Berezi Hegoaldean, zonbat herri ez ote dituzte gizon laudaturiko horien karriken izen edo itxurak plazzen erditan? Gure lurraldean ospatzen delarik Elkanoren itzuliaren bukaera, Filipinetako Mac-tan ugartean, aldi berean, Magellan-en hiltzea ospatzen da.



Herriko haurren kontseilua oihan pedagogikoan. JL BESSONART

Oihan pedagogikoaren estreinaldia egin dute ekainaren 28an

Ekainaren 28an, ihiztarien etxolan den hariztegi xoragariaren pean, bilduak ziren Herriko Haurren kontseilua, Dominique Idiart auzapeza eta Jean Mixel Serrano, Akitanian herrietako oihanez arduratzen dena. Izenpetze batekin finkatu dituzte haurrek kudeatuko duten 2,50 hekta-

reako oihanari buruz harturiko engaiamenduak. Hemendik laster, zuhaitz landatzea gauzatuko da. Haurrek poza eta inplikazioa erakutsi dute, baitakite, helduek bezain ongi, naturaren zaintzea beharrezkoa dela. Ontsalaz, bi urtera bertze haur talde batek segida hartuko du.

HITZ GEZIDUNAK

		◆ Izena ▼		Neurri ▼		Ez eme ▼		Seguru ▼		Itxitura ▼	
		Batzarreko kide		Baldarra, narrasa		Herri baxe-nabartarra		Leinu eskoziar		Aberatsa	
		▶		▼		▼		▼		▼	
		Asiako estatua	▶				Gizon izena	▶			
		Iberiarren hizkuntza					Gudua				
◆ Deitura ▼		Izugarri	▶ ▼								
Erabakitze ahalmen		Sexu emea									
▶		▼							Urania	▶	Laidoa, iseka
									Bokal mehea		
Bilo ▶				Bokala ▶		Ez eme ▶		Zezen zikiratu	▶ ▼		▼
Izurako herritarra				Lehenengo letra		Aezkoakoa		Gaueko otordu			
▶				▼		▼		▼		H2O ▶	
										Baratzeko landare	
... gabe, atertu gabe	▶			Emakume izena ▶						▼	
Alfabetoko letra				Begira							
▶				▼							
		... baterako, adibidez	▶					Kontent	▶		
		Zilarra						Epe			
Iratze ▶		▼			Azkeneko letra ▶		Modua ▶ ▼			Kontso-nantea ▶	
Baztango herria					Boroa		Nitrogenoa			Bokal borobila	
▶					Animalien odola xurgatzen duen saguzarra	▶ ▼	▼			▼	

◆ Iturengo kirolaria

GOITIBEHERA

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										
11										

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.


[1] Herri batean bizi diren pertso-netako bakoitza. [2] Labaien herriko auzo nagusia. [3] Deitura.

[4] Gauza bat aipatzen edo adierazten duen hitza. [5] Merkatua, azoka. [6] Gabezia. [7] Ere ez.

[8] Berako jauregia, Altzate auzoan. [9] Gozoak, emeak, leunak.

[10] Arantzako eta Zubietako mendia (1.046 m). [11] Eragiketa aritmetiko bat.

ERANTZUNAK





Bortziriak pilota eskolak heldu den ikasturtera arte agurtu du denboraldia.

Bortzirietako eskuz binakako txapelak banatu dituzte

Berako Eztegar pilotalekuan jokatu zituzten zortzi kategorietako azken finalak uztailaren 16an

TTIPI-TTAPA

Berako Eztegar pilotalekuan jokatu zituzten Bortzirietako eskuz binakako azken finalak uztailaren 16an. Denera, zortzi kategoriatan banatuta jokatu dute aurtien Bortzirietako txapelketa.

Txikiak B taldean, Alain Errandonea eta Jon Telletxea

18 eta 4 nagusitu ziren, Xiker Olagarainen eta Beñat Ansalasen kontra. **Txikiak A** taldean, aldiz, Oskitz Errandoneak eta Unai Kortak 18 eta 14 irabazi zieten, Mikel Ugalderi eta Aitor Napali.

Umeen kategorian ere bi multzotan aritu dira. **Umeak B taldean** Aner Errandonea

eta Beñat Goñi, 18 eta 12 nagusitu ziren Aimar Almandoren eta Ioritz Eguzkiagirren kontra. **Umeak A taldeko** finala, berriz, uztailaren 2an jokatu zuten Lesakan, eta Ibai Tapia eta Oihan Muñoa 18 eta 16 nagusitu ziren Alain Gajateren eta Aimar Goizuetaren kontra.

Kimuen mailako finala ere aitzinetik jokatu zuten, eta kasu horretan Iker Arotzenak eta Erik Igoak 18-7 irabazi zuten Urko Telletxearen eta Aritz Iparragirrenen kontra.

Haurren mailan ere bi final jokatu zituzten. **Haurrak B** multzoan Gorka Altzuguren eta Oinatz Alkorta, eta Iraun Zestau eta Agur Sagardui aritu ziren elkarren kontra eta lehenengo bikoteak eskuratu zuten garaipena, 18 eta 12.

Haurrak A multzoan, berriz, Aimar Otxandorenak eta Markel Kortak, 18 eta 8 irabazi zuten Mikel Ariztegiren eta Unax Bereauren kontra.

Bukatzeko, **nesken haurren mailan** Araitx Legarretak eta Amañur Martinezek 18 eta 7 irabazi zieten Zelai Sarrateari eta Kattin Madariagari.

Orain, ongi merezitako udako atsedena hartuko dute Bortzirietako pilotariek.



Gonzalez eta Menendez Oviedon.

Baxi Basajauneko Iñaki Gonzalez bigarren Oviedoko Disc Golf Irekian

TTIPI-TTAPA

Oviedoko Purificacion Tomas disc golf zelaian II. Oviedo Irekia jokatu zen uztailaren 16 eta 17an. Espainiako II. Koparako baliagarria zen laugarren txapelketa zen (martxoan jokatu zen bigarrena Irrisarrin). Baxi Basajauna Disc Golf Elkartearen ordezkari gisa, Iñaki González Olaizola Asturiasko lurretara hurbildu zen, eta azkenean MP50 (Master 50) kategorian bigarren postuan sailkatu zen. Oviedo DG Clubeko jokalaria den Ismael Lanaren tarjeta berdina sinatu zuen, baina elkarren arteko desentzuekin galdu egin zuen Gonzalezek.

Harrigarria izan zen *amateur* kategorian, 16 urteko Xurde Menendez Goikoetxeak (Oviedo-Beasain) egin zuena. Torneoako tarjeta onena sinatu zuen, 159 jaurtiketa (-15). Ama beasaindarra du eta aunitzetan bisitatzen du IrriSarri Landeko zelaia.

Espainiako II. Kopan, txapelketak osatzen dituen sei estatik lau txapelketetan puntuaziorik onena lortzen duena izan da irabazlea. Oviedokoaren ondotik, bosgarrena irailean Madrilen izan da eta seigarrena eta azkena Kataluniako Palau i Solità zelaian jokatu da.

Doneztebeko eta Irurritako bina talde hasiak dira gazteen laxoa txapelketan

TTIPI-TTAPA

Laxoa Elkarrekin antolatutako gazteen laxoa txapelketan lau taldek eman dute izena, Doneztebeko eta Irurritako binak. Uztailaren 20an abiatu zen eta ligaxkako seina partida jokatu dituzte Doneztebe A (Lander Arozena, Ekai Elorza, Lukas Ezkurra eta Koteto Ezkurra), Doneztebe B (Jon Larunbe, Asier Agesta, Iker Anzizar eta Javier Zabala), Irurita A (Kaiet Iribarren, Eneko Irazoki, Oihan Arraztoa eta Mikel Iñarrea) eta Irurita B (Julen Elizaintzin, Izai Urrutia,

Aitor Ripa eta Ibon Irazoki) taldeek.

Txapelketa azkar doa eta dagoeneko lehen itzuliko hiru partidak jokatuak dituzte eta bigarren itzuliko jardunaldiak uztailaren 30ean, abuztuaren 3an eta abuztuaren 6an jokatu dituzte.

Ligaxkako bi onenek finala jokatu dute Doneztebeko Bear-Zanan abuztuaren 13an, 17:00etan, bederatzi jokotara. Aitzinetik, 16:00etan, hirugarren posturako lehia jokatu dute hirugarren eta laugarren sailkatuek, zazpi jokotara.

Final nagusia abuztuaren 6an Doneztebeko Bear-Zanan

Baztan-Errekako 42. Laxoa txapelketari dagokionez, finala abuztuaren 6an jokatu dute Doneztebeko Bear-Zana plazan. Hau idazterakoan, finalerdietako joaneko partidak jokatuak zituzten eta bisitari ziren Doneztebe The Moment eta Irurita Migelene taldeek garaipen garbiak lortuak zituzten Arraioz Sagarriari eta Oizi egindako bisitetan (4-9 eta 5-9, hurrenez hurren). Beraz, itxura batean, doneztebarren eta iruritarren arteko finala izanen da, baina ikusi beharko Doneztebe eta Irurritako itzulerako partidetan zer gertatu den.

Herri kiroleetan txapel besta dator sanferminetatik

Iruñeko Foru Plazan jokaturako Nafarroako txapelketetan hainbat garaipen lortu dituzte eskualdeko kirolariek

TTIPI-TTAPA

Bi urteren ondotik, berriz ere Nafarroako hainbat herri kirol txapelketak jokatu dituzte Iruñeko Foruen Plazan sanferminetan. Eskualdeko kirolariek lan bikaina egin dute eta txapel uzta polita ekarri dute. Hasteko, **uztailaren 8an** Nafarroako emakumezkoen aizkora eta emakumezkoen eta gizonezkoen arpana txapelketak jokatu zituzten. Aizkoran Nerea Sorondo beratarrak bortz minutu baino gehiagoko aldea atera zion Maika Ariztegi iturrendarrari. Lucia Etxeberria goizuetarra, berriz, bigarren izan zen arpanean, Irune Biurrunekin bikote eginez, Iraizoz ahizpen gibeletik. Gizonezkoen arpana txapelketan, eskualdeko kirolaririk gabe, Barberena anaiaik izan ziren txapel-dun.

Uztailaren 9an, lasto altxatze txapelketan, Amaiurko Iñigo eta Igor Goienetxe amaiurtarrek parte hartu zuten eta altxaldi bateko aldearekin, Iñigo nagusitu zen (18 altxaldi).

Uztailaren 10ean, gizonezkoen binakako aizkora eta gurdi altxatze txapelketak jokatu zituzten. Gurdiarekin Unai Bertiz sunbildarrak irabazi zuen eta aizkoran Joxean Etxeberria zigatarrak, Eneko Saralegiarekin bikote osatuz. Harri altxatzen ez zen eskualdeko kirolaririk izan. Oskar Aguas, Albaro Zugarrondo eta Aitor Oiarbide aritu ziren eta hurrenkera horretan sailkatu ziren.

Kadeteen mailako Nafarroako arpana txapelketa jokatu **uztailaren 11n**. Lau bikote

aritu ziren lehian, eta etzanda jarritako metroko enberrari hamar epai ematen bizkorrenak Julen Urrutia eta Xabat Altzugarai baztandarrak izan ziren.

Uztailaren 12an, San Fermin Lauko Sokatira Torneo Mistoa irabazi zuen Lesakako Beti Gaztek. Amaiur, berriz, hirugarren sailkatu zen, Berriozaarren gibeletik.

Maika Ariztegi hamabigarrena ingudearekin Uztailaren 13an, Nafarroako ingude altxatze txapelketan hamabigarren txapela jantzi zuen Maika Ariztegi iturrendarrak, 94 altxaldi eginez. Gizonezkoen artean ez zen eskualdeko kirolaririk eta Iosu Marturet nagusitu zen (85 altxaldi).

Hondarreko eguna, **uztailaren 14a** ere emankorra izan zen gure kirolarientzat. Nafarroako gizonezkoen txinga eramate txapelketan Dani Saldias arraioztarra erraz gailendu zen, 14 plaza eta 6,34 metro eginez. Jesus Goñi lekaroztarra bigarren izan zen. Emakumezkoetan, Esti Gas-tearena sunbildarra nagusitu zen (16 plaza eta laurden eta 6,15 metro). Gainera, Nafarroako hirugarren mailako aizkora kanporaketa ere jokatu zen eta Endika Goia beratarra izan zen bizkorrena bi kanaerdikoak moztan (7:40). Abuztuaren 14an Donamarian jokatu den finalean izanenda. Patxi Goia, Aritz Oiarbide, Ibai Telletxea eta Amets Ariztizabalekin batera. Aldiz, kanpoan gelditu dira Arraiozko Julen Urrutia eta Beintza-Labaiengo Jacinto Etxekonanea.



Nerea Sorondo beratarra txapeldun aizkoran.



Amaiurko Goienetxetarrak, lasto altxatzen txapeldun eta txapeldunorde.



Kadete mailako arpana txapelketa irabazi zuten Urrutiak eta Altzugaraiak.



Dani Saldias arraioztarrak nagusitasunez irabazi zuen txinga eramate txapelketa.



Aimar Saldias Labriten eta Aritz Juanenea eta Josetxo Ezkurra Galarretan, hiruak txapeldunorde. JOSEBA ZABALZA/MAIALEEN ANDRES

Bi txapelketa bai baina txapelik ez erremontean

Eskualdeko erremontistek Euskal Jai Fundazioko eta Oriamendiko sanferminetako finalak galdu egin zituzten

TTIPI-TTAPA

Erremonte profesionalean bi enpresa daude eta biak antolatatu dituzte sanferminetako txapelketak: Euskal Jai Fundazioak Labriten eta Oriamendik Galarretan. Bietako finalean izan dira eskualdeko erremontistak baina bakar batek ere ez du txapela janzterik lortu.

Euskal Jai Fundazioak eta erremonte enpresak antolatutako erremonte profesionalen txapelketaren finala uztailaren 13an jokatu zen. Bertan izan zen Aimar Saldias oiztarra, Zeberio II. arekin bikote eginez, baina 27-35 galdu zuten Maxin III. a eta Ion azpeitiarren

kontra. Aitzinetik, hirugarren postua erabakitzeako partida jokatu zuten eta Eloi Otxandorena doneztebarrak eta Otanok 35-26 irabazi zieten Aimar Jabalera doneztebarrari eta Agirrezabalari.

Oriamendik antolatutako San Fermin Torneoari dagokionez, Josetxo Ezkurra II. a doneztebarra eta Aritz Juanenea saldiastarra izan ziren uztailaren 15ean Galarretan jokaturako finalean, baina hauek ere galtzaile suertatu ziren Ansa II. a eta Azpirozekin (30-26). Gaizki hasi ziren Mallerrekako erremontistak, eta hamar tanto gibeletik izan ziren (22-12). Hiru tantora hurbildu ziren (28-25), baina ez zuten buelta ematerik izan.

Bi urteren ondotik berriz ere Ramon Latasa Saria egingen dute Sunbillan

TTIPI-TTAPA

Pandemiarengatik bi urtez antolatu gabe egon ondotik, Ramon Latasa Saria egingen dute berriz ere aurten. Abuztuaren 13an jokaturako da hemeretzigarren edizioa Sunbilla pilotalekuan, 19:00etan. Bertan, zortzi aizkolari onenetsuenak ariko dira. Aurten, gizonetako gain, emakumeen binakako aizkora erakustaldia izanen da.

Lau bikote hauek lehiatuko dira: Aitzol Atutxa eta Eneko Otaño; Iker Vicente eta Jon Irazu; Mikel Larrañaga eta Jon

Rekondo leitzarra eta Julen Alberdi Txikia IV. a eta Ugaitz Mugertza.

Bikote bakoitzak hamar kanardiko eta sei 60 ontzako moztu beharko ditu.

Beteranoak eta emakumeak

Ekitaldi berean, aizkolari beteranoen arteko desafio berezia izanen da. Donato Larretxea aranaztarrak eta Migel Mingegia zubietarrak Angel Arros piderekin eta Jose Ugarteburerekin neurtuko dituzte indarrak. Bikote bakoitzak seina enbor moztu beharko ditu;

lau kana erdiko eta bi 45 ontzako.

Emakumezkoetan, Nerea Sorondo eta Uxue Ansorregi, Irati Astondoa eta Laiene Pikabearen aurka ariko dira. Bikote bakoitzak metroko lau enbor moztu beharko ditu.

Harri-jasotzaileak ere

Harri-jasotzean ere izanen da lehia, Aimar Irigoien eta Jon Unanue Goenatxo III. aren artean. Bi minutuko bi txanda egingen dituzte eta bi harri erabiliko dituzte: 138 kiloko kubikoa eta 175 kiloko zilindroa. Irigoienek hiru altxaldiko abantaila emanen dio bere aurkariari. Ikuskizun bikaina espero da.

2018tik jokatzeko ez zen Herriz Herri txapelketa abiatu da Elizondon

TTIPI-TTAPA

Talde nahikorik ez zelako Nafarroako Herri Kirol Federazioak 2018tik ezin izan du antolatu herriz herri txapelketa antolatu. Aurten, berriz, bi kategoriatan banatu behar izan dute, absolutua eta 21 urtez azpikoa. Bietan izanen dira eskualdeko taldeak eta hiru lehenbiziko jardunaldiak eskualdean jokatzekoak dituzte.

Lehen jardunaldia uztailaren 25ean, astelehenean Elizondoko Iriarte frontoian jokatzeko zuten Arantza, Arraioz, Berriozar eta Goizuetako taldeek, maila absolutoan. 21 urtez beheko kategorian, berriz, Igantzi, Araxes, Antsoain eta Berriozar aritzekoak ziren.

Uztailaren 31n, igandean 19:00etan Berako Eztegar pilotalekuan jokaturako den jardunaldian Arantza, Arraioz, Goizueta eta Sunbilla lehiatuko dira maila absolutoan. 21 urtez behekoak ez dira ariko.

Abuztuaren 15ean, 18:00etan Etxalarko frontoian hasiko den jardunaldian Araxes, Basaburua eta Sunbilla ariko dira. 21 urtez behekoak ez dira ariko.

Abuztuaren 20an, 19:00etan Burlatan, Araxes, Basaburua eta Berriozar ariko dira. 21 urtez behekoak ere ariko dira.

Maila absolutoan, finalera sailkatzen diren lau taldeak eta 21 urtez beheko lau taldeak ariko dira **abuztuaren 27an** Añorben.

Maila absolutoan bi proba konbinatu izanen dituzte. Lehen proba konbinatua mistoa izanen da eta lokotx biltzen, zaku lasterketan, aizkora, korrika eta arpanan arituko dira. Bigarren proba konbinatua txinga-eramatea eta ingude altxatzea izanen dute.

UZTAILAK 28 - ABUZTUAK 11

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



UTZITAKOIA

BERTIZ 'Lilura-olerki magikoak' Mikel Belaskoainen erakusketa

Poema bisualak, soinu eskulturak, zinema sorkuntza, kontzertuak...

Lorategi botanikoan, erakusketa gelan eta proiektzio aretoan, uztailaren 1etik abuztuaren 31ra.

AZOKAK

ELIZONDO

Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, uztailaren 30ean eta abuztuaren 6an, 10:00etatik 14:00etara.

ERRATZU

Baztango Artisauak

Plazan, uztailaren 31n eta abuztuaren 7an, 11:00etatik 15:00etara.

MUSIKA

BERA

Hutsun + JEL-Trioren kontzertua

Uztailaren 29an 19:00etan Toki Onako patioan.

DONAMARIA

The Trikiteens taldearen kontzertua

Frontoian, uztailaren 31n, 19:00etan.

ALMANDOZ

Baztan Kantuz

Plazan, uztailaren 31n, 12:00etan.

ETXALAR

Paraninfo Trio taldearen akordeoi kontzertua

Elizan, abuztuaren 7an, 12:45ean.

ERAKUSKETAK

ARIZKUN

Santxotena Parke Museoa eta Teresa Lafraguaren pintura erakusketa

Santxotena eskultura parkean, uztailaren 15etik abuztuaren 31ra, astelehenetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era, igandeetan 11:00etatik 14:00etara.

Xabier Soubeleten pintura erakusketa

Sasternea etxean, uztailaren 9tik irailaren 9ra, ortzegunetik igandera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO

'Memoria bat, mila kolore. Gaztelu bat, mila irudi'

Arizkunenean, uztailaren 8tik urrira arte, asteartetik igandera 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara.

Fernando Gorostidiren

'Estudio abierto' erakusketa

Jaime Urrutia 15ean, uztailaren 29tik abuztuaren 31ra, egunero 20:00etatik 00:00etara.

Jose Luis Alzugarayren pintura erakusketa

Jaime Urrutia 3an, uztailaren 15etik urrira arte, asteazkenetik ortziralerara 18:30etik 20:30era, asteburuetan 12:00etatik 13:30era eta 18:30etik 20:30era.

Tomas Sobrinoren pintura erakusketa

Arizkunenean, uztailaren 30etik irailaren 4ra, astelehenetik ortziralerara 18:00etatik 21:00etara, asteburuetan 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 21:00etara.

Anandaren eta Mila

Estebanen pintura erakusketa

Jaime Urrutia 48an, erakusketa iraunkorra, astelehenetik larunbatera 18:30etik 20:00etara.

ERRATZU

Jose Mari Apeztexearen eta Roque Lasaren pintura erakusketa

Zubietea etxean, uztailaren 22tik abuztuaren 15era, 18:30etik 20:30era.

Diana Iniestaren 'Zure

ondoan' pintura erakusketa

Diana Iniestaren pintura tailerrean, abuztuaren egunero, 18:00etatik 20:00etara.

BERTIZ

'Lilura-olerki magikoak'

Mikel Belaskoain artistarekin. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra. Lorategi botanikoan 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era, erakusketa gelan 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara eta proiektzio aretoan 'Luna negra' egunero 17:30etik 18:00etara. Abuztuaren 4an Holly Mirandaren kontzertua 17:30ean.

IKUSKIZUNAK

ELIZONDO

Kimua Dantza Taldearen ikuskizuna

Plazan, uztailaren 29an, 20:00etan.

AMAIUR

'Aurkituko gaituzuenoi'

Monolitoaren muinoan, abuztuaren 6an, 21:30ean. Sarrerak 'amaiur.eus'en, Arkeologia zentroan, Fantxiken eta Axularren, 20 eurotan helduentzako eta 10 eurotan haurrentzako.

SARA

'rr #5 marrak'

Maialen Lujanbioren eskutik. Ortillopitz etxean, abuztuaren 11n, 20:30ean. Sarrerak 8 eurotan 'my.weezevent.com/en, Plekan eta Herriko Etxeko Edantegian.

JARDUNALDIAK

BEINTZA-LABAIEN

'Lezealde, lur barruko altxorra' espeleologia jardunaldia

Uztailaren 31n, 10:00etan. Izen-ematea 659 47 73 96 telefonora deituta edo info@orbela-beintza.com helbidean, 20 eurotan helduentzako, 14 gazteentzako.

LEITZA

Futbol Campusa

Arkiskil futbol zelaian, abuztuaren 1etik 5era, 09:00etatik 14:00etara.

MENDIALDEA

'Oihanean sentitu' bisita gidatuak

Ipuin kontalaria eta musika zuzenean. Abuztuaren 3an Beintza-Labaienen, 4an Donamarian, 10an Lekarozen eta 11n Berroetan. Izen-ematea 948 59 23 23 telefonoan, 8 eurotan helduentzako, 4 haurrentzako.

TAILERRAK

LEITZA

'Begirada ezberdin baten bila'

Liburutegian, abuztuaren 3an, 11:00etan.

Birziklapen tailerra eta hondakinen ginkana

Liburutegian, abuztuaren 9an, 11:00etan.

NIRE AUKERA

«Gaur egun erremontearen egoera ez da lehengoa bezain ona»

AIMAR JABALERA JUANENA DONEZTEBEKO ERREMONTISTA



21 urteko Doneztebeko gazte kirolaria da Aimar Jabalera Juanena, eta bertze gauzen artean, futbolearen aritzea eta erremontean jokatzeko dira bere zaletasunak.

Lehen pilotakadak

13 urte ingururekin hasi zen Jabalera erremontean. «Udan laxoako gazte txapelketa izaten genuen, baina udan bakarrik aritzen ginen. Orduan, Doneztebeko erremonte eskolan hastea erabaki nuen laxoan behar den maneia ez galtzeko eta hobe lortzeko. Horrela, ikasturtean erremontean aritzen nintzen eta udan laxoan».

Gaur egun, profesionalki aritzen da; «18 urterekin Agoitzan egin nuen debuta, enpresa berri hau sortu zenean. Enpresaren lehendabiziko txapelketan parte hartu nuen».

«18 URTEREkin
EGIN NUEN
DEBUT
PROFESIONALA»

Entrenamenduen garrantzia

Profesionalerantz aritzeko maila izateko, entrenatzea ezinbertzekoa da. «Txapelketa batean gaudenean astean behin entrenatzen gara, partidak ortziraletan izaten ditugulako. Txapelketarik ez dugunean, berriz, astean bi aldiz entrenatzen gara». Entrenamendu bakoitzean «guti goiti-beheiti ordu eta erdi aritzen gara entrenatzen».

Entrenamenduez gain, hainbat partidatan aritzeko aukera eman dio erremonteari, eta horrek momentu onak eta txarrak ekartzen ditu. «Orain arte bizi izan dudana momenturik onena azkeneko txapelketa izan zen. Txapelketa ederra egin genuen eta finalera ailegatu ginen, nahiz eta galdu egin genuen. Momenturik txarrenak, berriz,

«ETXEAN BETI
IZAN DUGU
FUTBOLERAKO
AFIZIO HANDIA»

txapelketa bat hasi aitzinetik jokatu duten bikoteen izenak jakitean ni haien artean ez egotea».

Kirolari eusten

Gaur egun, erremontearen egoera «lehengoa bezain ona ez dela» dio Jabalera, «baina gu erremonteari eusten ari gara». Orain, «lehen baino partida guttiago jokatzen ditugu eta frontoietara jende guttiago etortzen da». Hori konpontzeko, «hoberena esku pilotaren egiten duten bezala bi enpresak bata bertzearen kontra aritzea izanzen litzateke».

Eskualdeko gazteak kirol hau probatzera animatu ditu; «Doneztebeko, Irurritako eta Agoitzko erremonte eskoletan hainbat gazte aritzen dira eta kopurua goiti doa. Orain gure partidaren aitzinetik gazteak aritzen dira».

Kirol berezia da erremontea, eta nahiz eta esku pilotaren antzekoa izan, «pilotari eskua-ekin zuzenean eman beharrean, zetak erabiltzen ditugu. Gainera, erremontean pilotak esku pilotan baino abiadura handiagoa hartzen du».

Baloari ostikoka ere trebea

Erremonteari gain, futbolearen ere aritzen da Jabalera; «aunitzez lehenago hasi nintzen futbolearen, etxean beti izan dugu afizio handia eta tikitatit aritu izan naiz». Beti Gazterekin hirugarren mailan aritu da azken denboraldian, «esperientzia latza izan da, pena da berriz jaitsi garela baina hirugarren mailan aritzea izugarria da».

Futbol zelaian zein pilotalekuan «hagitz gustura» aritzen da eta ezin du kirol bakarra aukeratu, baina etorkizunera begira argi du «ahal dudana bitartean bi kirol hauetan jokatzen segituko dudala».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMATEKO



JAKA. 2 logelako pisua salgai. Sukaldea, jangela eta egongela dena bat. Bainugela eta pasilloa. Mobleztatua eta hagitz egoera onean. Garajea eta trastelekua eraikinaren behealdean. Igogailua eta komunitateko igerilekuarekin. Hagitz kopapen ona. ☎699 11 65 95.

LANA

ESKAINITZAK

AMAIUR. Datorren ikasturtean Amaiurren urte inguruko haur bat zaintzeko norbaiten bila. Ordu kopurua eta ordutegia adostekoa. ☎660 48 82 98.

ARESO. Ebaketako erremintak egiten dituen enpresa batean CAD-CAM teknikaria behar dute. Mekanizazioan edota CAD-CAM bulego teknikoan esperientzia izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak bidali curriculumak: administracion@euskron.com.

ESKARIAK

Irunen bizi den neska bat lan bila. Adinekoak edota haurrak zaintzen, garbiketan... ariko litzateke. ☎610 36 55 27.

Neska arduratsua lan bila. Interna gisa adinekoak zaintzen edota etxeko lanetan aritzeko prest, jateetxetan zerbitzari lanetan, sukaldean laguntzaile... Segidan hasteko prest. ☎688 74 02 01.

Esperientzia duen neska gaztea, udan haurrak zaintzeko prest. ☎677 09 95 99.

ZERBITZUAK

KLASE PARTIKULARRAK

ELBETE. Unibertsitateko ikasleak matematikako eta ingeleseko klase partikularak emanen ditu abuztuaren 8tik aitzinera, DBH 4. mailara arte. Klaseak Elbeten izanen dira. ☎681 65 04 71.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ELIZONDO. Katakumeak oparitzeko, haurrekin eta txakurrekin egotera ohituak. ☎679 07 91 52.

IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan

Bizum bidez (erran.eus/tpv/ordainketa)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik


LEITZA. Border Collie arrazako zakurkumeak oparitzeko. Hilabete eta erdi dituzte. Ongi zainduko eta maiteko dituzten norbaiti oparitzeko. ☎636 02 23 11.

Bi **katakume** oparitzeko. ☎626 33 53 98.

DENETARIK

SALGAI

Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,94
- 1.koa 4,82
- 2.koa 4,70

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,05
- 1.koa 4,91
- 2.koa 4,80

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze tikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 140,00
- Idixkoak 160,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 58 €

Zerri gizona 1,679 €

Zerramak 0,660€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua uztailaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

BERAKO UDALA

ALKATEAREN EBAZPENAK –HIRIGINTZA–

Berako Udaleko Alkateak, uztailaren 7an emandako 173/2022 eta 174/2022 Ebazpenen bitartez, ondoko xehetasun-azterketak onetsi zituen hasiera batez, hurrenez hurren:

-SK2 sektoreko UE8ko 2. partzela (egungo 9. poligonoko 326. eta 403. katastro-partze-len zati bat).

-9. poligonoko 254. partzelatik bereizitako zatiarena.

Espedienteak jendaurrean izanen dira hogeitazetaz, dagokion iragarkia N.A.O.n argitaratu ematen denetik.

Bera, 2022-07-20

ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña


URTEBETETZEAK



Mirari Oshun Salaberria Zabalak urtea bete du uztailaren 26an. Zorionak *pittirrina* familia guziaren partetik eta bereziki Yoni, Mikel, Aingeru eta Yera Arantzazuren partetik.



Xana Mujika Elizalde amaiurtarrak abuztuaren 16an 7 urte beteko ditu! Ongi pasa eguna *pizpireta*!



Arantzako **Izaro Landa Iparragirrek** abuztuaren 4an 8 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu haundi bat denen partetik!



Zorionak eta aunitz urtez **bixka! Aroa Agerralde Arretxeak** uztailaren 18an 2 urte bete ditu. Besarkada haundi bat eta muxu potolo bat familiaren partetik!



Zorionak, **Unax!** Bi urte beteko dituzu abuztuaren 10ean. Xiui... puuun! E-e... Aurten kankailuekin ospatuko dugu! Amets bat izaten ari da zure etengabeko deskubrimenduan laguntzea. Besarkada erraldoiak zuretzat, goxo-goxo-goxo...



Sunbillako **Ibai Petrarena Gorosterrazuk** abuztuaren 9an 12 urte beteko ditu. Aunitz urtez gazte familia guziaren partetik eta bereziki Iraide eta Garaine lehengusinen eta Ander anaiaren partez. Egun ederra pasa.



Agorrilaren 2an Gorostapoloko **Siuka Bidegarai Iturrek** 3 urte beteko ditu. Aunitz urtez Siuka-Siuka! Parabéns *borboletinha* mugalari! Musu ainitz Mamãe eta Aitaren partez. Aurten bai! Argentinako eta Bidarraiko familiekin ospatuko dugu! Segi beti bezain alai!!!



Narbarteko **Unai eta Saioa Zubigarai Bertizek** abuztuaren 5ean eta 21ean 6 eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak familia guziaren partez! Egun eder bana pasatu! Muxuak!!



Zorionak eta aunitz urtez **Aroa, Ekaitz, Ander eta Arrixkori** uztailaren 10ean eta abuztuaren 10ean 10 urte beteko dituzte. Ongi pasatu eta muso haundi bana Arantzako eta Sunbillako familia guziaren partetik!



Tiane Larretxea de Mateo beratarak 19 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak familiaren partetik eta ongi pasa Berako bestak!



Igantziko **Maialen Almandoz Retegik** 6 urte beteko ditu abuztuaren 3an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guziaren partez!

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!
Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta.
Bulegoan eta postaz Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA helbidera etorrita edo bidalita.
Whatsappez 744 48 43 61 zenbakira idatzita.

SORTZEAK

- **Haize Baleztena Agirre**, Sunbillakoa, uztailaren 1ean.

EZKONTZAK

- **Xan Harriague** eta **Nagore Guarretxenea**, uztailaren 8an Saran.
- **Fabrice Cthelau** eta **Clara Bolado**, uztailaren 9an Saran.

DONEZTEBEko AVIA GASOLINDEGIA

Club AVIA txartelarekin
%2ko deskontua erregaian eta %5eko deskontua dendako produktuetan

Leitza bidea, 49 · T. 948 451 679 · www.doneztebe.net

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN


Diseinua prestatzetik inprimatzeraino, prozesu osoa

AGORLEKU

KULTURKARI
Diseño gráfico | Publicidades

Tel. 948 63 54 58
kulturkari@tupi.eus
www.kulturkari.com

URTEURRENA



Gurutze IPARRAGIRRE OSKOZ
Arantzan, 2014ko uztailaren 15ean
VIII. URTEURRENA

*Zortzigarrena,
Urte bat bera ere ez zutaz ahanzi ez garena,
Zu gabe bizitzea gauzarik zailena,
Ezagutu genizunok eraman genuen altxorrik haundiena,
baina zauden lekuan zaudela
oraindik ere allegatzen zaigu
zure zoriontasunaren indarrak ederrena,
izan ere, maitatzen segitzea baitugu
aurrera segitzeko kenera.*

GOIZANE LEHENGUSINA

OROIGARRIA



JULIAN TABERNA PETRARENA
1939-04-03 | 2022-06-07

*Elkarrekin zoriontsu izan gara,
eta, noizbait,
berriaz elkartuko gara.
Segi beti alai, ikusi arte.*

OROIGARRIA



Inazio ITURRARTE ERBITI
Leitzan, 2022ko uztailaren 9an

*Dena eman zenigulako
adiorik ez.
Joan ez bazina bezala
oroituko zaitugu.*

GOIAN BEGO.

ZURE FAMILIA



IZARRA
HERRI, ZURE ONDOEN
ABUL A PULADO

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HERIOTZAK

- Milagros Aldabe Aranburun** Berakoa, uztailaren 6an, 100 urte zituela.
- Maria Josefa Arsuaga Donazar**, Erratzukoa, uztailaren 7an, 97 urte zituela.
- Inazio Iturrarte Erbiti**, Leitzakoa, uztailaren 9an.
- Elena Ugarte Ortiz**, Elbetekoa, uztailaren 10ean, 92 urte zituela.
- Maria Milagros Garmendia Viela**, Elizondokoa, uztailaren 12an, 86 urte zituela.
- Miguel Dorronsoro Almandoz**, Igantzikoa, uztailaren 12an, 95 urte zituela.
- Zacarias Juanenea Lasarte**, Doneztebekoa, uztailaren 14an, 86 urte zituela.
- M^a Carmen Mitxeo Legarreta**, Oizkoa, uztailaren 15ean, 94 urte zituela.
- M^a Angeles Ilzauspe Irigoien**, Erratzukoa, uztailaren 16an, 90 urte zituela.
- Valleri Irazoki Irazoki**, Berakoa, uztailaren 18an.
- Joxe Mari Kamino Etxenike**, Zugarramurdikoa, ekainaren 18an, 78 urte zituela.
- Esteban Irurzun Balda**, Goizuetakoa, uztailaren 18an, 82 urte zituela.
- Antonio Mendegia Maritxalar**, Lesakakoa, uztailaren 19an, 95 urte zituela.

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Irufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es



BAZTAN BIDASOA
Heriotza Zerbitzuak

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

PLAZAN BAZAN




DOMINOAN

Bete itzazu lauki zuriak, domino-zati honek zentzua izan dezan.



HANDITIK TXIKIRA

Hondarretan gazteluak egitea bai dibertigarria! Zein da Markelen itzal zuzena?



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kaskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

810 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Juan Bautista Muru Arretxea | IRURITA
Onddo ta punto - Kamiseta bat
Severo Fagoaga Gortari | ZUGARRAMURDI
Martiko - Lote bat
Tere Aierza Irigoien | LESAKA
Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat
Bitoriano Iparragirre Lukanbio | LEITZA
BKZ abentura - Sarrera bat
Juana Mari Muñoz Amorena | DONEZTEBE
Giltxaurdi Udak kiroldegia - Bi sarrera
Juan Ignacio Etxeberria | SUNBILLA
Wow Park - Bi sarrera
Pedro Jose Berho | DRONÓZ-MUGAIRI
Baga-Biga - Hiru CD
Francisca Ibarburu Lekuona | BERA

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑA
www.saltngcenters.com



Bi sarrera

MENDUKILO
www.mendukilo.com



Bi sarrera

IRRISARRI LAND
www.irisarriland.com



Sarrera bat

MANUELA ARIZTELA
www.manuelaariztela.com



Mantala

WOW PARK
www.wowpark.fr



Bi sarrera



**LI
BU
RU
AK**



Bihotz nahasiak
Afrikako semea

ibaizabal
www.ibaizabal.com

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.katxiporreta.eus



www.ezkexa.com/eu/